



**A5283**

Altzarako Udal Jarduketa Plana - Plan de Actuación Municipal  
para Aitzza / Donostiako Udala-Ayuntamiento de San Sebastián.  
Donostia: 2005. 73 p. - 77 p. (il.), 29,5 cm..

CASARES KULTUR ETXEA

**Tokiko Bilduma**



# AItza

# rako Udal Jarduketa Plana

Donostiako Gobernuak aurkeztu duen onartutako lehenengo dokumentua



**Donostiako Udala**  
**Ayuntamiento de San Sebastián**

Donostiako Alkatea  
El Alcalde de San Sebastián

[www.donostia.org](http://www.donostia.org)



Donostia-San Sebastián, 5 de Abril de 2005.

Herritar hori:

Donostiar Gobernuak joan den martxoaren 18an, hasi bidez, **Altza Auzorako Udal Ekintza Plana** onartu zuen. Dokumentua lagungarri gertatuko da datozen sei urtekoan beharrezko izango diren ebazpide eta inbertsioak bultzatu, koordinatu eta planifikatzeko, hala, auzoa behin etiko **biziberritzeko** eta zaharberritzeko.

Hainbat obra eta hobekuntza egiten ari dira Altzan, Udalak azken urteotan abiarazi dituen hirigintza planez gain. Altza Auzorako Udal Ekintza Plana auzoaren bilakabidea aztertu ez ezik, Altzako elkarteek berek egindako beharren diagnosis ere jasotzen du, hornidura huts eta ezak adierazita, baita **plan osoko** honetan Altzako herritar guztien bizi kalitatea handitzeko jasoriko erantzunak ere.

Gonbit egiten dizut hura irakurtzera eta egoki jotako ekarpen eta gogoetak niri bidaltzera. Apirilaren 4an hasi zen, gutxienez, hilabete joko duen epe bat, aipatu ekintza plana behin betiko erredaktatzen **parte hartzekoa**.

Agur t'erdi,

Estimado/a ciudadano/a:

El Gobierno donostiarra aprobó el pasado día 18 de marzo, con carácter inicial, el **Plan de Actuación Municipal** para el barrio de Alza. Se trata de un Documento que ayudará a impulsar, coordinar y planificar las soluciones e inversiones necesarias en los próximos seis años para lograr la definitiva **revitalización** y regeneración del barrio.

Son numerosas las obras y mejoras que se vienen realizando en Alza, así como los Planes urbanísticos que este Ayuntamiento ha puesto en marcha en los últimos años. El P.A.M.A. analiza la evolución del barrio, el diagnóstico de necesidades realizado por las propias entidades de Alza señalando los déficits y carencias dotacionales, así como las respuestas previstas en este **plan integral** para elevar la calidad de vida de toda la ciudadanía de Alza.

Le invito a su lectura y a que me haga llegar cuantas aportaciones y reflexiones estime oportunas. A partir del día 4 de abril se ha abierto el plazo de 1 mes, como mínimo, para **participar** en la redacción definitiva del citado Plan de Actuaciones.

Reciba un cordial saludo,

ODON ELORZA  
Alcalde

## Aurkibidea

<b>1</b>	<b>Sarrera</b>	
	I. Auzoaren azterketa eta bilakaera .....	5
	II. Altzaren biziberritze- eta hirigintza-planak .....	5
	III. Udal Ekintza Plan berria. Helburuak .....	6
	IV. Altza auzoaren gizarte- eta ekonomia-arloko datuak, Udal Behatokiak emanda .....	7
<b>2</b>	<b>Donostiako gobernu-programa (2003-2007). Altza auzoarentzako atal interesgarriak</b>	
	I. Sarrera. Programaren ardatzak eta hiri-eredua .....	8
	II. Gure programako konpromisoak .....	9
	a. Hirigintza eta etxebizitza .....	9
	b. Gizarte-zerbitzuak .....	9
	d. Ingurumena eta iraunkortasuna .....	10
	e. Mugikortasuna (zirkulazioa, aparkalekuak) .....	10
	f. Garraio publikoa .....	10
	g. Merkataritza .....	10
	h. Teknologia berriak .....	10
	i. Kultur politikak .....	10
	j. Heziketa-zerbitzuak .....	10
	k. Euskara .....	11
	l. Tokiko Demokrazia eta Herritarren Partaidetza .....	11
	m. Gazteriarentzako Ekintza Plana 2003-2007 .....	11
	n. Kalitatea eta udal-zerbitzuak .....	12
	o. Hobekuntza Plana eta Donostiako auzoetarako oinarriko ekipamenduak. Altzako ekintzen erreferentziak .....	12
	III. Hurrengo legegintzaldirako proiektu estrategikoak (Altzako Programaren laburpena) .....	13
<b>3</b>	<b>Altza biziberritzeko apustuak</b>	
	I. Urban Plana .....	15
	II. Izartu Plana .....	16
<b>4</b>	<b>Herritarren partaidetza-prozesuak eta Altzako Garapen Komunitarioko Planaren taldearen eraketa</b>	
	I. Oinarria .....	17
	II. Helburuak .....	19
	III. Proiektuaren kokapena eta tamaina .....	20
	IV. Erabili beharreko metodologia .....	20
	V. Lan-plana eta egutegia .....	21





<b>5</b>	<b>Azken 12 urtean Altzan egindako obren zerrenda</b>	22
----------	---	----

## **6** Herritarren eskaerak. Premien diagnostiko-txostena

I.	Altzako Garapen Komunitarioko Planean parte hartzen duten elkarteen eta beste erakunde batzuen zerrenda	25
II.	Sarrera	26
III.	Metodologia	27
IV.	Altzako elkarteen premiak ezagutzea	28
V.	Altzako profesionalek antzemandako premiak ezagutzea	33
VI.	Altzako gazteen premiak ezagutzea	36
VII.	Altzako Garapen Komunitarioko Planari jarraipena emateko proposamenak	38

## **7** Altzako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Berrikusteko Aurrerapen Dokumentua

I.	Mugapena	44
II.	Hirigintzaren Egoera. Interbentzioko irizpide orokorrak	44
III.	Etxebizitza eta jarduerak ekonomikoak	46
IV.	Mugikortasuna	47
V.	Hiriko espazio libreak	48
VI.	Ekipamendu komunitarioa	48
VII.	Zerbitzu-azpiegiturak	49

## **8** Martxan dauden hirigintza-planak

I.	Nerecan-Lardi Alde	50
II.	Herrera	51
III.	Buenavista	51

## **9** Auditx-Akular, Landarro eta Molinao ibarra

I.	Lehiaketa	52
II.	Udalbatzak onartutako antolamendurako oinarrizko irizpideak	52
III.	Interbentzioari buruzko oharrak	53

## **10** Burutzen eta prestatzen ari diren ekintzak

I.	Nerecan-Lardi Alde hirigintza-proiektua	55
II.	Herrerako Plan Berezia	56
III.	Buenavistako hiri-antolaketa eta etxebizitza berriak	56
IV.	Auditx Akularreko Plan Berezia	57
V.	Arriako etxebizitza berriak	57
VI.	Santa Barbararen berrantolaketa	58

VII. Oietaren berreraketa integrala .....	58
VIII. Elizasu plazaren berrantolaketa .....	59
IX. Darieta bideko hobekuntzak .....	59
X. Larratzoko igogailu eta eskailera mekanikoen instalazioa .....	59
XI. Mikrobussen zerbitzu berria .....	59
XII. Tomasene Baserriaren birgaitzea .....	60
XIII. Ametzagaina Parkea .....	60
XIV. Ikastetxeak hobetzeko obrak .....	61
XV. Kiroldegiko hobekuntzak .....	61
XVI. Berrako sorospenekeo gunea .....	61
XVII. Altzako Garapen Komunitarioko Plana .....	62

## **11** Uneko eskaerentzako erantzunak

---

I. Bide publikoak eta hiriko mantentze-lana .....	63
II. Irisgarritasuna .....	63
III. Garraio publikoa .....	64
IV. Aparkalekuak .....	64
V. Bide-sarea .....	64
VI. Hiri-segurtasuna .....	65
VII. Kultur zerbitzuak .....	65
VIII. Gizarte-zerbitzuak .....	65
IX. Kirol-esparruak .....	65
X. Heziketa .....	66
XI. Herritarren partaidetza .....	67
XII. Parkeak .....	67

## **12** Aurrekontu-konpromisoak eta urte askotako finantzaketa .....

---

## **13** Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak (PARVISA) .....

---

## **14** Alkateordetzan herritarren arreta sendotzea .....

---

## **15** Altzarako Planak sortutako antolakuntza-eginkizunak

---

I. Kontsulta- eta partaidetza-prozesu baten hasiera .....	72
II. Zuzendaritza Batzordea .....	72
III. Planaren Jarraipen Batzordea .....	72
IV. Diagnostiko kuantitatiboa eta inkesta .....	73



# 1

## Sarrera

### I. Auzoaren azterketa eta bilakaera

Udal demokrasiako 25 urte honetan, Altzak ez du izan bere hiri-antolamenduaren modernizazio eta aldaketa erabakigarriarik edo erradikalik bere beharrianak konpon daitezzen. Hala ere, unean uneko ekintza batzuk burutu dira (batzuk garrantzi handikoak) eta auzotarren ekipamenduak eta bizi-kalitatea hobetzeko modua eman dute.

Aitor dezagun Altzako inguruneek orografia malkarra dutela, garapen zabarrekoak direla, baita etxebizitzaren dentsitate handikoak ere: frankismo-garaiko hirigintza espekulatiboaren edo kalitate eskasekoaren emaitza dira. Horrek zaildu egin du konponbideak Donostiako beste auzo batzuetan bezain laster aplikatu ahal izatea.

Duela bi urte arte, ez zitzaion ekin auzoa biziberritzeko, lurraldea berrerratzeko eta azpiegiturak modernizatzen tamainako lanei. Tarteko, arazo eta jarrera politiko batzuk izan dira, eta eraginpeko eremuetako jabeekin izandako negoziazioak korapilatsuak izan dira; horrenbestez, zaila gertatu da onartzea Alza osorako Zabalgunea eta, adibidez, Herrera, Buenavista, Nerecan edo Molinaoko eremuak berrantolatzen interbentzioak (eremuotan, ordurako zaharkitutako edo tokiz kanpo geratutako industria-multzoko bat biltzen zen).

Auzotarrek eskatuta edo Udal Gobernuaren ekimez, ordea, udalak ez dio utzi auzoko hobekuntzetan, obretan, zatiko hirigintza-eraberritzeetan, proiektu eta ekintzetan inbertitzeari eta, hartara, aurrerapen nabarmenak egiteko modua izan dugu. Hori guztia Plan Integralik izan ez arren.

Nolanahi ere, Gobernu Programetan eta Udal Aurrekontuetan bildutako ekintzek irmo urratu dute bidea eta

Altzako espazio publikoak eraldatu. Artean, badago zereginik, eta Udalen zein beste administrazio publikoen (adibidez, Eusko Jauriaritza eta Aldundien) plangintza, koordinazioa eta inbertsio-ahalegin handiagoa behar da.

Zerrenda ditzagun, bada, udal demokrasiaren aldiriko Alza auzoko obra adierazgarrienak: Lau Haizetako Bulebarra, Arri Berriko kaleak, Casares Plaza, Larratxotik Garberarako oinezkoen pasabideak, Frontoiko Plaza, Santa Barbarako oinezkoen pasealekua, Arria Parkea, Kultur Etxea, Kirolegia, Larratxoko Parkea, *Larratxo-Net* Teknologia Berrien Zentroa, Larratxoko 3 Aparkaleku, Larratxoko Gizarte Ongizateko Oinarrizko Unitatea, Zahar Etxeen hobekuntza, Herrerako futbol-zelaia, Berrako zaharren egoitza eta auzorako Eguneko Arreta Zentroa eta adinduentzako gizarte-etxebizitzak, Larra-txoko aparkalekuaren estaldura gaineko haur-jokoak, Txapinenetik Casa Naorako biala, Arriberriko biribilgunea eta zerbitzu-kanalizazioak, Ikastetxe Publikoen eraberritzeak, Alkateordetzako hobekuntzak, Auzo Elkarteko lokal berria, euskara sustatzeko hitzarmena etab.

Beharrezkoa da Altzan egindako ekintza horiek gogoratzea eta, halaber, gertatutako aldaketen ideia bat hartzea, errealitatez kanpoko kritika batzuen gainetik.

### II. Altzaren biziberritze- eta hirigintza-planak

2004ko abendu arte, Donostiaren Udaltzatuko gehiengo bat ez zen ados jarri Altzako Audituz-Akularreko Zabalgunea etorkizunean garatzeari buruz, eta horrek gizarte-kohesioaren alde ikuspegi integraletik auzoa biziberritzeko lanak atzeratu eta kaltetu ditu.

Hala ere, azken 2 urtean, Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko (HAPOko) aldaketa puntualen espedienteek eta Altzako lur-eremu estrategikoetako plangintza-antolamendu berriek aurrera egin dute, era askotako oztopoak gaindituta. Era horretan egin dira, hain zuzen, Nerecan-Lardi Alden eta Buenavistan dagoeneko martxan jarritako lanak, edo Herreran hasten ari diren interbentzioak, edo Auditx-Akularren, Molinaoren zein Landaroren behin betiko antolamenduari buruzko azterketak.

Garrantzikoa da nabarmentzea irismen handiko ekintza horiek ondorengoetarako modua emango dutela: auzoa biziberritu, aparkaleku eta zerbitzuen gabeziak ezabatu, bide-azpiegiturako arazoak konpondu, irisgarritasuna hobetu eta gaur egungo kultur, heziketa-gizarte- eta kirol-ekipamenduak bete-betean osatu. Espediente horiei buruz, informazioko eta eztabaidako bilerak, horien edukiak azaltzeko kanpaina eta era askotako erakusketak antolatu dira.

Bestalde, Altza osoan hobekuntzak lasterrago burutze aldera, Donostiako Udalak auzoarentzat beste Erakunde batzuen ekarpenak lortzearen aldeko apustua egin zuen. Garrantziko helburu hori lortu egin zen Europar Batasunaren *Urban Plana* eta Eusko Jaurlaritzaren *Izartu* behin onartuta. Udalak bi Biziberritze Plan horiek aurrekontuko partidekin osatu ditu bost urtetan eta, hartara, Altza modernizatzeko ekintza berriak egin ahal izan dira.

Beste gai batera etorritik, nabarmen dezagun Donostiako Gobernuak, auzoaren aldeko Garapen Komunitarioko Plana martxan jar zezaten, profesional-talde bat kontratu zuela. Entitate horrek elkartegintza-mugimendua sustatu du; gainera, Udal Gobernuaren, Udalaren eta auzoko erakundeen arteko harremanak bideratu eta herritarren partaidetza-prozesu berritzaileetan kokatuta adostasuna eta elkar-ulertzea landu ditu. Zalantzarik gabe, GKP horrek, etorkizunean ere segitu egin behar du, bere bitartekaritza-lana eta sentsibilizazio- eta elkarriketa-metodologiak ezin bestekoak baitira.

Gaur egun, eginkizun korapilatsu eta konplexua dugu egiteko: une honetan burutzen ari diren udal aurrekontuetako obrak eta inbertsioak aldi berean burutzea. Guztira, ia hogeita interbentzio dira auzo osoan, Altzaren eitea aldatuz joango diren hirigintza-lan mantsoz eta enbarazu-eragilez osatuta.

Ildo horretan, nabarmen dezagun Hirigintza Arloa garatzen ari den kudeaketa, hirigintza-plan berriak burutzen errazteko oztopoak kentzera bideratuta. Plan horietan daude: lokalen eta aparkalekuen zuzkidura berriak, auzoa gaztetzeko plaza eta etxebizitza berriak etab. Horretarako, negoziazio-prozesu konplexuak jarri behar dira martxan, batez ere auzoko enpresa-jarduera Donostiako konurbazioko industrialdera joatea nahi badugu. Era horretan, hirigintza-plusbalioak behin lortuta, enpresak ixtera bultzatzea dezaketena aitzakiak sailhestuko ditugu.

Kontua da hirigintzaren eremuan iraunkortasun-irizpideekin jokatzeko, lurraldeko inpaktuak neurtuz, eraikinen eta espazio publikoen diseinuaren kalitatearen aldeko apustua eginez, baita hirigintzako mantentze-lanerako material onenak hautatuz ere.

### III. Udal Ekintza Plan berria. Helburuak

Une horretara iritsita, hainbat planteamendu eta oharpeni erreparatu (batez ere GKPko taldeak auzoaren egoerari buruzko 2003ko ekaineko Diagnostikoan bildutakoak), Udal Gobernu honek Altzako Udal Ekintza Plan integral bat prestatzeari ekin dio. Era horretan, **bilatutako helburuak** mamitu nahi ditugu: bizi-kalitatea hobetu, auzoa biziberritu, egoera kaskarreko inguruneak berrerratu, ekipamendu berriak zuzkitu, lurralde osoaren ikuspegitik bide- eta zerbitzu-azpiegiturak hobetu, garraioa eta irisgarritasuna hobetu, Altza gaztetu, udal-zerbitzuak deszentralizatu eta hurbildu...

Planak batasuna eta koherentzia eman nahi dio Altza lurraldeko hirigintza-obra, -eraberritze eta -planen multzoari. Altzarako Plan honek sinergiak, koordinazio handiagoa eta interbentzioentzako bultzada iraunkorra eragingo ditu, baita gutxienez hurrengo 6 urterako helburuen plangintza egokia ere.

Horretarako, Departamentu askotako lan-talde batek Altzarako ekintza-proposamenak eta ideiak bildu ditu, betiere auzoan lan egiten duten erakundeek eta profesionalak adierazitako beharrezan eta hiriko



Gobernuak aurreikusitako konpromiso eta planen arabera. Era askotako Ordezkariek eta arduradun teknikoek Altzari buruz dituzten ekimenak eta ezagutzak bildu dituzte. Horrek Ekintza Plan bat bateratzeko modua ematen du, hartara, auzoaren une honetarako zein etorkizuneko garapenetarako behar konponbideak har daitezten.

Ondorioz, hiriko Gobernuaren politikaren helburu estrategikoarekin bat eginez (Donostia gobernatzeko eredu berrian erakundeak eta herritarrak bereziki inplikatzeari), Alkateak hau proposatu dio Gobernu Batzordeari: **Altza Auzorako Udal Jarduketa Plana deitutakoaren lehenengo dokumentua onartu.**

Lehenengo onarpena da, aipatutako Dokumentua Udal Taldeei eta Altzako Garapen Komunitarioko Planean diharduten erakundeei helaraziko baitzaie, azter dezaten eta hilabeteko epean (behar bada, luza daiteke) ekarpenak eta iradokizunak proposa ditzaten.

## IV. Altza auzoaren gizarte- eta ekonomia- arloko datuak, Udal Behatokiak emanda

**Gastu-gaitasunaren azterketa eta etxeko bere banaketa. Altza auzoari buruzko eranskina.**

Altza auzoko biztanleen pisua Donostiako biztanleria osoaren aldean %11koa da. Donostiako ekialdean dago, eta *desarrollismoaren* urteetako hazkundeari lotuta hirian den auzo adierazgarriena da.

Gizarte- eta ekonomia-aldeetako estatusetan, maila apalenetan kokatzen da, batez ere errentari dagokionez (1531 euro etxeko eta hileko; rankineko buruan dauden auzoek baino %46 gutxiago).

Dena den, "ondare erlatiboa"ri dagokionez, Altza lehenengo postuan dago, ordaindutako jabetzako etxe-

bizitzen proportzio altuari esker. Gertaera hori oso bat dator auzoaren bizi-zikloarekin eta bertako alokairu urriekin.

Altzako etxeetan bizi diren pertsonen gizarte- eta lan-egoerari dagokionez, hiriko eremu honek, diru-sarreraren rankinean bezala, postu baxuenak betetzen ditu.

Gastuari erreparatuz gero, espero daitekeen bezala, auzoko diru-sarrerari lotuta dago (1453 euro/hile), lehenengo postuetako auzoen batez besteko gastua baino %33 gutxiago.

Gastuen partidei dagokionez, Higiezinetakoa Gastua auzo bakoitzean antzemandako desberdintasunei lotuta dago. Adibidez, Aiete Mirakontxako higiezinetakoa gastua Altzakoa baino %64 handiagoa da. Hirugarren sektoreko gastua da, zalantzarik gabe, bizi-kalitatearen erakusgarri fidela; adibidez, Amara Berrin egindakoa (altuena) Altzako familien hirugarren sektoreko gastua baino %86 gorago dago.

Gastuaren tokikako banaketari dagokionez, Altza auzoa kanporantzko joera nabarmena duela esan dezakegu. Gastu horren %10, udaletik kanpo doa; Intxaurrondora (Garberara), berriz, %11,7; erdigunera %13,4; eta Gros hondar-gune moduan agertzen da, bertara gastu potentzialaren %5 inguru baitoa.

Altzarako Planaren eranskin moduan, dokumentazio zabala gehitzen dugu "Donostiako etxeen gastu-ahalmenari buruzko azterketa"ren inguruan.

# 2

## Donostiako Gobernu Programa (2003-2007). Altza auzoarentzako atal interesgarriak.

### I. Sarrera

#### Programaren ardatzak eta hiri-eredua

- Gobernu Programaren ardatzek, defendatzen dugun hiri-eredua erakusten dute: aurrerabideko hiria eta kohesionatutako gizartea.
- Udal Gobernuarentzat, Donostiako garrantzitsuena pertsonak dira. Gure ustez, gure hiria gizarte-erakuntza behar duen proiektu kolektiboa da eta, bertan, herritarren gehiengoak parte hartu behar du.
- Partaidetza demokratikoko uneko ildoak sendotuko ditugu herritarrek ideia eta proiektu berriak susta ditzaten; beraz, elkartearen sareak egindako proposamenei irekita gaude, hartara, hiria aldatuz, finean, pertsonen baterako erantzukizuna eta elkartasuna gure nortasun-marka bihur dadin.
- Hiria donostiarren interes orokorrean pentsatuz kudeatuko dugu, ez inongo presioko talde ekonomikori lotuta, ezta inongo indarren alderdikeriari ere. Arreta jarriko diegu pertsona adinduen, umeen, gizarte-sektore umilenen, baztertuen, kolektibo diskriminatuen, okerren ekipatutako auzoen premiei.
- Udal Gobernuak, berdintasun- eta elkartasun-irizpideei erreparatuz, gizarte-integrazioaren, auzoen kohesioaren, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko borroka nekazetaren aldeko konpromisoa du abiapuntu. Horrenbestez, balia-bide erabilgarrien banaketa egiten dugu merkatuak eta, batzuetan, erdigunetik urrutien dauden auzoak ahazteko hiriaren inertiak eragindako desorekak berdinuz.
- Donostia etengabe aldatzen den hiria izatea lortu nahi dugu, eta gizarte aldetik mistoak diren ondo ekipatutako eta ingurumen-kalitate handiko auzo gazteen hirigintza-ereduak sortu.
- Udal Gobernuak hirian bizi eta lan egiteko aukerak multzo bat eskainiko du, BOEen eta enplegu-sorreraren aldeko presako ekimenak sustatuz, arrazoi horiek behartuta gazte batek ere Donostia utz ez dezan.
- Arlo guztietako mugimendu garaikideak bildu nahi ditugu: kultura, arkitektura, hirigintza, unibertsitateko karrera eta titulazio berriak, abangoardiako beste hiriekin elkartrukeak, aisialdiko kontzeptu berriak, ekologiaren balioa, garraio publiko berritzaileen aldeko apustua, bizikletaren sustapena, musika-talde amateurren jarduerentzako edota surf-kirola egiteko laguntza etab.
- Gure konpromisoa zeharka edo zuzenean gizarte-kohesioaren aldeko ekimenetan lan egiten jarraitzea da. Gure ustez, gizarte-kohesioa pixkanaka sortutako desberdinkeriak ezabatzen joatea da, baita babes gabeko edo ezgaitutako pertsonentzako gizarte- eta asistentzia-zerbitzuak sendotzea ere.
- Adinduentzako arreta bermatu egiten dugu, egoitzen, eguneko zentroen eta etxez etxeko zerbitzuen sarea sendotuz. Halaber, etorkinak berdintasun-baldintzetan integratzeko politikak sustatzen ditugu, Inmigratio Planean kokatuta.
- Auzotarren bizi-kalitatea hobetze aldera, 60-70eko hamarkadatik hirigintza-gabeziak dituzten auzoak sustatu eta modernizatzearen aldeko aukera egin dugu. Birgaitze-planek eta zentraltasuneko Auzo Etxeek auzoak biziberritzeko balioko dute.
- Kalitatea birgaitze-lanen eta auzoen berreraikitzearen identitate-elementua izan behar da bide publikoen, parkeen, lorategien, plazen eta era guztietako instalazioen eguneroko garbiketan eta mantentze-lanetan.
- Garapen iraunkorra defendatzen dugu, eta auzo berrietan ingurumenaren babesa zein berdeguneen sorrera, era askotako kutsadura gutxitzea, Tokiko



Agenda 21en irizpideak betetzea, hondakinen tratamendua eta mugikortasun iraunkorreko politikak lehenesten dituen politika aplikatu.

- Horretarako, ondorengo eskaintza handituko dugu: kalitatezko garraio publikoko alternatibak; aldapadun auzoetako irisgarritasuna sistema mekanikoen bidez; arkitektura-traben ezabapena; egoiliarrentzako eta txandakatze bidezko aparkalekuen sorrera erdiguneko sarbideetako puntu estrategikotan, betiere bide-sare nagusietatik kanpo. Gainera, *Eusko Tren* eta *Renfe* zerbitzuak modernizatzeko bultzada emango dugu, bisitariak eta gure merkataritzako zein zerbitzuetako bezeroak bertara daitezen ezin besteko elementuak baitira.
- Udal Gobernuaren ustez, hiriak zeregin hezitzailea bete behar du. Horregatik, demokrazia-, tolerantzia- eta elkartasun-balioetako heziketa emateko lan egingo dugu, gizarte bidezkoagoa eraikitzeke ezin besteko elementuak baitira. Balioen heziketa era askotako arloetatik sustatuko dugu, Unibertsitatearen aldeko hitzarmenak sinatuz eta hala Kultur Etxeek nola *Itzatsargi* proiektuak eskaintzen dituzten aukerak baliatuz.
- Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailarekin lankidetzan dihardugu 0-3 urte arteko haur-hezkuntza garatzen eta sendotzen, sare publikoa hedatzeko balio duten Hitzarmenen bidez.
- Donostiaren ekialdeko ingurua, berriraketa ondoren, hiriburuari erakargune berriak emango dizkion eremu bihurtuko da. Etorkizunean irekiko diren aukerak ustiatzearen aldeko apustua egiten dugu, Pasaiaiko Portuko ingurumariako espazioak turismo- eta enpresa-erabilera berrietarako egokituz, Irungo *FICOPA* garatzeko parte hartuz eta, bateragarritasuna lortze aldera, Baionako zein Biarrizko proiektu berriei buruzko interesa agertuz.

## II. Gure programako konpromisoak

### a. Hirigintza eta etxebizitza

- **Altza:**
  - Lortutako akordio-printzipioaren ondoren eta, adostasuna tarteko, Auditiz-Akular hirigintza-proiektua onartu eta burutu, betiere BOEen garapen intentsiboaren bidez.
  - Herrera, Buenavista eta Nerecaneko hirigintza-planak aktibatu eta garatu.

### b. Gizarte zerbitzuak

- **Berrako sorospeneko gunea** (Altza) burutu: Zaharren Egoitza, Eguneko Zentroa eta pertsona adinduentzako alokairuko gizarte-etxebizitzak.
- Zahar Etxeen jarduera, zeregin eta kudeaketa-eredu berri bat aztertu eta aplikatu, eta hiriko kultur eta kirol-ekipamenduetan bere kabuz balia daitezkeen pertsona adinduentzako proiektu erakargarriak eta integraztaileak sortu.
- Zahar-etxeen berritze- eta hobekuntza-plana jarraitu, horiek premia berrietara eta irisgarritasun-arauetara egokituz.
- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua lehenetsi, orain arte bezala, eskari guztiari aurre eginez eta zerbitzuaren funtzionamendu ona bermatuz.
- Prebentzioa, Haurrak eta Familia programak areagotu eta uneko programak garatzen jarraitu, atal hori antolatuta dagoen hiru mailetan: lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioa.
- Pertsona gazteekin Ingurune Irekiko Heziketa edo Kaleko Heziketa Programari eutsi.
- Droga-mendekotasunen Udal Plana prestatu eta burutu, arlo horretan lan egiten duten gizarte-erakundeen lankidetzaz.



- Gizarte Zerbitzuen boluntariotza-programak sustatu eta pertsona adinduei eta, bereziki, bakarrik bizi diren adinduei laguntzeko programen inguruan boluntarioen erakundeekin (existitzen direnak edo sortu berriak) lankidetzan aritu.

#### d. Ingurumena eta iraunkortasuna

- Gizarte-hezkuntzako kanpainak garatu, ingurumen, hiri-altzari eta berdeguneei buruz erantzukizun- eta errespetu-jarrerak hedatze aldera. Zehazki, Agenda 21eko sektoreko helburuen dibulgazio-kanpaina bati ekingo zaio, hiriko auzoentzako erakusketa ibiltari baten bidez.

#### e. Mugikortasuna (zirkulazioa, aparkalekuak eta oinezkoentzako guneak)

- Bitarteko mekanikoen bidez Irisgarritasun Plan bat praktikan jarri (igogailuak eta eskailerak) toki hauetan: Konkorrenea, Larratxo, Akuarioa, San Roke, Intxaurren rondo eta Buenavista.

#### f. Garraio publikoa

- Gure apustu eta kezka nagusia DTKren autobus-zerbitzuak hobetu eta areagotzea da, garraio publikoarentzat lehentasun-neurriak aplikatuz (adibidez, bideko lehentasuna, geltokien egokitzapena eta puntu beltzen ezabapena). DTK-k 2003-07 aldirako onartutako Ekintza Plana aplikatu, bete dadin ballabide ekonomikoak jarri.
- Eusko Jaurlaritzari topoa **Intercity Metroa** bihurtzeko exijitu, Altzan, Intxaurren eta Erriberan geltokiak sortuz, auzo horiek Easo Plazarekin laster konektatu dituzten. Horretarako, trazatu berria behar da, tunel berriak dituen eta bide bikoitzekoa.

#### g. Merkataritza

- Donostiako merkataritzak hiriko jarduera ekonomikoaren %17 osatzen du. Gaur egun, ordea, bere egiturak, helburuak eta estrategia birplanteatzen ari da,

banaketa-katea handien merkataritza-eredu berriek eta Donostia inguruko udalerrietan merkataritza-guneak agertzeak baldintzatuta zalantzarik gabe.

- Auzo bakoitzeko Merkatarien ordezkarien erakundeekin lankidetzak guneak eta -esparruak sortu eta sustatu, baita udalaren erabakiei buruzko topaketa- eta partaidetza-foroak ere.

- Merkatarien artean Elkartegintza sustatu, une honetan oso maila baxuan baitago.

- Merkataritza dinamizatzeko plana prestatu.

#### h. Teknologia berriak

- IKT berrietako sarbideak unibertsalizatzea sustatu, "bazterketa edo zulo digital" delakoaren arriskuan dauden pertsonen artean. Ildo horretan, *e-donostia.net* proiektua garatu behar dugu, Larratxoko Teknologia Berrien Zentroan ibiltzeari ekin diona ("*Larratxo.Net*"), eta beste ingurune batzuetan zentro berriak ditugu, adibidez, Loiolan, "Izartu"ren finantzaketaz.

#### i. Kultur politikak

- Hiria kulturaren aldetik espezializa dadin apustu egiten dugu, baita sormena bultzatzearen alde ere. Horrek esan nahi du Kultur Etxeen papera areagotu behar dela, azpiegiturak sortu, kultur programazioko eskaintza handitu, Jaialdiak hobeto koordinatu eta ezagutarazi eta sormena sustatu. Zehazki:
- Aitzako *Tomasene Baserria* Casares Kultur Etxearen kultur ekipamendu izateko birgaitu.

#### j. Heziketa zerbitzuak

- Ikastetxeekin lankidetzan aritu balioetan eta eskolaz kanpoko jardueretan hezteko programak garatze aldera.
- Ikastetxe Publikoen mantentze-lana hobetu, eta Eusko Jaurlaritzari horiek eraberritzeko eta birgaitzeko Hitzarmenen luzapena proposatu, lau urteko inbertsio-programa baten bidez.





• **0-3 urte arteko haurtzaindegiak sustatu, Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmenen bidez.**

- Eusko Jaurlaritzari, Eskola Mapa burutu baino lehen, sare publikoko Haur Eskolak hedatu eta ezar ditzan exijitu, Udal Eskolak eta Eusko Jaurlaritzaren eskaintzako gizarte-izaerako 5 haurtzaindegiak integratuz. Udalak ezarpen horretarako lurrak eta lokalak eman-go dizkio Sailari.

**k. Euskara**

- Donostian, bi hizkuntza erabiltzen dituzte herritarrek: euskara eta gaztelania. Gure bi hizkuntzen bizikidetzatza, herritarrena bezala, errespetuzkoa eta normalizatua izan behar da eta ez da, inondik ere, hizkuntza-gatazkarik eragin behar.
- Gure kultur ondarea aberastu ez ezik, hizkuntza-eskubide guztien berdintasun- eta errespetu-esparru hori lor dezagun, euskararen erabilera sustatzearekin konprometitutako politika bat behar da, hiri osoan pixkanaka erabilera erreala normaltzen joan dadin, betiere gizarte-adostasun handi batekin.
- Aldi berean, zentzuzko araudi bat behar dugu euskarara bultzatu eta hiriko arlo guztietan hizkuntza hori erabiltzera anima dezan, eta, Udala garatzen ari den ekintza-programen eta Euskararen Udal Patronatuak agindutako Plan Bereziaren bidez, normalizazioaren aldeko ahalegina egin.

**l. Tokiko demokrazia eta herritarren partaidetza**

- Ekipamenduen plan bat baliatuz, Auzo bakoitzeko ekintzak prestatu, auzotar guztiek eztabaidatu eta premiak lehenets ditzaketan partaidetza-prozesu baten bidez.
- Plan Estrategikoari buruzko eta HAPO eta Udalaren proiektu berriak zein proposamenak berrikusteko partaidetza-metodologia berriak sustatu.
- Altzako Garapen Komunitarioko Planari jarraipena eman.

- Altzan "Txoke Plan" bati aurrekontuaren aldetik faseka heltzeko konpromisoa, besteak beste, alderdi hauek hobetze aldera: segurtasun-zerbitzuak (Udal-tzaingoaren presentzia areagotuz), mugikortasuna, espaloien zein hiri-altzarien berrikuntza eta GKPk adierazitako bestelako premiak.

**m. Gazteriarentzako ekintza plana 2003-2007**

- Donostiako biztanleria, Europako beste hiri batzuk bezala, pixkanaka zaharkitzen joan da, hainbat faktorek eraginda, eta horietako bat etxebizitza lortzeko zailtasuna da. Udal Gobernuak, hiria gaztetzeko helburuaz, hiri erakargarriagoa erdiestera bideratutako programa batzuekin konprometitu da, gazteei Donostian geratzeko eta enplegu duinagoa lortzeko erraztasun handiagoak eskaintze aldera, euren enpresa-ekimenak garatu eta euren gustuko kultur eta aisialdi-eskaintzak eduki ditzaten, baita balioen inguruko heziketa proposatze aldera, betiere Giza Eskubideen defentsari lehen mailako garrantzia emanaz.
- Donostia gaztetzea, halaber, hiri iraunkor baten alde lan egitea da, ingurumena errespetatuko duena, garraio publikoaren, oinezkoen eta bizikletaren aldeko apustua egingo duena, unibertsitateko eskaintza sendotzen arduratutakoa, enpresa berrien beharrazane lotutako lanbide-heziketaren beharrazane aurre egingo diona. Hori guztia bateragarri egin behar da gazteria udal-bizitzan eta euren bizi-kalitatearen eztabaidan eta erabakietan parte hartzeko ahaleginarekin, Donostiako gizartearen zati garrantzitsu horrentzat tokiko demokrazia hedatuko duten ildoak sortuz.
- Gazteriari protagonismoa emango dion hiri berritzaile eta iraunkorren aldeko apustua egiten dugu. Gazte-sektoreei ohitura demokratikoak, gizabidea, ingurumenaren errespetua, tolerantzia eta elkartasuna, pluraltasunaren defentsa, eskuzabaltasuna eta hiriaren aurrerabideari buruzko konpromiso aktiboa transmititu nahi diegu. Hori guztia euren oinarrizko bizi-premien, berezitasunen eta gustu desberdinen, kultur zein gizarte-kezken arretarekin batera.
- Eta lan hori era askotako Sailetatik garatu nahi dugu, zeharkako politika bat eta behar kermen guztia baliatuz

gure hiria sendotzeko prozesuan gazteria protagonista izan dadin.

#### **n. Kalitatea eta udal zerbitzuak**

- XXI. mendean gauden honetan, dagoeneko ez da nahikoa herritarrei zerbitzuak ematea. Horiek ematean, kalitatea bermatu behar da, herritar-bezeroei arintasunez arreta eman eta prestazio horiek mentalitate modernoarekin eta lehiakortasunez kudeatzeko enpresa-mekanismoak sortu. Beharrezkoa da, beraz, Udal Administrazioaren funtzionamendua bera birplanteatzea.
- Udaltzaingoaren funtzionamendu hobea lortu behar dugu, bere eginkizun guztietan, bereziki auzoetako bere presentzia bermatuz eta garbiketa-, obra txiki, zarata-, txakur- eta pintada-gaietan udal-ordenantzak behar bezala betetzen direla zainduz.

#### **o. Hobekuntza plana eta Donostiako auzoetako oinarrizko ekipamenduak. Aitzako ekintzen erreferentziak**

- Udal Gobernuak auzoetarako 1999-2003 urteetako Oinarrizko Ekipamenduen Plana prestatu eta onartu zuen, Gobernu Programan kokatuta, eta, joan den legegintzaldian, oso bitarteko eraginkorra gertatu zen udalaren era askotako arloetako ekintzak programatzeko eta azken lau urteko inbertsioetako lehentasunak ezartzeko orduan.
- Plan horren helburua batez ere hainbat auzotan zerbitzu publikoen inguruan zeuden gabeziak eta beharrianak ezabatzea zen, auzotar guztien bizi-kalitatea hobetze aldera, desberdinkeria eta desoreken kontra borrokatze aldera eta, hartara, Donostiako gizarte-kohesio handiagoa lortze aldera.
- Plan berri honen behin betiko dokumentua prestatu eta burutzeko, herritarren partaidetza ezin bestekoa dela uste dugu, hartara, tokiko demokrazia zabaltu egiten baitugu. Horretarako, Aurrekontu Partehartzailak prestatzeko prozesua aprobetxatu behar dugu, uste baitugu orain arteko pausoak sendotu egin behar direla, herritarren kezken eta Udalaren ekintza-aren artean benetako lotura gerta dadin.

#### **Aitzia**

- Casares Kultur Etxearen zerbitzuak *Tomasene* Baserrira hedatu (birgaitzeke).
- Nerecaneko hirigintza-planaren garapena eta bialberria.
- Elizasu Plazako lurrazpiko aparkalekua, eta berau berrantolatu, auzotarren eta auzoko erakundeen iritzia araberara.
- Adinduentzako Berrako sorospenekeo gunea, eta Zahar Etxe bat zuzkitu.
- Aitzako Kiroldegiaren II. fasea, eta Jolastokietako pilotalekua aztertu.
- Hala espazio publikoak nola hiri-aitzariak hobetu eta Molinaon abandonatutako industria-pabilioiak eraitsi.
- Oletako bialak berritzeko Proiektua burutu, eta auzoan aparkalekuak, espaloiak eta azpiegitura berriak jarri.
- Lauaizeta Parkea garatu, Ametzagaina Parkearen fasearen bidez.
- Topoaren Geraleku berria. Eusko Jaurlaritzari eskaera egin.
- Santa Barbara birgaitzeko II. fasea, eta Errotetako espaloiak hobetu.
- Larratxoko espaloiak hobetu (4 urteko plana).
- Darieta bidea berrantolatu.
- Larratxoko irisgarritasun mekanikoko sistemak (igogailua) burutu.
- Sarbide berria Gure Ametsan.
- Ekintza Komunitarioko Plana garatu eta bere jarraipena egin.
- San Martzial Zahar Etxea egokitu.
- Larratxoko Zahar Etxea egokitu.
- Auzoa era integralean birgaitu, bide-sare, plaza eta eraikin berrien bidez.
- Uholdeen kontrako kolektorea.
- Arrobitxulon kirol-instalazio berri jarri.
- Egoiliarrentzako aparkalekua.
- Zahar Etxea egokitu.
- BPEB aplikatuz, gizarte-erabilerako ekipamendu berriak.



### **III. Hurrengo legegintzaldirako proiektu estrategikoak**

#### **Altzako Programaren laburpena**

Adierazitako guztiaren ondoren eta Plan Estrategikoaren zein Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren laguntzaz, uste dugu ondorengo Proiektuak hiriaren garapenaren ezin besteko mugarriak direla eta garrantzi estrategikoa dutela:

- Altzako Zabalguneko eta Antondegiko babeseko etxebizitzetarako buruzko presako plana.
- BOEdun auzo berrien garapena (Loiolako Erribera, Morlans, Buenavista, Pagola, Nerecan eta Txomin-Martutene).
- Loiolako Erriberako, Intxaurren eta Altzako geltokiak.
- Ametzagaina eta Amaiur Parke berriak.

Ekintza horiek, zati handiengan, epe ertainean eta luzean burutzeko modua ematen duten proiektuak dituzte. Dena den, konplexutasunagatik eta inbertsio-bolumenagatik, arrakastaz eta behar unean burutu daitezzen, gizarte-adostasunen eta erakunde arteko akordioen arkitektura oso bat beharko dute. Horien aldeko *lobby* bat eratzea, eduki eta eraginei buruzko informazio gardena eta gizarte-eztabaida, ezin besteko ekintzak izango dira exekuziorako behar epeak bete daitezzen.

## 3

## Altza biziberritzeko apustuak

Altza deritzagun lurralde osoan bizi-baldintzak hobetzeko kezka dela eta, hiriko Gobernuak hainbat Erakundetara jo zuen Udalak, bere baliabideen bidez, aldi horretan bere gain hartu ezineko proiektuak gauzatzeko laguntzak biltzera.

Horrenbestez, Europar Batasunera jotzeko huts egindako lehenengo ahalegin baten ondoren, Alkate-tzak 2000. urtean proiektu estrategiko orokor bat bultzatu zuen eremu zabalago bat berrerratzeko aldera: Pasaia Badi. Eraginpeko gainontzeko Udalekin lan bateratua egin genuen eta, zorionez, eskaerak harrera ona izan zuen eta 2001ean hautatua izan zen. Proposamena berrosatzerakoan, edukiak perfektionatu genituen eta, orduan bai, 2002-2006ko eperako, *Urban Planean* sartu zen.

Auzoa etekin handia ateratzen ari zaio horri, garrantzi handiko proiektuak baitaude, ondoren esplikatu den bezala. Donostiako beste auzo bat ere (Bidebieta) Europako fondoetan parte hartu zuen.

Aitor dezagun, laguntza horiek eta emandako poztasuna gorabehera, ez zirela nahikoa Altzaren Donostiako lurraldean behar aldaketei hel geniezaien, beti uneko gabeziak konponduko lituzketen hirigintza-planak burutzeari lotuta egon baitira. Horietarako, espedienteen tramite luzeak behar izan dira, baita negoziatioak, ulertezintasun batzuk eta behar besteko aurrekontuko partidak ere.

Hirigintza-azterketak agindu eta HAPOn hantxerako aldaketak zituzten dokumentuak erredaktatzen ziren bitartean, ordea, Udalak ez zien muzin egin herritarren aldarrikapenei. Saiatu ere Auditx-Akular, Landarro eta Molinao eremuetarako *Altzaren Zabalgu-nea* delakoaren lanak lehenbailehen abiarazten saiatu zen, Udalbatzaren behar besteko babesik ez izanda ere.

Bada, *Urban Plana* lortu eta gero, Donostiako Gobernuak Eusko Jauriaritzaren *Izartu Planerako* aurkeztu zuen bere ekimena. Programa integratu hori, hiri-ingurune degradatuetako eta hirigintza-berreraketako arazodun Autonomia Erkidegoko herriak hirigintza alde-tik biziberritzera bideratuta zegoen.

Kasu horretan ere, Udalak inbertsio-kopuruaren %50 eman behar izan du, *Urban Planean* bezala, asmoa izanik "hiria biziberritzeko ekintza integratuak babesteko neurriak burutzea, hiri-ingurune konplexue-tan gizarte-, ingurumen-, hirigintza- eta ekonomia-ara-zoei era bateratuan aurre egite aldera".

*Izartu Planaren* helburuen definizioa ikusita, artean, auzitan jar al dezake norbaitek Udal honetan Altzako lurraldean aplikatzen ari diren Plan integralak badaudela?

Ez dago zalantzarik gaiari buruz. Altzarako Planan zerrendatutako gertaerak eta ahaleginek erakusten dutenez, Altzari buruzko proiektuak *Urban* eta *Izartu / Planetan* bilduta, auzoaren gizarte- eta kultur garapene-rako, hirigintza-kalifikaziorako eta ekonomikoki berpizte-ko proiektu integral, orokor handi bat dugu esku artean. Dena den, agerikoa denez, bi Plan horiek ez dira nahi-koa izango Altza auzoak, erabateko berreraketa izan dezan, behar dituen konponbide guztiak erdiesteko.

Bere edukiak, planteamenduak eta koherentziak, antzeko problematikak dituzten Europako beste hiri batzuetan aztertu ditugun Planen parean jartzen dute.

Parke handi bat, IKT Berrien Zentro bat, auzo txikien berrantolaketa, berritutako espazio publikoak, bialberriak, etxebizitzaren birgaitzea, herritarrek parte hartze-ko prozesuak eta abar *Urban* eta *Izartu / Planetan* tra-tatutako alderdi batzuk dira.



## I. Urban plana

Plan hau Altzako lurraldean gizarte-koheresia sendotzeko proiektuen batura da, eta erritmo eredu-garrian ari da auzoan ezartzen. Komeni da Plana osatzen duten era askotako proiektuen edukia eta motibazioa esplikatzea; izan ere, era horretan, frogatzen dugu Donostiako Gobernuak eta Udal osoak, Altza biziberritzeko eta ekipamenduz berronitzeko prozesuak bizkor daitezkeen baliabideak lortzeko orduan, borondate politikoa dutela.

### a. Irisgarritasuna eta saneamendua hobetzeko proiektuak

Hirigintza aldetik problematika handia duen ingurune batean esku hartzeko beharrezan proiektuok justifikatzen ditu: eraikinen gehiegizko dentsitatea, berde-gunerik eta espazio libre publikorik eza, etxebizitzaren kalitate eskasa, hiri-saneamenduko gabeziak eta gainontzeko espazioetara zein inguruko bide-azpiegiturara iritsi eta lotura edukitzeko gabeziak, besteak beste.

Herrera eta Oletako biztanleen ustez, proposatutako bide urbanizatu berriek ingurune horietako bide-azpiegitura eta bide-azpiegitura nagusiekiko konexioa hobetzeko asmoari ere aurre egiten diote.

Ekintza horien helburuetako bat, Herrera pasealekuko Oleta Auzora sartzeko bi bialak eta dagozkien urbanizazioko elementuak erabat berritzea da. Horretarako, bial horiek zabaldu egingo ditugu ibilgailu-zirkulaziorako bi errei eta oinezkoentzako espaloi bana bi aldeetan jartze aldera, eta azpiko bialaren ondoan, espazio osagarria ere gehituko da, bial horren alboetan baterian aparkatzeko lekuak jartze aldera.

Era horretan, interbentzio nabarmen baten bidez, oinezkoak eta ibilgailuak pasatzeko eta Oletako aparkaleku publikoko plazak handitzeko baldintza onenak ezarri nahi ditugu, baita Herrera pasealekuaren bidegurutzeko sarbide horietan inguruneari ikuspen hobea eta zirkulazio-segurtasun handiagoa eman ere. Obren, eskaileren konponketen eta argiztapenaren zein hiri-altzarien berrikuntzaren eraginpeko tokian, udal zerbitzuak bideratzea aurreikusi dugu.

### b. Berdeguneen Proiektua

Programa hau, herritarren bizi-kalitatearen hobekuntzako ekintza nagusietako bat da. Giza eta azpiegitura-pilaketa handiko auzo eta udalerrietan, espazio horiek irtenbide bakarra dira topaketa-eta aisialdi-guneak naturarekin erlazioa zuzenean sortzeko.

Ekintza horien artean, nabarmen dezagun "Larratxoko Parke Modulua": bere helburua ingurune horretako ingurumenaren kalitatea hobetzea besterik ez da izan, herritarren topagune izan dadin. Kontua espazio hondatua berreskuratzea zen eta kalitatezko toki, hiri osoarentzako erreferentzia bihurtzea. Bideek, zidorrek, pasabideek, larreek, egonaldi-alderdiek eta haur-jokoei, arboladiek eta abarrek osatzen dute parke hau, lehen zaborregiarena egiten zuten lur batzuetan.

### c. Aukera Berdintasunaren Aldeko Proiektua

Helburu nagusia ezagutzaren gizartea herritarrei ezagutaraztea da, hala komunikazio-kanal izan dadin nola euren ikasketaren zati bihurtu dadin, gizarte-integratio hobea eta aukera-berdintasuna bilatzeko. Informazioaren eta ezagutzaren teknologia berriak gizarteratu behar dira, ez erabiltzeko arrisku handiena duten herritarrei zabaldu eta hurbildu. *Larratxo-Net* proiektua auzo osoaren aldeko apustu berritzaile eta ausarta da. Donostia osoko horrelako ekipamendu bakarra da, eta beste hiri batzuentzako erreferentzia-eredu.

Programa horren helburu zuzena Altza-Larratxoko Auzo Etxearen zati bat egokitu eta hornitzea izan da, eta prestakuntzako, gizabideko eta gizarterako ekipamendu bat sortzea, betiere IKT Berrien erabilerari garrantzi berezia emanez. Edukiei dagokienez, era askotako lan-esparruak prestatu dira: autoerabilerako aretoak, *e-learning* ikasgelak, bideokonferentzia-aretoa, IKT Berriko gaietan partikularrei laguntza teknikoa emateko *call-center* delakoa etab.

### d. Altza ingurunerako Urban Proiektuen egoera

#### 1. Larratxoko Parkeko proiektua.

Dagoeneko bukatuta dago eta, horretarako,

Urban Planak 1.115.421 euro finantzatu du. Gainontzeko ekarpena Udalak egin du.

**2. Oleta auzoaren berriraketa integrala.**

Obra (martxan dagoeneko) esleituta dago milioi bat euroko kostuz.

**3. Herrera auzoaren berriraketa (kolektorea eta biala).**

AL.01 LA HERRERA Hirigintza Interbentzioko Arearen (HIUren) lehenengo fasea esleitu egin da (erretena desbideratu, lurzatiak antolatu eta lurra erauzi), 860.720 euroko kostuz.

**4. eDonostia.net/Larratzoko Teknologia Berrien Zentroa.**

2003. urtean, zentro hori martxan jarri zen, eta 2003ko abendu arte inbertsiorako eta funtzionamendurako egindako ekarpena 1.234.390 eurokoa zen. Gaur egun, *Urban Ekimenaz* bestelako fondoek bidez finantzatzen da (Europako Gizarte Fondoak, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailaren Fondoak...), baita Udalaren fondoak baliatuz ere, *Fomento de San Sebastián SA*-ren bidez.

**5. Teknologia Berrien bultzada (herritarrak, enpresak....) Urban eremuan.**

1.260.000 euroko aurrekontua du (2008ko abendu arte burutzekoa) eta horren zati nabarmen bat eDonostia.net/Larratzoko Teknologia Berrien Zentroa funtziona dezan baliatzen da.

**6. Urban eremuko ETEentzako laguntza.**

384.000 euroko aurrekontua du (2008ko abendu arte burutzekoa) eta, 2004. urtean, Altza ingurunean lehenengo ekintzak burutu egin dira: merkataritza-mapa eta IKT Berriak ETE horietan erabiltzeari buruzko diagnostikoa.

## II. IZARTU Programa Altzan

Urban Planean bezala, Udala Eusko Jaurlaritzaren *Izartu* Biziberritzeko Planaren laguntzak jasotzeko aurkeztu zen. Ondorengo ekintza-helburuak adierazi zituen:

### a. Produkzio eta Enplegu Ingurunea

- Eraikitako ondarea birgaitu: *Parvisa* sozietatearen bidez, auzoko hainbat inguruetako etxebizitzak birgaitzeko laguntzak esleitu.

### b. Tokiko Oinarrizko Azpiegiturak

- Arri Berri eta Santa Barbara aldean espazio publikoen eraberritze integrala egin: azpiegiturak, espaloi eta bialen eraberritzea, argiztapen publiko berria, lurrazaleko aparkalekuak eta espazio libre birmoldatuak.
- Sarbideen eta espazio libreen sistema: Arri Berriren iparraldea eta hegoaldea konektatzeko bial berri bat eta lurrazaleko aparkalekuak eraiki, guztia ere Nerecan eremuan.

### c. Tokiko Oinarrizko Egiturak

- Hiriko Gobernuak garapen komunitarioko plan bat martxan jartzearen aldeko apustua egin zuen Altza eratzen duten erakundeek lana bultzatu eta egitura-tze aldera.
- 2002-10-18ko Gobernu Batzordean, KALEXKA Gizarte-arloko eta Heziketako Ekintza Elkarteari esleitu zioten "Altzako Garapen Komunitarioko Plan"erako kontratua.



# 4

## Herritarren partaidetza prozesuak eta Altzako Garapen Komunitarioko Planaren taldearen eraketa

(AURREPROIEKTUA)

Lerro hauetan aurkezten dugun Aurreproiektua (2002ko ekaina), Donostiako Udalak eta Altzako komunitateak auzoan *Garapen Komunitarioko Proiektu bat* hasteko ekintza-proposamena da.

Donostiako Udaleko Auzoen eta Herritarren Partaidetza Sailaren eskutik sortu da eta bere helburua da erabilgarria den eta aurrerago jarraituko duen estrategia bati ekitea, betiere Altza auzoko herritarren borondatean oinarrituz.

Aurkezten dugun zirriborro honen asmoa da auzoko pertsona, talde eta elkarte guztietara iristea, etorkizunari begira adosten diren hausnarketa eta aldaketarako hasiera-dokumentu eta euskarri izan dadin. Horrenbestez, asmoa da dokumentua elkartzailea izatea eta auzoko elkartearen eta hiriko Udalaren arteko bitartekari-lana egitea.

### I. Oinarria

“Komunitatea”ren ideia azken urteetan erabilera galdu duen balioa izan da; gaur egun, ordea, bere balioa areagotzen ari da, globaltasunaren barnean hartzen ari den garrantzia ikusita.

Globaltasuna ahotan hartzea informazioaren teknologiak, ekonomia globaleko prestakuntza, ezaugarritzat deszentralizazioa duen antolakuntzaren aldaketa eta prozesuen malgutasuna ardatz dituen iraultza teknologikoa esatea da. Horren ondorioz, estatuen botereen legitimitatearen kalteko gizarte- eta politika-krisialdia sortu da eta, aldi berean, tokiko eta estatuen gaineko botereen aldekoa, eta horrek ezaugarri bereziak ematen dizkio egun politika egiteko erari.

Globaltasunaren ondorioz, erabaki jakin batzuk Estatuaren kontroletik kanpo gera daitezke, Estatu txikiak gertatzen baita arazo handientzat eta handiegia txikientzat.

Estatuek, herritarren eguneroko bizitzan eragiten duten protagonista bakarrak izateari utzi diote; aldiz, tokian tokikoak garrantzi nabarmena hartu du, ondorengo ideia gorpuztuz: “global pentsatu, tokian-tokian jokatu”; alegia, globaltasunera ireki, betiko tokiko neurriari eutsiz.

Tokian tokikoak partaidetza-sentimenduak (ezin bestekoak pertsonen bizitzan) bideratzeko behar giza eskala mantentzen du eta, paradoxikoa dirudien arren, areagotu egiten da globalizazioak indarra hartu ahala.

Gauzak horrela, estatu azpiko botereen, finean Tokiko Administrazioaren, eta gizarte zibilaren protagonismoa indartzen ari da. Administrazioa eta gizarte zibila harreman oso estu baten subjektu izango dira, eta biztanleriaren era askotako beharizanei aurre egiten saiatuko dira. Herritarren ilusioak lanetik eta bizitza politikotik bizitza pribatuaren/tokiko bizitzaren esparrura aldatzen ari dira eta eguneroko bizitzako harremanetan aldaketak gertatzen. Errealitatearen tokiko izaera hori ezin bestekoa izango da komunitateak gaur egun duen garrantzia uler dezagun.

Gogorarazi behar da, halaber, gizarte-mugimendu berriak komunitate-kontuetan parte hartzeko eta inplikatzeko alternatiba bihurtu direla, ohiko partaidetzatik kanpo (gehienetan, politikoa, legitimitate formalekoa), eta hainbat balio dituzte ardatz, adibidez, unibertsaltasuna, Erakundeetatik urrutiko partaidetza, lankidetzaren, nortasun kolektiboaren bilaketa eta gizabanakoak tes-tuinguru horretan duen rola bera ere.

Gizarte-koheretza haustea, gizarte-giroa hondatzea, ekonomiako desorekak, arlo pribatuaren garrantzia eta



eguneroko bizitzako harremanetan gertatzen ari diren aldaketak bultzada itzela ematen ari zaizkio komunitatearen partaidetzaren dimentsioari. Haren funtzionamendua, abiaraztea eta mantentze-lana erantzukizun eta etika aldeko inplikazio-maila garrantzitsuen inguruan artikulatzea, baita elkartasun-mekanismoak artikulatzea ere, guztion onerako diren erronka sendoak dira.

Komunitatea, laburbilduz, gu kokatzen garen talde naturala da gure ustez, eta bertan kokatzen dira: subjektu bakoitzaren nortasuna eta partaidetza-zentzua, "gu"aren sentimendua, guztien interes eta eskariak, taldearen bizipenak, gizarte-kohesioa eta elkarreagina, baita bakoitzaren espazio fisikoa eta komunitateak dauzkan bitartekoak ere.

Komunitate horrek, komentatu dugun bezala, asko du esateko; horretarako, herritarrek hiriko era askotako proiektuetan parte hartzeko mekanismoak behar ditugu. Gauzak horrela, Garapen Komunitarioa delakoa existitzen da eta horren asmoa da batez ere, bere metodologiaren bidez, helburu batzuen arabera diseinatutako ekintza zehatzak artikulatzea. Interbentzioaren eta ekintzaren ideiak, hain zuzen, hainbat gaitan erreallitatea aldatzeko modua emango du.

Garapen Komunitarioa honelakoa izatea nahi dugu: integratua, endogenoa, ekologikoa-iraunkorra, tokikoa, orekatua, herri-oinarrikoa, gizarte-arlokoa, lankidetzakoa eta kulturakoa. Gainera, lau fase desberdinetan funtsatutako metodologia du oinarri: diagnostikoa, plangintza, burutzapena eta ebaluazioa.

Lehenengo fasea, **diagnostikoa**, interpretazio-prozesu bat da eta talde edota gizabanakoen egoerak edo arazoak zein faktore eragileak identifikatzen laguntzen du. Diagnostiko guztiak komunitatera hurbiltzen saiatuko dira, baita euren ustez premiak diren horien berri izaten ere. Informazio hori biltzeaz gain, komeni da komunitatean proiektuari buruzko jarrera positiboa sortzea, herritarren partaidetza sustatuz eta komunitate barruko geroke animatzaileak antzemanaz.

**Gizarte-plangintza**ren bidez, alde zuzenetik egin beharkekoa erabaki nahi dugu, dauden bitartekoak eta lortu beharreko helburuak zehaztuz. Era horretan, zer nahi den, zer egingo den, non, noiz eta zenbat bitartekorekin adieraz dezakegu, baita pertsona edo erakunde zuzendariak, koordinatzaileak edota ikuskatzaileak

erabaki ere. **Burutzapenaren** bidez, lehenago planeatutakoa gauzatzen da, eta tentsio praktikoa handieneko uneetako bat da. Koordinazioa, komunitatearen prestaketa edo tokiko liderren lankidetzak oinarritutako dira.

Azkenik, **ebaluazioak**, proposatutako helburuen aldean lortutako emaitzak neurtuko ditu. Hala lortutako arrakasta nola osotasunean burututako prozesua neurtzeko saioa egiten da.

Metodoaren aplikazioan ezin dugu alde batera utzi jada aipatutako elementu bat, berriz hizpide hartu beharkekoa: herritarren partaidetza. Partaidetza horrek garrantzi berezia du; izan ere, objektiboa da eta, halaber, bitartekoa.

Gure ustez, partaidetza, euren bizitza pertsonala eta kolektiboa eraldatuko duten erabakietan herritarrek parte hartzeko formula da. Horren arabera, erantzukizunak hartuko dituzte, gai garrantzitsuetan ez ezik, iritzi bat osatzearekin eta komunitate osoaren bizi-kalitatea hobetzearekin zerikusia duten gai guztietan. Prozesu moduan ikusi behar da, demokrazia-era modernoena da eta pertsonak erabaki garrantzitsuei lotzeko modua ematen du, direla politikakoak, direla ekonomia-, gizarte- eta kultura-arlokoak. Hartara, pertsonak euren mundu indibidual eta bakartutik irten daitezke eta dimentsio orokorrago batean sartu: komunitatea. Biztanleen mentalitatea eta jarrerak aldatzen ditu, herritarrek kontzientziatzeko heziketa-prozesu baten bidez euren patuan esku hartzeko erantzukizunak har ditzaten.

Partaidetzaren bidez, pertsonak osatu eta informatu egiten gara, eta besteak ulertzen saiatu, baita besteak uler gaitzaten saiatu ere: elkarrizketa, entzuketak eta akordioak, partaidetzaren berezko elementuak dira. Laburbilduz, partaidetzaren bidez kontzientzia hartu eta etorkizuna alda dezakegu.

Herritarren partaidetza, politika, demokrazia eta pertsonari buruzko ideia bati hertsiki lotuta dago. Administrazioaren deszentralizazioa, informazioa, kontrola, gardentasuna, herritarren partaidetza-erregelamenduak... ezin bestekoak dira, baina ez nahikoak. Arrakastaren giltza ahalmenak eskuordetzeko era, parte hartzeko kideen borondatea eta kolektiboak agertutako interesa dira neurri handi batean.





Partaidetzaren praktikan, ordea, zailtasunak ere gertatzen dira, hala tokiko Administrazioaren aldetik nola komunitatearen aldetik: profesionalen ahalmen-metaketa, tokiko gobernuaren ohiko funtzionamendua- ren inertzia, horrelako ekintzek dakartzaten estrategia- aldaketak onartzeko zailtasunak, herritarren kontrako jarrera, mesfidantza, prestakuntzarik eta efizentziarik eza edo pertsona batzuen gehiegizko partaidetza. Horiek partaidetzaren praktika erreala oztopatu, bloka- tu eta ezindu ere egiten dute.

Amaitzeko, gogora dezagun Aurreproiektu hau aurrerapen-dokumentua dela, asmoa izanik horren bidez auzoko herritarren arteko adostasun-prozesuari ekitea eta, hartara, guztiok, herritar zein Udal, gure par- taidetza eta akordioa baliatuz, denboran ekintza zeha- tzak artikulatzeko prozesua eraikitzea. Era horretan, auzoa aldatu eta bizi-kalitatea hobetuko dugu.

Komeni da gogoratzea, halaber, Aurreproiektua pla- taforma bikaina izan daitekeela auzoari buruzko Udala- ren ekintzak koordinatzen saiatzeko.

## II. Helburuak

### a. Helburu orokorrak eta hipotesiak

Helburu orokorrak hizpide hartzen ditugunean, esku- ratu nahi dugun lorpena deskribatzen saiatzen ari gara. Proiektu edo aurreproiektuetan, esku arteko honetan bezala, helburu orokorrak gutxi izaten dira eta era oso zabalean adierazten dira; dena den, iritsiko da horiek zehazteko unea.

Horrenbestez, ezin dugu ahaztu atal honetan adiera- ziko duguna plan hau aplikatuta lortu nahi dugun emaitza dela, horretarako diseinatu beharreko jarduerak baino.

Helburu orokorrak ondorengoak dira batez ere:

- Auzoko herritarrek gehiago parte hartu eta hori auzo- aren bizi-kalitatearen onerako izan.
- Altza auzoko era askotako Elkartearen arteko harreman ohikoak eta naturalak artikulatu.
- Udal-ekintzen koordinazio handiagoa lortu, burutu be-

harreko Proiektua orokorra eta integratua izan dadin.

Hipotesiei dagokienez, ondorengoak azter genitzake:

- Lan-dinamika berri bat sortu, abiapuntutzat helburu bateratuak hartuz, uneko partaidetza susta dezan.
- Auzoko pertsonen ahalmena ezagutu, baita trebeta- sunak, ezagutzak, gaitasunak eta balioak ere, partai- detza-formula erakargarriagoak eraiki ditzagun.
- Auzoan egiten diren ekarpenen gizarte-aitortza nabarmendu, auzoan motibazio eta ilusio handiagoa sor dezagun.
- Partaidetza-prozesuan pertsona edota kolektibo berriak inplikatze bezain erakargarriak izango diren espazio eta jarduera berriak bilatu.
- Komunitate-bizitzaren inguruan autohausnarketa- prozesuak eraiki, auzoko era askotako Elkarteen artean harremanak areagotu eta hobe ditzagun.

### b. Helburu espezifikoak eta aurreikuspena jarduerak erabakitze orduan

Aurreproiektu honen noranzkoa zehazten duten hel- buru orokorrak ez bezala, helburu espezifikoek zehaz- tasuna eskatzen dute. Zehaztasun horretarako, pauso bat eman behar da gero: helburuak burutzeko baldin- tzak eta lortu nahi dugun errendimendua.

Zehazkiago, helburu espezifikoaren bidez, egin eta lortu nahi dena argitu nahi dugu, baita hori neurtzeko era ere.

Hurrengo pausoa jarduera zehaztea da: helburu jakin bat lortzeko bitartekoak. Gure kasu zehatzean, ordea, helburu espezifikoaren aurkezpenak ez du esan nahi jarduerak zehazki definitu behar direla, azken bate- an Altza auzoko herritarrek hartuko baitute behin betiko erabakia.

Hori bai, Aurreproiektuko helburuak aurkeztearekin batera, jarduera-mota batzuk iradoki behar dira, **lan- plana eta egutegia** deritzan 5. ataleko proposamene- kin bat etorri behar direnak.

Ondoren, helburu espezifikoak aurkeztuko ditugu:

- Altzako herritarren bizi-kalitatea hobetu, hainbat arlo- tan (heziketa, ekonomia, hirigintza, kultura, elkarteen

mundua...) nola pertsonak bizi diren lurraldean zuzenean esku hartuz.

- Era askotako gizarte-eragileen arteko elkarriketa bilatu, era askotako Elkarteen arteko topaketarako aukera emate aldera.
- Lan-metodologia bat eraiki eratutako harremanetan oinarrituz, lankidetzaren eta uneko desberdintasunaren bidez aurrera egite aldera.
- Proiektua eraikitzeke prozesuan Udala inplikatu, alderdien arteko desadostasunetan bitartekaritza egin eta akordioa erdieste aldera.
- Proiektuko arduradunen eta parte hartu ohi ez duten pertsonen/kolektiboaren artean komunikazio-ildoak sortu, teknologia berriak erabiliz.
- Tokian tokitik *premier* diagnostiko bateratua prestatzeko lankidetzaren sistema bat artikulatu eta bitartekaritza-lana egin (bertan, herritarrek antzemango dituzte beharizan horiek).
- Premier diagnostikoa auzoan dauden ekimen eta baliabideetara egokitu, egon dagoenaren eta burutu nahi denaren artean neurria hartzen saiatuz.
- Auzoko Elkarteen eta pertsonen arteko topaketak bultzatu eta antolatu, premieri aurre egiteko *plangintza* diseinatze aldera, *ekintzak* burutuz eta denboran horiek *ebaluatuz*.
- Herritarren partaidetzarako eta horri buruzko prestakuntzarako dinamika bat sortu, definitzen joango diren konpromiso, denbora zehatz eta erdiesteko moduko lorpen zehatz batzuei lotzen zaiena.
- Egingo diren ekintzekin batera, gizarte-hedabideetan horiei buruzko informazio eguneratua eta benetakoa ezagutarazi, herritar donostiarrek eta bereziki altzatarrek hasitako ekintzen berri izan dezaten.
- Era moderatuan eta aglutinatuz, partaidetzaren bidez, herritarragoak izan, proiektu bateratuan erabilgarriagoak sentitu eta, gure komunitatean ezin besteko sentitzearen ondorioz, ilusio handiagoz bizitzeko modua emango digun prozesua eraiki.

### III. Proiektuaren kokapena eta tamaina

Proiektu hau Altza auzoan kokatzen da; hala ere, artean, adostu beharreko Proiektuaren kokapen zehatza zein den era bateratuan definitu behar dugu.

### IV. Erabili beharreko metodologia

Erabil daitekeen metodologia esplikatzeko hasi baino lehen, komeni da nabarmentzea aurreproiektuak, bete beharreko fase batzuk eskaintzen dituela. Dena den, betiere auzoan jada burutzen ari diren ekimenak hartzen ditu kontuan. Ildo horretan, ahalegina egingo dugu etorkizunera begira Garapen Komunitarioko Proiektuaren barruan diseinatuko diren ekintza berriak une honetan egiten ari direnekin integartzeko.

Zentzu hertsian, metodologiari dagokionez, nabarmen dezagun prozesuari ekiteko *ikerketak-ekintza parte-hartzailea* delakoa aplikatuko dugula. Horren helburua da komunitatea inguruko errealitateaz jabetzea eta mobilizazio kolektiboa lortzea. Auzoko era askotako elkarteen arteko behar-beharrezko erlazioa eta Udalarekin ere ezarriko dena, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, oinarrikoa izango da Proiektuan lan egiteko orduan. Prozesu guztiaren giltza da taldeak oinarriko elementua direla eta, gainera, auzo jakin batean bizi diren herritarren laguntzarik gabe ezinezkoa dela euren eskaerei aurre egitea. Konpromisoa eta herritarren partaidetza, beraz, bitarteko eta helburu dira prozesu osoan.

Komeni da gogoratzea ere aldi berean Garapen Komunitarioaren metodologia aplikatuko dela, jada komentatutako lau fasetan oinarritutakoa: diagnostikoa, *plangintza*, burutzapena eta ebaluazioa. Metodologia horren aplikazioak, aurkeztutako Aurreproiektuaren helburu zehatza gainditu egiten du eta auzoko gizarte-eragileen arteko akordioa eta adostasuna oinarri hartuta aplikatuko da.



## V. Lan-plana eta egutegia

Ez da erraza urte askotarako Lan Plan bat adierazi eta egutegia zehaztea; dena den, antolamendu horretan, ondorengo faseak adieraz ditzakegu (2002ko ekainean hastekoak).

### 2002ko EKAINA:

- Propio deitutako bilkura batean eta batera bereizketarik gabe, Altxa auzoko pertsona, talde eta Elkarte guztiei, *Altxako Garapen Komunitarioko Aurreproiektua* aurkeztu, gero, epe jakin batean azter dezaten.

### 2002ko IRAILA - URRIA:

- Dokumentua behin aztertuta, esperientziak iraun bitartean Elkarteen eta Udalaren artean ordezkari eta bitartekariak izango diren pertsoneri beratu aurkezteko bilkura bat finkatu, harreman-mota kontuan hartuz.
- Une horretatik aurrera, hainbat gaitan auzoak dituen premiak antzemateko lan egingo dute, betiere Elkarteekin egin nahi dituzten oharren arabera, eta denborak eta egutegiak zehaztuko dituzte.
- Prozesua bizkortzeko Batzorde bat sortzeko aukera dago: Elkarteekin ordezkariak izango lukete hor.
- Altxako Bulegoarekin lan egin, Plan Komunitarioko taldearekin koordinatuta auzoari dagozkion informazio- eta kudeaketa-beharrizanei erantzun orokorra emateko.
- Proiektuko arduradunen edota parte hartu ohi ez duten pertsona edota kolektiboen arteko komunikazio-kanalak sortu, teknologia berriak sortuz, besteak beste.
- Era askotako pertsona edota Elkarteen barne-lana, horren bidez, auzoko errealitateari buruzko autohausnarketa eta premien azterketa egin ditzaten, eta, hartara, proposamen zehatzak adierazi.
- Banaka, Elkarteekin topaketak egin, beharrezkoa dutenen lana bultzatzeko eta batez ere babesa emateko asmoz.
- Premien diagnostikoa gaur egun martxan dauden ekintzetara egokitu, uneko ekimenak zein baliabideak eta berriak direnak premia horiei aurre egiteko baliagarriak ditzagun.
- Udalari talde bakoitzak prestatutako eta egoki ikusitako diagnostikoa bidali.

### 2003ko ABENDUA - MARTXOA:

- Aurkeztutako diagnostikoak bildu eta aztertu.
- Herritarrekin eta Elkarteekin bildu, Elkarteekin egindako diagnostikoak eta proposamenak ezagutze aldera eta konpromiso zehatzak lortu eta horien lehen tasun-ordena adoste aldera. Lehenengo bilera hori, abendu erdialdera da egitekoa, eta gero beste batzuk etor daitezke, guztien artean premien diagnostiko bakar bat adostu dezagun.
- Auzoko premien diagnostikoa behin adierazita, denbora-tarte bat hasiko da, antzemandako beharrizanei aurre egiteko *ekintza*-proposamenak zein diren ikusteko. Fase hau lantaldeak sortuz artikulatuko da, eurek hainbat denboratan eta era askotako bileretan lehen tasuneko zat jotako gaiei heldu eta landu ditzaten, betiere *plangintzako* dei dezakegun fasera iritsiz.
- Martxoaren erdialderako, burutu beharreko ekintzen *plangintza* amaituta egongo da, lehen tasuneko premiei erantzuna eman dakien.

### 2003ko APIRILA -2004ko APIRILA:

- Ekintza behin planeatuta, lehendik antolatutakoa martxan jartzeari edo *burutzeari* ekingo zaio.
- Burutzapen-fase horrek eduki teoriko gutxi ditu argitzezko lerro hauetan, baina burutzeko orduan zailtasun handienekoa gertatzen da. Auzoko indar bizien arteko akordioa oinarritzakoa da, eta adostasuna ezin bestekoa. Hainbat alderdi, adibidez, partaideen arteko koordinazioa, komunitatearen prestaketa, langile gaituen presentzia eta tokiko liderren konpromisoa oinarritzakoa gertatzen dira burutzapen-fasea martxan jartzeko orduan.

### 2004ko MAIATZA - UZTAILA:

- Azken fasean, izandako lorpenen *ebaluazioa* egin behar da. Ebaluazioa, prozesuan esku hartu duten fase, pertsona, talde eta elkartei, erantzukizunak hartu dituzten pertsoneri eta, noski, prozesu osoan inplikaturako alderdi den aldetik, Udalari buruzkoa izan behar da.
- *Ebaluazioan*, diseinatutako helburu espezifikoak eta dagozkien jarduerak eta lortutako emaitzak bateragarri egitea bilatzen da.
- Hala ere, *ebaluazioa* areago joan behar da, aztertu behar baitu hasierako helburuak, hasieran adierazitako helburu orokor horiek bete egin ote diren eta hasierako egoera benetan aldatu ote den.

## 5

## Azken 12 urtean Altzan egindako obren zerrenda

Sarrera-kapituluan adierazi dugun bezala, udal-demokraziako 25 urte hau aztertu dugu eta, irismen handiko hirigintza-lanei orain ekiten ari gatzazkion arren (horietarako, espedienteak prestatzeko eta tramitatze-ko prozesu korapilatsuak behar izan dira), aitortu behar dugu urte horietan Altzak era askotako hobekuntzak izan dituela.

Azken 12 urtean egindako obren zerrenda bat osatu dugu, uste baitugu horien berri izateak abiapuntua eta gertatutako aurrerapenak askoz hobeto ulertzen lagunduko digutela. Hori guztia auzoa izaten joan den aldetak ahalik eta gehien objektibatzeko asmoz.

- Herrera belar artifizialeko futbol-zelaia eta era askotako hobekuntzak.
- Futbol-zelai inguruko 220 plazako aparkalekua eraiki.
- Zelaira iristeko bialean argiztapena eta zoladura jarri.
- Romualdo de Toledo Ikastetxe Publikorako bidea konpondu.
- Larratxo ingurunean lurrazpiko edukiontziak jarri.
- Larratxo Ikastetxe Publikoko patioan zoladura eta argiztapena jarri eta Larratxoko ikastetxeko ezpondan lorategi txiki bat burutu.
- Larratxon haur-ludoteka bat ireki.
- Larratxo pasealekutik Jolastokieta auzora oinezkoen sarbidea jarri eskailerak kenduz.
- Txingudi ibaiko kolektorea garbitu eta konpondu ur zikinak bereiziz.
- San Luis plazatik Txirrita Bertsolarira joateko espaloitarte bat eraiki.
- Larratxo parketik Garberara joateko sarbidea zolatu eta baranda, altzariak eta argiztapena jarri.
- Casa Naora ibilgailuak iristeko biala.
- Txapin Enen barne-plaza bat konpondu eta oinezkoentzako gunea jarri.
- Sta. Barbara auzoan oinezkoentzako gunea bat burutu (Felix Iranzu) argiztapena, altzariak, lorategiak, pibotak eta abarren bidez.
- San José de Calasanz Ikastetxe Publikoaren perimetrotako itxitura konpondu, baita argiztapena, gimnasioa eta patioen asfaltatzea ere. Ikastetxea, auzoak plaza publiko moduan erabil ditzan, eskola orduz kanpo patioak irekitako lehenengoa izan zen, kirol-zelaiak, haur-jokoak eta mediateka zituela.
- San José de Calasanz Ikastetxe Publikoko eraikin guztien estaldura erabat berritu.
- Lau Haizeta Bulebarra. Zoladura jarri, tamaina handiko zuhaitzak landatu. Lehen mailako kalitateko argiztapena eta altzariak eta 8 metro zabaleko espaloia.
- Arria parkeko zuhaitzak landatu eta hobetu.
- "Kale-hezitzaileen" taldea kontratatu.
- 25 plazako aparkaleku bat burutu eta hobetu eta, hartara, Molinao auzoko ezkutuko zabortegei bat berreskuratu.
- Molinao auzoko eskaileraren eta argiztapenaren konponketa txikiak.
- Txabolak ezabatu, ezpondak garbitu eta Las Mercedes auzoan zuhaitzak landatu.
- Molinaoren ibaibidea garbitu eta San Markoseko



- zabortegitik zetozen ur zikinen kolektorea kendu.
- Alkateordetzaren bulegoak hobetu.
- Molinao ibarbide osoan zuhaitzak landatu.
- Hobekuntzak Altzako hilerrian. Kaleak zolatu, zuhaitzak landatu eta, barnean, lorategi txiki bat sortu.
- Lauaizetatik San Markosera bidean hobekuntzak egin argiztapen publikoa jarriz.
- Topoaren trenbidearen tarte bat lurpetik sartu Buena-vista aldean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzaz garrantzitsuaz.
- Altza pasealekuan espaloi-tarte bat burutu (San Isidro auzoa).
- Herrera auzoan lurpeko edukiontziak jarri.
- Ermitako bidea antolatu argiztapen publikoa jarriz eta ubideratzeak eginez.
- Lauaizetara bidetik (Garberatik hurbil) Marrus bideraino edateko ureko hodia jarri, inguruko baserriei zerbitzu ona emateko.
- Larratxoko oinezkoentzako gunea.
- 400 plazatik gorako lurrazaleko bi aparkaleku sortu kiroldegia eta Oleta Ikastolaren atzean.
- Oletako etxebizitzetatik Arria parkera joateko eskaile-rak burutu.
- Edateko ura bideratzeko eroanbide berriak jarri Oletako etxeen inguruari ur-kalitate ona emateko.
- Altzako pilotalekua itxi eta hobetu argiztapena eta harmailak jarriz.
- *Aitonak* Zahar Etxea eraberritu.
- Altzako Auzo Elkarte hobetzeko lokala diruz lagundu.
- San Martzial plazaren ingurunea antolatu argiztatuz, zoladura jarriz eta arkitektura-trabak ezabatuz.

- Azken urteetan 300 zuhaitz baino gehiago jarri.
- Haur-jokoan bost multzo jarri.
- Argiztapen, eserleku, paperontzi eta abarren %80 berritu.
- Lurrazpiko aparkaleku berria eta lurrazaleko plaza Lauaizetan.
- Altzako Haur Txokoa eraberritu.
- Kontsorzioan sartzearen bidez, Arri Berri eta Errota-gizarte-hurtzaindegiak publiko bihurtu.

#### **EKINTZA BERRIENAK:**

- Altzako Plan Komunitarioa martxan jarri auzoko era-kunde eta kolektibo guztien partaidetza zuzenaz.
- Nerecaneko biala, Anbulatorioko biribilgunea barne.
- Kiroldegitik Berrako Egoitzaraino espaloiak jarri eta bialak hobetu.
- Larratxo parke berria.
- "Biribilgunea"ren 1. faseko hiri-antolamendua egin eta Arri Berri zein Arri Zar ingurunea antolatu.
- Lehen ez zeuden euri-uren kolektoreak jarri eta ur zikinen hondatutako kolektoreak eraberritu.
- Arri Berriko obren bigarren fasea burutzen ari dira, Sta. Barbara eta inguruko kale guztiak berrantolatuz.
- Berrako Egoitza, Eguneko Zentroa eta adinduentzako alokairuko Gizarte Aparkalekuak.
- Tomas Ene Baserria Kultur Etxe izateko erabat birgaitu.
- Larratxoko Gizarte Zerbitzuen Zentro berria sortu.
- Teknologia berrien *Larratxo-net* Auzo Etxea Larratxon.
- Arkitektura-traben kopuru handi bat ezabatu.
- Kiroldegia hobetzeko eta mantentzeko obrak.

- Larratxoko Aparkalekua eraiki, estalduran plaza publiko bat duela.
- Edateko ureko kolektoreak aldatu, ixteko giltzak jarritz eta anbulatorio-inguruneko eta Altzako dorreetako sareen zirkuituak itxiz, hodi orokorren emaria eta, batez ere, horien presioa hobetze aldera, suteetako hartuneak jarritz.
- BOEko 24 etxebizitza eraiki (une honetan, Darieta bidean eraikitzen).
- Oleta auzoa erabat berrantolatu.



# 6

## Herritarren eskaerak. Premien diagnostiko-txostena

### **I. Altzako Garapen Komunitarioko Planean parte hartzen duten elkarteen eta beste erakunde batzuen zerrenda**

Aitonak Zahar Etxea  
Alegria de Altza, K.E.  
Altza Kulturunea  
Altza Herri Ikastetxea  
Altza Herri Ikastetxea, I.G.E.  
Altzako Bulegoa, Udal Bulegoa  
Altzako Irakaskuntza Ertainen Institutua  
Altzako Irakaskuntza Ertainen Institutua, I.G.E.  
Altzako Historia Mintegia  
Altzako Osasun Etxea  
Altzargi Gazte Taldea  
Altziratxo  
Argibide Gazte Taldea  
Askagintza, Lanbide Hastapenatarako Ikastegia  
Asteartea, Lanerako Eskubidearen Aldeko Elkarte  
Auzoa, Altzako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen  
Elkartea  
Bizarraín  
Bizirik Gaude  
Boskotarrak, K.J.S.  
Buenawista Prolleckoíoms, Musika elkarte  
Casares, Kultur Etxea  
Eliza Kristau Ebanjelikoa  
Elkartasuna, Altzako Auzo Elkarte.  
Elkartea Berri, Emakumeen Elkarte  
Euskal Giroa  
Gizarte Langileak, Gizarte Langileen Zentroa

Gure Lizarpe Amets, Auzo Elkarte  
Gurea, Zahar Etxea  
Arri Berri, Haurrentzako Eskola Publikoa, I.G.E.  
Arri Berri, Haurtzaindegia  
Arri Berri, Ikastetxe Publikoa  
Hegaldi, Emakumeen Elkarte  
Herrera Ikastetxe Publikoa, I.G.E.  
Herrera Ikastetxea  
Herrerako Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Eskola, H.H.I.  
Herri Ametsa Ikastola  
Herri Ametsa Ikastola, I.G.E.  
Herripe, Auzo Elkarte  
Jesus de Nazaret, Parrokia  
Jolastokieta, Kultur eta Jolas Elkarte  
Kaleko Hezitzaileak, Gizarte Zerbitzuen Zentroa  
Kemetrontxo Atsedeen Taldea  
La Anunciata Ikastetxea, I.G.E.  
La Anunciata, Ikastetxea  
Mendizaleak, Mendi Elkarte  
Molinao, Auzo Elkarte  
Oleta, Auzo Elkarte  
Oleta Ikastetxea, I.G.E.  
Oleta, Ikastetxe Publikoa  
Oletako Jaiak San Juanak Batzordea  
Ostadar G.J.K.G., Emakume Elkarte  
Osteguna, Auzo Elkarte  
Pasai Antxoko, Auzo Elkarte  
Platxiki, Kirol eta Jolas Elkarte  
REMAR  
Roteta Elkarte  
Roteta, Kirol Kluba  
S.E.D.I.V.I.  
San José Obrero, Parrokia  
San Luis La Salle Ikastetxea  
San Luis, Parrokia  
San Marcial, Zahar Etxea  
San Marcial, Parrokia  
San Pablo, Parrokia  
Santa Barbara, K.E.  
Sorospén Etxea  
Sporting de Herrera, Kirol Kluba

Teknologia Berrien Zentroa: Larratxo.net  
Txokolarte, Grabatzaileen Elkarte Artistikoa  
Uztai Belar, Emakume Elkarte  
Uztai Belar, Asociación de Mujer

## II. Sarrera

**Ondoko lerro hauetan aurkezten dizuegun dokumentua Altzako Premien Diagnostikoa da, eta arlo horretan beren laguntza eskaini diguten pertsona eta talde guztiei esker osatu dugu.**

**Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu Diagnostiko honetan arreta eta begirune osoz jaso ditugula herritarren iritzi guztiak eta herritarrek azaldu dizkiguten modu berean jasotzen saiatu garela.**

Nolanahi ere, Diagnostiko hau ez da azterlan bakan edo bereiztat hartu behar, hiriko Udalak (eta bereziki Auzoak eta Herritarren Partaidetza Bulegoak) 2002ko azaroaz geroztik sustatzen duten Altzako Garapen Komunitarioko Planaren barruan baitago.

Plan honek, funtsean, herritarren partaidetzarako esperientzia bat proposatzen du, eta bete behar dituen helburu ugarietz gainera, beste erronka batzuei erantzuteko aukera eskaini nahi du. Partaidetzak herritarrena eta herritarrentzat izan behar duela esatea begi-bistako kontua da, noski, baina hala ere gaur egun oraindik ez ditugu partaidetza horren onurak garbi onartzen. Beraz, arlo horretan badugu oraindik zereginik; aldi berean, gure egoera soziopolitikoan esanahi handikoa den beste ezaugarri edo balio bat hartu behar dugu kontuan: partaidetzak gatazketan bitartekaritza eta erregulaziorako duen balio ukaezina.

Garapen Komunitariorako Planak partaidetzaren ezaugarri hori bereganatzen du, eta gainerako beste ezaugarri guztiak ahaztu gabe, argi adierazten du erai-ki beharreko eremuan elkar ulertzeko eta adostasuna lortzeko bidea bilatu behar dela, erkidegoaren barruan dauden desadostasunak eta erkidego horrek Administrazioarekin dituen desadostasunak elkarrekin konpontzeko.

Alde horretatik, gure ustez, lortu behar dugun aurreneko gauza, antzemandako premiei buruz (kasu honetan Altzan atzemandako premiei buruz) diagnostiko orokor bat egitea da.

**Jakina, Diagnostikoaren helburua Altzak dituen premiak ezagutzea da, eta horretarako bertako herritarren eta Elkarteen ikuspegi eta iritziak hartzen ditu kontuan. Nolanahi ere, gure iritziak Diagnostikoa ez da berez helburu bat, Altzako erkidegoak gidatu behar duen prozesuaren abiapuntua baizik; hori dena kontuan harturik aurkeztu da dokumentu hau Altzan eta eta Donostiako Udaltxean.**

Horretarako, eta metodologia-alderdiari dagokionez, aurrerago ikusiko duzuen moduan, profil, interes, bizimodu, politika-ikuspegi eta jarrera desberdinak jorratu ditugu, baina betiere egoera konpondu eta aurrera egiteko bidea emango diguten adostasuna eta elkar-ulertzea bilatu nahirik.

**Dokumentuak hainbat atal ditu. Lehendabizikoa metodologiari dagokio; horren ondoren, detektaturiko premien berri ematen da, beste hiru ataletan banatuta: batean Elkarreek adierazitako premiak agertzen dira eta bestean, berriz, Altzako zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak eta teknikariek adierazi dizkiguten premiak. Hirugarrenean gaztetxoek diotena jasotzen da. Azkenik, proposamenak jasotzen dituen atal bat ere bada, betiere kontuan izanik aurreko paragrafoetan adierazi dugun ideia nagusia; alegia, Diagnostikoa prozesu baten abiapuntua dela, ez bukaera. Proposamen horiek herritarren iritziei, profesionalen ekarpenei eta Udalaren aburuei jarraituz osatu dira, eta etorkizunerako bidea ireki nahi dute, eginkizunak eta funtzioak zehaztuz, edukiak hornituz eta erkidegoaren barruan konpromisoak banatuz.**

Goiz da oraindik ondorioak ateratzeko, baina labur-labur bada ere, garrantzitsuak iruditzen zaizkigun alderdi batzuk azpimarratu nahi genituzke.

Lantalde bat handi samarra denean elkar ulertzeko izaten ditugun zailtasunak begi-bistan agertu zaizkigu. Taldeen presioak, indartsuen aurrean iritzi sendorik ez izatea, edo bakarka edo talde txikietan hitz egin behar





denean norberaren iritziari eusteko zailtasunak nabariak izan dira. Bestalde, garbi asko ikusi dugu batzuek eta besteek hitz egiteko eta entzunak izateko premia dugula, eta horretarako borondatea izanez gero, elkarrekin ados jartzea erraza izan daitekeela.

**Bestalde, Elkarten lan-erritmoak ere hartu behar dira kontuan, elkarte horien oinarri den borondatezko lanari oso loturik daudelako eta egin beharreko lanen ardura ia beti pertsona batzuen gain uzten delako, horrek izan ditzakeen alde on eta txar guztiekin. Udalarekin harremanak izateko moduari dagokionez hain zabaldua dagoen jarrera negatiboaz ere hausnarketa egin behar genuke.**

Garapen Komunitariorako Planari hasiera ematea ez da eginkizun erraza izan, eta badakigu era horretako prozesuak ez direla samurrak izaten. Lana oso korapilatsua gertatzen ari da, baina baita aberasgarria ere. Eta ez bakarrik Diagnostikoaren urratsa dagoeneko egin dugulako, baizik eta Plan horren barruan beste era askotako lanak egiten ari garelako.

Dena dela, amaitu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiegu fase hau prestatzen lagundu eta horretan parte hartu duten Elkarte, profesional, eta gazte guztiei, eta bidenabar, argi adierazi nahi dugu lan hau beren ekarpenen emaitza izan dela.

Aurrerantzean ere Garapen Komunitariorako Planak zabalik izango ditu ateak, guztiekin batera lan egiteko, Altzaren egoera hobeto ezagutzeko eta haren etorkizunari buruz hausnarketa eta jarduketak egin nahi dituzten guztientzat.

### III. Metodologia

Gure metodoa -arlotu jakin batean jarduteko antolatutako prozesu gisa hartua- aurrera eraman ahal izateko, erabaki bat hartu beharra geneukan hasiera-hasieratik: metodologia kualitatiboaren eta kuantitatiboaren artean aukeratu behar genuen hain zuzen.

Lan honi dagokionez, guk argi geneukan zer erabaki: metodologia kualitatiboaren alde geunden; hain zuzen

ere, metodologia horrek gertakariak deskribatu, ulertu eta azaltzeko aukera eman eta informazioa bilatzeko teknika jakin batzuk eskaintzen dizkigu: kasuen azterketa, elkarrizketa eta partaidetzazko behaketa.

Metodologia kualitatiboak berez ematen digun abantailaz gainera, lantzen ari garen Plana doitu ondoren funtsezko beste abantaila bat lortuko dugu metodologiaren aldetik, plana aurrera eramateko lau urrats gauzatuko baititugu; diagnostikoa, plangintza, exekuzioa eta ebaluazioa.

Txosten hau urrats horietako lehendabizikoari dago- kio, Diagnostikoari alegia, eta horretan bada azpimarra- tu beharreko alderdi bat: ikerketa-ekintza-partaidetza esaten diogun alderdia hain zuzen. Horren helburua da biztanleria eta erkidegoak beren egoeraz ondo jabe- tzea, eta hortik abiaturik eta mobilizazio kolektiboaren bitartez gizartean hobekuntzak lortzeko lana egitea. Horretarako, eguneroko bizimoduko ohiturak ezagutu, arazo praktikoak aztertu eta horiei behar adinako garrantzia ematen zaie, egoera hobetu ahal izateko. Gure lanari dagokionez, lantzen ari garen ezaugarri nagusiak hauexek dira: taldeak prozesuaren oinarri iza- tea, taldeak era guztietakoak izatea, parte-hartzea eta biztanleriarekiko konpromisoa izatea.

Erabiltzen dugun metodologiaren ildo nagusiak, labur-labur bada ere, agertu ondoren, aurkezten dizue- gun Diagnostikoari buruzko Txostena egiteko eman ditugun pausoak azalduko dizkizuegu.

Hainbat talderekin izan ditugu harremanak, jarraian azalduko dugun bezala eta horri esker Diagnostikoa egiteko beharrezko informazioa bildu dugu. Helburu horrekin, bakarkako edo taldekako elkarrizketak eta topaketa eta bilerak egin ditugu, Gidoi bat, informazioa- ren euskarrirako erabiliiz.

Aukeraturiko taldeei dagokionez ondokoak aipatu behar ditugu:

- Altzako egoeraren berri ondo dakiten pertsonak
- 49 Elkarteek hartu dute parte prozesuan eta beharrezko den informazioa eman digute.
- Altzan lan egiten duten hainbat arlotako profesionalak eta teknikariak. Arlo hauek aukeratu ditugu: Gizarte Ongizatea (Gizarte Langileak eta Hezitzaileak), Kultura, Kirola, Hezkuntza (Ikastetxeak/Ikastola, Lanbide Has-

tapenetarako Ikastegia eta HHI), Teknologia Berriak eta Osasuna. Aipagarriak dira, halaber, Altzako Elizetako bost parrokoekin egindako bilerak, eta Eliza Kristau Ebanjelikoaren ordezkariekin egindako bilera.

- Kaleko Hezitzaileekin harremanetan dauden 12 eta 18 urte bitarteko gazteak.

Altzan dauden Premiei buruz informazioa eta iritziak jakinarazi eta Txosten hau egiteko aukera eman diguten Elkarte, teknikari eta gazteen multzoa.

Azkenik, esan behar dugu jaso dugun informazioa Jarduketa Arlo jakin batzuen arabera sailkatu ditugula. Arlo horiek baliagarriak izango zaizkigu kapitulu bakoitzean adierazitako edukiak ondo antolatzeko. Hona hemen aipaturiko arloak:

- a. Kultura eta Euskara
- b. Kirola
- c. Hezkuntza-Prestakuntza-Lana
- d. Ingurumena
- e. Aisialdia eta Denbora Librea
- f. Partaidetza eta Elkartegintza
- g. Gizartea
- h. Hirigintza
- i. Beste arlo batzuk

## IV. Altzako elkarteen premiak ezagutzea

Altzako erkidegoak Elkarte asko ditu eta elkarte horiek era askotako arloak lantzen dituzte.

Parte hartu duten Elkarteak arlo desberdinetan ari dira lanean, eta horri esker, Premiei buruzko Diagnostikoak ikuspegi osatuagoa eta orokorragoa eskaintzen digu Altzak dituen premiei buruz.

Oro har, elkarte guztiek gai batzuen inguruko kezka eta interesa erakutsi dute; hala ere, jarduketa-arlo jakin batzuetako Premien Diagnostikoa egin denean, eremu horietako bakoitzari berez zegozkion eskaera bereziak jaso dira.

### a. Kultura- eta euskara-arloa

#### KULTURA

Udal guneak (Casares Kultur Etxea eta Altzako Kulturunea) eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak ez dira nahikoak:

1. Zerbitzuak: eskaintza ugariagoa eta kalitate handiagoa antolatu beharko litzateke, eta horren barruan hainbat jarduera txertatu: antzerkia, kontzertuak, musika, musika-eskola...; eskaintza hori Altzako herritarren interesei hobeto egokitu eta jarduerak zein herritarrentzat diren oso kontuan hartu behar da. Hain zuzen ere, gaur eskaintzen diren zerbitzu batzuk gutxiegi erabiltzen dira eta ez dira adin-talde guztietera iristen.
2. Guneak: Lehenago adierazitako jarduerak aurrera eramanez izateko gune zabalagoak eta erabilera anitzekoak behar dira.

Kultur jarduerak antolatu eta aurrera eramateko zailtasun edo oztopo handienetako bat ekonomi baliabideen gabezia da, ematen diren dirulaguntzak ez baitira nahikoa izaten.

#### EUSKARA

“Bai Euskarari” Euskararen Plan Estrategikoa sustatu eta aurrera bultzatzea. Planaren jardunbideei jarraitzea eta prozesuan parte hartzen duten Elkarte, profesional edo herritar guztiei eman diren aurrerapauso guztiak jakinaraztea.

Lortu beharko liratekeen Helburuak:

- Euskararen erabilera sustatzea eta herritarrak beren eguneroko bizimoduan eta lan-eginkizunetan euskaraz hitz egitera bultzatzea.
- Helduen euskalduntzea sustatzea Euskara-ikastaroen bidez (doako ikastaroen bidez alternatiba serio bat eskaintzea).
- Euskara eta gai politikoak erabat bereiztea lortzea.
- Herri Administrazioek gehiago erabili behar dute Euskara eta Euskarazko testuak egiteko itzulpen-zerbitzu publiko bat antolatu eta eskaini behar dute
- Hezkuntza-sisteman murgiltze-sistemak porrot egiten du eta ezinezkoa da irakaskuntza guztia Euskaraz egitea.



- Euskararen eta Ikastetxearen arteko lotura dela-eta sortzen diren konotazio txarrak nolabait arintzea, horrek traba egiten baitie gazte askori beren eguneroko bizimoduan eta lagun-taldearekin euskaraz hitz egiteko.

## b. Kirol arloa

### GAI OROKORRAK

Altzak kirola egiteko aukera asko ematen ditu, baina jendeak ez ditu arlo horretan erabil daitezkeen zerbitzuetako asko ezagutzen; informazioa behar bezala ematen ez delako edo informazioa emateko erabiltzen diren bideak egokiak ez direlako gertatzen da hori.

Herri Administrazioek kirol-jarduerak gehiago bultzatu eta baliabide ekonomiko gutxi duten herritarren kirol-jardueretarako dirulaguntzak eman beharko litzukete (adibidez, Adin handikoak, baliabide ekonomiko gutxiko familiak, Denbora Libreko Taldeak, eta abar). Bete beharreko beste premia bat aire zabaleko kirol eremuak antolatzea da (atletismo-, saskibalo- eta patinaje-pistak, futbol-zelaiak...).

Oraingo kirol-instalazioei dagokienez, beharrezko hobekuntzak egin eta kiroldegiko instalazioak egoera onean eduki behar dira: bestalde, lehenetik aurreikusita dagoen bigarren fasea burutu egin behar da (aire zabaleko igerilekuak, futbol-zelaiak).

### GAI ESPEZIFIKOAK

Altzako leku batzuetan ez dago kirola egiteko berriaz antolatutako gunerik; hori gertatzen da, esaterako, Molinaon, Eskalantegin edo Larratxon. Beste leku batzuetan, berriz, eskola-patioak erabiltzen dituzte horretarako. Dena dela, leku horiek estali gabeko eremuak dira, eguraldiaren gorabeheren mende daude eta ezin dira etengabe erabili.

Beste kirol-gune batzuetan *instalazioak hobetu eta kirol ekipamenduak jarri* behar dira. Hala, adibidez, Herrerako Futbol Zelaian, Jolastokieta Pilotalekuan, Herrerako Bolatokian eta Oletako Pilotalekuan.

## c. Hezkuntza, prestakuntza eta lan arloa

Beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, Altzan hezkuntza- eta prestakuntza-arloan dagoen eskaintzari buruzko informazioa emateko garaian arazoak sortzen dira.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileen arteko koordinazioa hobetzea eta bultzatzea. Era horretan, elkarlanerako jardunbide bat ezarri eta helburuak elkarrekin lantzeko aukera izango da. Era berean, oso garrantzitsua da gurasoek hezkuntza-dinamikan partaidetza handiagoa izatea.

Helduen Hezkuntza sustatzea eta erraztea; izan ere, Altzan ikasketa-maila apala duten biztanle asko baitaude.

Hezkuntzarako instalazioei dagokienez, horiek hobetu eta era egokiagoan aprobetxa litezke, dauden guneak partekatuz (Eraikuntzako Institutua). Haurtzaindegietan dagoen plaza-kopurua ez da nahikoa, eta horretarako erabiltzen diren guneak handitu egin behar ko lirateke. Bestalde, esan behar da leku batzuetan, adibidez Herreran, ez dagoela haurtzaindegirik.

Lanbide-orientaziorako zerbitzu bat eskaintzea, gazteei (lehenengo enplegua behar dutenei) edo langabetuei laneratzeko erraztasunak emateko. Autoenplegua dirulaguntzen bidez sustatzea ere alternatiba egokia izan liteke.

Hezkuntza- eta prestakuntza-arloko eskaintza eta lan-merkatuko eskaerak ez datoz bat. Lehen-lehenik azterketa bat egin beharko litzateke, lan-merkatuan nolako eskaerak dauden jakiteko, eta horren ondoren, hezkuntza- eta -prestakuntza arloan eskaera horiei ondo egokitzen zaien eskaintza bat egin beharko litzateke, hezkuntza- eta prestakuntza-arlotik lan-eremura igarotzeko erraztasunak emanez. Ildo horretatik, goimailako eta maila ertaineko prestakuntza-zikloen eskaintza handitu beharko litzateke (adibidez teknologia arloan) eta Lanbide Hastapenertarako Ikastegian ere aukera gehiago eskaini (bigarren mailan graduatua lortzen ez dutenei erantzun egokiagoa emanez eta emakumei eta langabetuei laneratzeko bidea erraztuz).

#### d. Ingurumen arloa

##### BERDEGUNEAK

Arlo honen barruan bi eratako premiak bereiz ditzakegu:

1. *Dauden berdeguneak mantentzea*: zuhaitzak kima-tzea (adib. Molinao Aldean, La Anunciata ikastetxearen ondoan, Oleta), parkeen mantentze- eta zaintze-lanak (adib. Artxipiko Parkea). Arlo honetan oso garrantzitsua da udal arduradunek parte-hartze handiagoa izatea, baina aldi berean, Altzako herritarrek ere ardura handiagoa izan behar lukete, gunehoriek era egokian egon daitezen.
2. *Naturgune berriak sortzea*, eta horien barruan pasiera eta aisialdirako eremuak eta Bidegorriak txertatzea (adib. Lau Haizeta, Arregi).

Begien bista dago Altxa garai bateko *baseri-giroa* gal-tzen ari dela (Altzaren historiari oso lotua egon den baseri-giroa hain zuzen) eta erabat hiritartutako ingurua da gaur egun.

##### ZABORRAK, HIGIENEA ETA KUTSADURA

Birziklatu beharreko gaiak jasotzeko dagozkien edukiontziak erabili ohi dira, eta herritarrek garbi ikusten dute birziklatzea oso garrantzitsua dela. Hala ere, era horretako materialak maizago jaso edo edukiontzi gehiago jarri beharko liriteke eginkizun horretarako. Leku batzuetan (adib. Oletan) horiek jartzeko nahiko tokirik ez dagoenez, edukiontzi batzuk lurpean jartzea komeniko litzateke.

Enpresa partikularrek egindako obrak gehiago kontrolatu beharko liriteke, batez ere zabor-edukiontziak era egokian jaso ahal izateko.

Leku jakin batzuetan (Nerecan, Molinaoko zaborte-gia, San Markos, Herrera) ekintza berezi bat egin beharko litzateke berehala; izan ere, gaur egun leku horietan dagoen higiene-egoera kontuan harturik, osasun-ara-zoak sortzeko arriskua baitago.

Kale-garbiketari dagokionez, modu eraginkorrago-an eta maizago egin beharko litzateke; paperontzi gehiago jarri beharko liriteke, orain daudenak ez baitira nahikoa.

Adineko pertsona eta haur gehien elkartzen diren aisialdi-guneetan *Zerbitzu Publikoak* jarri beharko litzateke.

*Kutsadura akustikoa* eremu guztietan dagoen arazoa da, automobil partikularren eta autobusen zarata etengabea baita. Hartu beharreko beste neurri bat hiriko autobusak modernizatzea litzateke, sortzen duten kutsadura kentzeko.

#### e. Aisialdi eta denbora libreko arloa

Aisialdi eta denbora libreko jarduerak antolatzerakoan sortzen den eta adin-talde guztiei dagokien zailtasun handienetako bat gunehoriek ez izatea da (haurren premietara egokitzen diren materialak eta zoruak dituzten haur-parkeak), jarduerak egiteko lokalak ez izatea, eta horiek aurrera eramateko baliabideak ez izatea (materialak, dirulaguntzak).

Jarduera horietarako gunehoriek falta direnez, gero eta gehiago dira elkarrekin egoteko lokalak akuratzen dituzten gazte-taldeak. *Jarduerak* urte osoan zehar etengabe programatu eta egin behar dira, dagokien adin-taldea kontuan harturik.

*Denbora Libreko* taldeak ugaritzea komeni da, batez ere parrokiekin loturarik izango ez duten taldeak.

#### f. Partaidetza eta elkartegintza arloa

Altxan hainbat arlotan lan egiten duten Elkarte asko daude, baina hala ere ez dago horiek denak koordinatzen dituen erakunde iraunkor bat, prestatzen dituzten proiektuei jarraipena eman eta gerora haien garapena ziurtatu ahal izateko. Alde horretatik, horrelako organo batek elkarte bakoitzak egiten duen lanaren berri eman-go luke, eta horrela zerbitzuak bikoiztea eragotziko luke.

Horri dagokionez, *Herri Administrazioek* ondoko eginkizun hauek bete beharko litzateke:

- Informazio-kanpainen bitartez elkartegintza eta borondatezko lana sustatzea eta bultzatzea
- Elkarteek beren eginkizunak betetzeko izan ditzaketen zailtasunei buruzko aholkularitza tekniko ematea
- Elkartegintzako jarduerak aurrera eramateko udal



guneak uztea edo erabilera anitzeko zentro bat sortzea

- Aldizka antolatzen dituzten jarduerak egiteko lokalak uztea elkarteei
- Klase politikoak Garapen Komunitariorako Planean parte hartzea
- Altzarako proposatzen diren proiektuak egitean Elkarteetan iritziak aztertu eta kontuan hartzea

Dagoen Elkarte-kopuru handia ikusita, esan daiteke partaidetza- eta elkartegintza-maila nahiko handia dela; hala ere, elkarteetako kide ez diren *herritarrek parte hartze handiagoa* izan beharko lukete jarduera batzuk (Garapen Komunitariorako Planak, jaiak, kirol ekitaldiak, eta abar) antolatu eta aurrera eramateko garaian.

Horrez gain, inoiz ez dugu ahaztu behar prozesu honetan Altza dela benetako protagonista, eta alde horretatik, edozein eratako protagonismoa baztertu egin behar da.

## g. Gizarte arloa

Ikusi dugunez, herritarrek nahi dute Erdialdeari ematen zaion tratu berbera ematea Altzari ere, eta Udalak, arlo guztietan baina bereziki gizarte arloan, arazoei gehiago begiratzea eta dirulaguntza handiagoak ematea.

Altzan lan egiten duten *gizarte-eragileak* era koordinatuagoan eta ez hain bakarka jardun beharko lukete; era horretan informazio-trukea arinago eta maizago egingo da. Zerbitzuei, ordutegiari eta kokalekuari buruzko informazioa ez da herritarrengana iristen, gehienetan ez baitute horien berri izaten.

Altzako herritarrek kezka bizia erakutsi dute *gizarte-an eragin handia duten arazo batzuei* dagokienez (delinkuentzia, alkoholismoa, bazterkeria, ijitoak, ludopatiak, gurasoen pentsiotik bizi diren eta gizartearazoak dituzten 35 eta 55 urte bitarteko pertsonak, familia desegituratuak, emakumeak eta abar) eta arazo horiei dagoen jarduketarloan eta batez ere prebentzio arloan egin beharreko lanaz ohartarazi dute.

Arlo horretako alderdi bati bereziki begiraturik, eta *Gizarte Zerbitzuen Oinarriko Unitateari* dagokionez, ondokoa hartu behar da kontuan:

- Dagoen pertsonala ez da nahikoa eta gizarte-laguntzaileengana hurbiltzea ez da beti erreza izaten. Kalean eta eskoletan bertan aritu behar lukete maizago, dirulaguntzak eskatzeko paperak kudeatzen eta bideratzen hainbeste lan hartu gabe, eta bestelako eginkizunetan gehiago jardunez.
- Etxeko laguntza-zerbitzuetan ez dago behar bezalako plangintzarik, eta zerbitzu horiek indartu egin beharko liriteke. Garrantzi handikoa da Gizarte Laguntzaileen eta Etxeko Laguntza Zerbitzuan dihardutenen artean harreman handiagoa izatea eta eskaeriak arinago kudeatzea.

Altzako erkidegoan *adineko pertsona asko* dago, eta pertsona horiek zailtasun ugari dituzte Altzako zerbitzuetara joateko, zerbitzuak sakabanaturik eta elkarrengandik urruti samar baitaude; gainera dauden oztopo arkitektonikoen areagotu egiten dute egoera zail hori. Irtenbideren bat aurkitu beharko litzateke bakarrik bizi diren eta beren etxea utzi nahi ez duten adineko pertsona horientzat. Bestalde, oso egokia litzateke zaharren egoitzaren lanak bizkortzea, geriatriko bat eta Eguneko zentro bat sortzea, eta Zahar Etxea hobetzea. Labur esanda, biztanleriaren sektore horretarako zerbitzuak osatu egin beharko liriteke, eta alde horretatik jasotzen den informazioa modu erraz eta argian idatzita egotea komeni da.

*Osasun Arloan* ere badira kontuan hartu beharreko beste eskakizun batzuk: anbulatorioan jendearen arretarako zerbitzua hobetu eta osatu egin behar da, bai ordutegiari dagokienez eta bai bertan lanean ari den langile-kopuruari dagokionez ere. Altzan jende asko bizi da, baina osasun-arloan langile gutxi dago. Larrialdi-erako zerbitzu ere jarri beharko litzateke.

## h. Hirigintza arloa

### GAI OROKORRAK

Altzak duen arazo handienetako bat aparkaleku-gabezia da; horregatik, sarritan automobilek espaloietan aparkatzen dute, eta traba egiten diote bertatik igarotzen diren oinezkoiei. Altzako leku batzuetan ez dago arazo hori konpontzeko behar adinako azalera duten guneak, eta horretarako antolatutako gune batzuk (adibidez, Nerecan) gutxiegi erabiltzen dira. Kamioientzako aparkalekuak ere antolatu beharko liriteke.

Altzan egiteko dagoen beste lan bat *oztopo arkitektonikoei* buruzko azterketa zorrotza da. Altzak oso orografia gorabeheratsua du, pendiz handiko malda eta eskailera ugari ditu; leku batzuetan ez dago espaloirik edo oso estuak dira, eta gainera tarte batzuetan nahiko hondatuak daude, eta ez dute oinezkoentzako pasabide egokiturik (adib. Txirrita Bertsolariaren eta Larratxo Pasealekuren maldan, auzo-etxearen parean, Herrera); oztopo horiek guztiek elbarrien, adinekoen, haur-kotxeen eta horrelakoen joan-etorriak zaildu egiten dituzte.

*Errepide eta kaleei* dagokienez, ondokoa eskatzen da:

- Zoladura hobetzea
- Bidegurutzetan semaforoak eta trafiko-seinaleak jartzea, semaforo botoidunak
- Abiadura-motelgailuak
- Kaleetako argiteria hobetzea
- Garaje-irteeretan zebrabideak kentzea

*Etxebizitari* dagokionez, etxe-eskaera handia dago, batez ere gazteentzako etxeak, babes ofizialekoak, gizarte-etxebizitzak, alokairu librekoak eta etxe zaharren berrikuntza-lanak.

#### **GAI ESPEZIFIKOAK**

- Oinezkoen eta automobilen sarbideak hobetzea: Herrera, Larratxo, Pasaia.
- Plaza Gorria kirol-gune gisa antolatzea eta Santa Isabelgo Harria estaltzeko irtenbideren bat bilatzea.
- Ikastetxeak eta haurtzaindegia: oro har, instalazioak hobetu egin behar dira. Ikastetxeren batek premia berezi batzuk adierazi zituen. Herreran, adibidez, ibarbidea kirol-gune edo parke bihurtzeko, kirol anitzeko pista estali bat jartzeko, pilotalekua ikastetxeko eta auzoko gimnasioa izateko eta ikastetxeko sarbideak hobetzeko eskatu dute. Anunciata ikastetxeari dagokionez, Altzatik eta Pasai Antxotik erdialdera errazago joateko premia nabarmendu dute.
- Beste gai batzuei dagokienez, Herreran bertan behera utzitako lantegien eremuak antolatu eta bertan etxebizitzak eta plazak eraikitzeko eskatu dute.
- Oletari dagokionez, inguru horrek dituen ezaugarri berezi batzuk aipatu behar dira: espaloi estuak ditu edo batere espaloirik ez, bide estuak, aparkalekugabezia, aldapa handiko eskailerak edo maldak,

auzoarekin komunikatzeko arazoak, gutxieneko garbiketa eta zabor-bilketa, argi nahikorik ez, zuhaitzak bere garaian kimatu gabe, behar adinako polizia zaintzarik ez, kirol-gunerik ez.

#### **i. Beste arlo batzuk**

##### **GARRAIOA**

Donostiako beste eremu batzuekiko lotura hobetzea eta oro har hirigarraioa hobetzea, garraioa modu jarraituagoan egin dadin.

##### **SEGURTASUNA**

- Kaleetan zaintza eta segurtasun handiagoa izatea
- Trafikoa kontrolatzeko udaltzain gehiago jartzea, batez ere ikastetxeetako sarrera eta irteeretan.
- Enpresa partikularrek bide publikoan egindako obrak gehiago kontrolatzea
- Bertan behera utzitako ibilgailuak kentzea
- Konpainiako animaliei buruz indarrean dauden arauak gehiago kontrolatzea, adib. muturrekorik gabe dabilzan txakurrak.

##### **ALTZAREN HISTORIA**

Altzaren historia eta nortasuna ezagutzea eta eza-gutaraztea.

##### **ALTZAREN ETORKIZUNA**

Altza zahartzen ari den auzoa da eta hura modernizatzekeo premia oso nabaria da. Altzak ez du Donostia-ko erdialdean bezalako garapenik izan eta alde horretatik, ugaltzen ari den biztanleriaren eta beharrezko zerbitzu eta ekipamenduen artean egokitze bat egitea eskatzen du bere premiak ondo bete ahal izateko.

##### **INFORMAZIOA**

Udal Administrazioek saiatu egin behar dute Altzan egiten diren jardueri buruzko informazioa dagokion biztanleria-motaren arabera behar bezala egokitzen eta aldi berean, horiei Altzan egiten diren jardueri buruzko informazioa ematen.

Proiektuak egiteko garaian, batez ere hirigintza-arloan, lehendabizi pertsonak hartu behar dira kontuan, eta



ondoren proiektua aurrera eramateko aukeratu den eremu geografikoa.

## V. Altzako profesionalen antzemandako premiak ezagutzea

Erkidego honetan dauden zerbitzuak eta baliabideak garrantzi handikoak dira erkidego horrentzat. Profesionalak, eguneroko lanean sortzen zaizkien zailtasunak eta Altzako herritarrei eskaintzen dieten zerbitzuaren kalitatea hobetzeko egin ditzaketzen hobekuntzak kon-tuan izanik, eta bestalde Altzarentzat mesedegarriak izan daitezkeen prozesu guztietan parte hartzeko inter-resa dutenez, prozesu honetan parte hartzeko erabakia hartu zuten.

### a. Kultura- eta euskara arloa

#### KULTURA

Altzako herritar askok ez dute ezagutzen auzoan dagoen kulturaeskaintza. Hori kon-tuan izanik, ikastaro eta jarduerari buruzko informazioa emateko modua aldatu beharko litzateke, batez ere gazteei ematen zaien *informazioari* dagokionez.

Era berean, kultur erakundeen eta elkarleen artean ez dago informazio-truke handirik. Kultur jarduerak egi-ten dituzten talde horien artean elkarlana sustatu beharko litzateke, era horretan dauden kultur baliabide-ak eta plataformak hobeto aprobetxatzeko.

Jarduerak antolatu eta garatzeko garaian oso kon-tuan hartu behar da zein adin-talderi dagozkion, eta alde zuzenetik dagoen eskaerari buruzko azterketa egin. Adibidez: Altzako jaiak gehienbat haur eta helduentzat antolatuta daude, eta gazteak kanpoan geratzen dira.

Lokal handi batzuk antolatu beharko lirateke antzer-kia, zinema eta musika-eskolako jarduerak egin ahal izateko.

Leku batzuetan, adibidez Herreran, Kultur Etxeak handik urruti daudenez, lokal batzuk egokitu beharko lirateke kultur jarduerak bertan egin ahal izateko.

#### EUSKARA

Auzoan egiten ari den "Bai Euskarari" Euskararen Plan Estrategikoa aurrera bultzatu beharra dago, pro-posatu diren helburuak lortu ahal izateko.

Bete nahi diren helburuen artean honako hauek daude: haurren, gazteen eta helduen artean *Euskara gizarteratzea*, hau da, Euskararen erabilera "kalean" eta hezkuntza-zentroetan sustatzea. Gazteek euskara erabiltzeari uko egiten diote ikastetxearekin identifikatzen dutelako, eta lagun-taldeek normalean gaztelaniaz hitz egiten dute.

Profesionalak beren zerbitzuak bi hizkuntzetan eskaintzeko ahalegina egin arren, zailtasunak izaten dituzte Euskarazko taldeak osatzeko (adib. Teknologia Berrien Zentroa).

### b. Kirol arloa

#### GAI OROKORRAK

Herritar gehienek eskatu dute kiroldegia bigarren faseari hasiera emateko, egin beharreko berrikuntzak egiteko eta kiroldegian era egokian mantentzeko.

*Aire zabalean kirol-gunerik ez dagoenez* (hori ere eskatu dute), alternatiba gisa ikastetxeetako patioak erabiltzea proposatu da, asteburuetan nahi duenak era-bil ditzan.

*Nerabeen artean kirola sustatzea* ikastetxeen eta denbora libreko taldeen artean txapelketak antolatuz eta kirol alternatiboak eskainiz (adibidez, Skatea: Skate Park bat eraikitzea) horrelako jarduerak oso erakarga-riak baitira gazteentzat.

#### GAI ESPEZIFIKOAK

- Herrera: Herrerako B.B.P.Baren hasierako Planean ikastetxearen ekialdeko mazelan dagoen ibarbiderako proiektu bat agertzen zen (kirol-gunea, parkea...) nahiz eta gerora ez den hain argi zehaztu. Kirol anitze-ko pista modu jarraituan aprobetxatu ahal izateko,



estalia izan beharko luke eta pilotalekurako aurreikusita zegoen gunean gimnasio bat egin liteke ikastetxearentzat eta auzorako.

### c. Hezkuntza, prestakuntza eta lan arloa

Gazteen artean nabarmentzen hasia den eskola-porrotari erantzun eta irtenbide egokia ematea da arlo honetan etengabe agertu den eskakizunetako bat. Hain zuzen ere, badira egoera hori erakusten diguten aztar-na batzuk; ikasteko gogorik eza, gazteek etorkizunari begira itxaropen gutxi izatea, eta berehala lanean has-teko gogoia izatea; ezaugarri horiek ikasketei buruz duten jarreraren adierazgarri dira. Egoera horren ondorioz, gazte askok ez dituzte beren ikasketak amaitzen eta LHren aurreko ikasketetara jotzen dituzte edo ikas-keta-prestakuntzarako ibilbide laburragoak aukeratzen dituzte.

*Prestakuntza eta lanerako orientazio-baliabideak* nahiko hurbil edukitzeak ikasketak amaitzen eta lan-irtenbideren bat bilatzen lagunduko lieke, eta aldi bere-an, langabetuak laneratzea erraztuko luke.

*Ikastetxeetako instalazioei* dagokienez, hobekuntza batzuk egin behar dira; bestalde, Herreran haurtzainde-gi publiko bat jarri eta lehendik dauden haurtzaindegie-tan plaza-kopurua handitu beharko litzateke.

### d. Ingurumen arloa

#### GAI OROKORRAK

Egin beharreko lehenengo ekintzetako bat hauxe izango da: herritarrak oro har, eta haurrak eta gazteak bereziki, *berdeguneak zaindu eta babestu beharraz* kontzientziatzea. Bestalde, Altzako auzo gainpopula-tuak orekatzeko egokia izan liteke parke berriak sor-tzea, orain dauden zuhaitzak eta landaredia bere horre-tan utzita (adib., Larratxo Parkea).

Altzako leku batzuetan ez dago behar adina birzikla-pen-edukiontzi.

#### GAI ESPEZIFIKOAK

- La Anunciata ikastetxea: Paperontziak eta garbita-suna falta dira. Arteak dauden ingurua garbitu eta

zaintzea (hondakinak, sasiak, zaborra, arratoiak...)

- Herrera: Kutsadura akustiko handiari konponbidea ematea eta usain txarrak ur-saneamenduaren eta kolektoreen bidez kentzea
- Arri Berri Ikastetxea eta Oleta Ikastetxea: Patioetan eta eskola-inguruetan garbitasun handiagoa izan behar dute

### e. Aisialdia eta denbora librea

#### GAI OROKORRAK

Egiten den lana oso onuragarria den arren, Altzak bere esku dituen *baliabide normalizatu*etan moldaketa batzuk egin beharko lirateke: aire zabaleko jarduerak sustatu (batez ere haurrentzat), gazteen zaletasunen araberako jarduerak antolatu (kontzertuak, kirolak, era-kusketak...).

Hamahiru urtetik gorako gazteentzat baliabide gutxi daude auzoan eta hori kontuan izanik giza baliabideak eta bitarteko materialak (dirulaguntzak) hobeto antolatu eta gehitzeko ahalegina egin beharko litzateke. *Gazte-en topalekuak* (adib. Gaztelekua) eta haurren jolas-par-keak sortzeko aukerak erraztu beharko lirateke. Gazte-ek egunetik egunera lokal gehiago alokatzen dituztenez, gune horiek sortzeak irtenbide bat eskain diezaike.

Aisialdiari dagokionez "Auditz-Akular parkea: Aisial-di eta Osasunerako Parkea" eta hezkuntza eta presta-kuntzako taldeentzako aterpetxe bat oso alternatiba egokiak izan litezke.

#### GAI ESPEZIFIKOAK

- Herrera: ez dute lokalik Denbora libreko taldeentzat

### f. Partaidetza eta elkartegintza arloa

Oso garrantzitsua da elkarreentako kide diren pertso-nen eta elkarteetan ez dauden pertsonen eta/edo pro-fesionalen *partaidetza* sustatzea. Aldi berean, Elkarteetako kide guztiek partaidetza handiagoa izatea komeniko litzateke, era horretan lana ez da beti perso-na gutxi batzuen gain utziko; izan ere, gutxi batzuk iza-ten dira, beraiek bakarrik eta denbora luzean proiektuak aurrera eramateko ardura bere gain hartzen dutenak.





Era berean, lortu nahi dugun beste helburu bat *gazteei proiektu desberdinetan parte hartzeko gogoia piztea* da. Eta, aldi berean, Jaietan, desfileetan eta kirol ekitaldietan partaidetza handiagoa izan dezatela.

Elkarteetan egiten den lanari buruzko *informazio eguneratua* eman behar zaie herritarrei. Erakunde ofizialek era guztietako elkarten artean topaketak egiteko erraztasunak eman behar dituzte, elkarrekin lan egiteko zer aukera dituzten jakin ahal izateko. Eginkizun horretarako sortuko litzatekeen erakundea kasu jakin batzuetan ez baizik etengabe arituko litzateke lanean elkarte guztien mesedetan.

Azterketa egin den beste jarduketa-arloetan behin eta berriro agertu den beste eskakizun bat dirulaguntzei dagokiena da: dirulaguntza handiagoak eskatu dira.

#### g. Gizarte arloa

Gizarte- eta osasun-arloko zerbitzuei buruzko *informazioa* ematea (ordutegiak, kokalekuak, gizarte-eskubideak...) horien hartzaile eta/edo erabiltzaile diren guztiei. Ildo beretik, gizarte-eragileen arteko *koordinazioa* sustatzea oso egokia litzateke egin beharreko lana errazteko. Horrez gain, herritarrek nahi dute banketxeek Altzan egiten diren proiektuak babesteko dirulaguntza handiagoak ematea.

Bestalde, herritarrak nahiko kezkatuak daude irten-biderik ematen ez zaien eta *gizartean eragin nabaria duten* gai batzuen inguruan; Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitariorako Plana; Iberoamerikako eta Afrikako etorkinen artean gero eta handiagoa den bazterkeria-egoera; pasadizoko jende-kopuru handia (oraingo bizilagunen senitartekoak): lapurreta txikiak egiten dituzten ijito gazteak: txoko ilunetan agertzen diren xiringak;...

Herritarren ustez, GLUn egiten den lana oso burokratiko da, adinekoen eta adingabeen dirulaguntzak bideratzen lan asko egiten da, baina gainerako biztanleriaren arazoak alde batera utzi ohi dira. GLUren, ikastetxeen eta gainerako gizarte-eragileen arteko koordinazio handiagoa izatea oso mesedegarria izango litzateke denentzat, ahaleginak batu eta emaitza hobekak lortuko bailirateke.

*Adinekoei* eskaini beharreko arretak ere kezka sorrarazten du; Eguneko Zentroak eta Egoitzak egitea eta Berra-ren eraikuntza-lanak bizkortzea nahi dute.

*Osasun arloari* dagokionez, esan behar da jendeak behar baino gehiagotan erabiltzen duela zerbitzu hori. Anbulatorioan larrialdietarako eta ginekologiako zerbitzuak jartzeko eskatu dute, eta Adimen Osasunerako unitate bat ere bai.

#### h. Hirigintza arloa

##### GAI OROKORRAK

Altzako *urbanizazioa* zentzuz eta gaur arte egindakoa kontuan harturik egin behar da. Lan hori ondo egiteko komeni da eraikuntzen alderdi estetikoaren zaintzea, denbora-pasa eta aisialdirako guneak sortzea eta zerbitzuen hazkundea eta biztanleriaren hazkundea batera joatea.

Bideratu beharreko beste gai bat *Auditx-Akular-ena* da. Bi aukera ditugu eremu horretan: etxebizitzak eraikitzea edo Aisialdi eta Osasunerako Parkea egitea.

Etxebizitzaren eskaerari dagokionez, hainbat alternatiba proposatu dira: pisu itxiak erabiltzea eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea.

Kontuan hartu dira, halaber, Aspaldiko eraikinetan egin beharreko berrikuntzak, edo igogailuak jartzeko dirulaguntzak, batez ere adineko pertsonentzat, egunetik egunera gehiago baitira adinekoak. Adinekoei dagokionez, biztanleriaren sektore horrek zahar-etxeetan hobekuntzak egiteko eskatu du.

Hain inguru aldapatsua izanik, Altzan maldak eta eskailerak egin beharrean aurkitu ziren, eta horiek oztopo arkitektoniko bihurtu dira mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, leku batetik bestera joateko eragozpenak izaten baitituzte. Tarte batzuetan ez dago espaloirik, eta espaloi batzuk nahiko egoera txarrean daude, eta horrek denak zaildu egiten du oinezkoen joan-etorria.

Gaur egun, familia-unitateetan ohikoa da ibilgailu bat baino gehiago izatea. Horren ondorioz, aparkalekuen arazoa gero eta larriagoa da. Gaur egun daudenak ez dira nahikoa eta beste gune batzuk bilatu behar dira eginkizun horretarako.

Bestalde, oso komenigarria litzateke ekitaldi publikoetarako erabiltzen diren zentroak non dauden ondo eta argi adieraztea seinale batzuen bidez (adib.: Kultur Etxea, Auzo Etxea...): eta trafiko-seinale gehiago jartzeari, batez ere arrisku handiena duten lekuetan.

#### GAI ESPEZIFIKOAK

- Herrera: Herrerako B.B.P.B., Herrerako bizilagunekin hitzartuta, Herrera berriro hirizartzea eta inguru horretan bertan behera utzitako lantegiak etxebizitza, plaza eta lorategiak egiteko erabiltzea.
- La Anunciata Ikastetxea: Ikastetxerako sarrera egokitzea eta Altzako eskaileretan argi gehiago jartzea.
- Oleta Ikastetxe Publikoa eta Arri Berri Ikastetxea: mantentzelanak eta egin beharreko obrak egitea.

#### i. Beste arlo batzuk

*Udaltzain-kopurua* handitzea eta haien presentzia areagotzea. Era berean ikastetxeetako sarrera-irteeretan eta inguruetan udaltzainak maizago ibiltzea nahi dute.

*Herri Administrazioei* dagokienez, Udaleko sailek parte-hartze handiagoa izan behar lukete lan komunitarioan.

Azkenik, lokal publikoetan ekitaldi irekiak antolatze-ko baimena eta erraztasunak eman beharko lirateke.

## VI. Altzako gazteen premiak ezagutzea

Premiak aurkitzeko prozesu honetan, ezin genuen noski Altzako gazteen iritzia alde batera utzi. Gazte-multzoko baten iritzia eta izaten dituzten zailtasunak jaso ditugu. Horretarako, 12 eta 18 urte bitarteko adin-taldek aukeratu eta hainbat bilera egin ditugu.

Horri dagokionez, esan behar da gazteei oso ondo iruditu zaiela beraiei prozesu horretan parte hartzeko aukera eman izana, baina aldi berean, zerbait lortuko ote duten zalantza egiten dute.

#### a. Kultura eta euskara arloa

##### KULTURA

##### 1. Auzo Etxea:

Oztopo arkitektonikoak (adib. aldapak, eskailerak) eta Altzako eremu desberdinen arteko distantziak direla-eta, Auzo Etxetik urrutien dauden eremuetako gazteak ez dira bertan antolatzen diren ikastaro edo zerbitzuetara joaten.

Auzo Etxetik hurbil bizi diren gazteek bertan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzen dituzte: liburutegira joaten dira etxeko lanak eta kontsultak egitera. Larratxo.net zerbitzuaz baliatzen dira, ikastaroren bat egiteko eta /edo ordenagailuak erailtzeko (ez zaie batere ondo iruditzen Txat-a erabili ezin izatea eta denbora mugatua izatea). Lehenago erabileran anitzeko aretoetan beren gauzak egiteko aukera izaten zuten, baina orain ez zaie aukera hori ematen.

##### 2. Kultur Etxea:

Era berean, Kultur Etxearen inguruan bizi diren gazteek gehiago erabiltzen dute zerbitzu hori, eta gainera Auzo Etxeko zerbitzu bertsuak erabiltzen dituzte horretan ere; liburutegia ikasteko eta ordenagailuak Internet bidez nabigatzeko.

##### 3. Jarduerak:

Udalaren kultur jardueren eskaintza gazteen interesetara egokitu beharko litzateke, eta horretarako behar diren jarduerak antolatu: udan kaleko zinema, musika modernoko kontzertuak (Rap, Hip Hop...) dantza- eta musika- ikastaroak eta musika (DJ, Break Dance, Hip Hop...).

##### 4. Jaiak:

Altzako jaiak dagokienez, gaztentzat jarduera gehiago antolatzeke eskatu dute, adibidez, ikuskizun eta musika gehiago, dantza-mota desberdinak (latinoa, modernoa...) gaueko ekitaldiak beranduago arte...

##### EUSKARA

Gehienetan lagun-taldearen barruan ez dute euskaraz hitz egiten: Euskara ikastetxearekin lotzen dute.



## b. Kirol arloa

Gazteek emandako erantzunen arabera, gutxi dira kirolen bat maiztasunez egiten dutenak eta egiten dituztenak gehienbat Kaleko Hezitzaileen jarduerak eta ikas-tetxeetakoak izaten dira.

Altzan dauden kirol instalazioei dagokienez, esan behar da nahikoak direla, aire zabaleko igerilekuak bakanrik falta dira. Altzako gazte askok oso gustuko duten kirol bat Skate-a da; hala ere, ez dago kirol hori egiteko leku aproposik.

Gazteei gehien gustatzen zaizkien kirolak dira: surfa, smowa, tirolina, zubi-saltoa, saskibaloia, igeriketa, dantza, futbola,...

## c. Hezkuntza, prestakuntza eta lan arloa

### HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Instititutuko instalazioetan hobekuntzak eta berrikuntzak egin behar dira: leihoak, pertsianak, gimnasioa...

Adierazi dutenez, irakasleen eta ikasleen arteko adin-tarteak beraien arteko harremanak zailtzen ditu.

### LANA

Lanean hasteko aukerari dagokionez iruditzen zaie oso kontu zaila dela hori, gaur egun langabezia handia dagoelako.

## d. Ingurumen arloa

Oso egokia eta garrantzitsua iruditzen zaie berdeguneak izatea eta horiek behar bezala zaintzea (Auditza Akularko parkea), Larratxo Parkearen antzeko proiektu gehiago antolatu beharko lirarteke.

Birziklatzearen kulturen sinisten dute eta hori aurrera eramaten saiatzen dira (familiako ohiturak); pilak jasotzeko jarritako edukiontzia ez dira nahikoak.

## e. Aisialdia eta denbora libre

Denbora Libreko taldeetan eta Kaleko Hezitzaileekin batera lan egiten dute, baina horien orduetegiak zabalagoa izan beharko luke.

Guztiak adierazi dute gazteentzako guneak edo lokalak sortzea komeni dela, interesatzen zaizkien jarduerak egin ahal izateko. Altzako zerbitzuen esparruan, interesatzen zaizkien zerbitzu batzuk falta dira; jolas-aretoak, nerabeentzako diskotekak... Horregatik, aste barruan Altzan ibiltzen dira baina asteburuetan Donostiako Erdialdera jaisten dira.

Bestalde, Altzan egiten diren denbora libreko eskaintzei buruzko informazioa falta zaie.

## f. Partaidetza eta elkartegintza arloa

Arlo honi dagokionez ez da inolako ekarpenik egin.

## g. Gizarte arloa

Kaleko Hezitzaileek egiten duten lana eta haiekin egiten dituzten jarduerak oso egokiak iruditzen zaizkie.

Minusbalotasunaren bat duten pertsonak gainditu behar izaten dituzten oztopo arkitektonikoen gaia kezagarria iruditzen zaie eta irtenbideren bat bilatu beharko litzatekeela uste dute.

## h. Hirigintza arloa

Altzak dituen arazo nagusiak hauek dira:

- Aparkalekuak falta dira
- Topalekuak falta dira (plaza, pasealeku, bidegorri gutxi )
- Tarte batzuetan espaloiak oso estuak dira
- Ez dago behar hainbat semaforo
- Errepideetako zoladurak konpondu behar dira

## i. Beste arlo batzuk

Ez da beste inolako ekarpenik egin.

## VII. Altzako Garapen Komunitarioko Planari jarraipena emateko proposamenak

**Aurkezten dugun Premien Diagnostikoa, sarreran esan dugun moduan, Elkartek, profesionalak eta gazteek emandako iritziak zorrotz errespetatuz egin da.**

**Nolanahi ere, Altzako talde batzuen laguntza eta partaidetzari esker egin dugun Diagnostiko hau ezin da iritzi horien azalpena bakarrik mugatu. Hain zuzen ere, dokumentu hau ez da berez helburua, abiapuntua baizik.**

Dena dela, dokumentu honetan agertzen diren alderdi orokor batzuk azpimarratu beharko genituzke, Garapen Komunitariorako Planaren proposamenak zehazten hasi aurretik.

LEHENIK ETA BEHIN, DOKUMENTUAN BEHIN ETA BERRIZ AIPATZEN DEN KOORDINAZIO FALTA NABARMENDU BEHAR DA. MODU INPLIZITUAN BADA ERE, TALDEAK ALTZAN EGITEN DIREN JARDUKETA DESBERDINAK KOORDINATU BEHAR DIRA ESKATZEN ARI DIRA.

Etengabe egiten den beste eskaera bat udal zerbitzuen deszentralizatzea eta altzako komunitatera hurbiltzea da.

Bestalde, informazio-falta nabarmena sumatzen da hainbat arlotan. Alde horretatik, deigarria gertatzen da kasu batzuetan herritarrek eskaintzen zaizkien edo erabil ditzaketen baliabideen berri ez izatea; ildo horretatik, batzuetan lehendik ezarrita zerbitzuak eskatu dituzte.

Beste gai batzuei dagokienez, esan behar da oro har herritarrek baliabide gehiago eskatzen dituztela, nahiz eta eskaeretan tarteka kontraesan batzuk agertu. Dokumentuan, garbi asko ikus daitekeenez, badira kontraesanak; adibidez, batzuetan herritarrek zerbaite-

tarako guneak eskatzen dituzte, baina jarraian adierazten dute dauden guneak gutxiegia erabiltzen direla.

Bestalde argi utzi behar dugu Diagnostiko honetan agertzen diren eskaeretako batzuk udal eskumenetatik kanpo daudela; dena dela, horiei laguntzeko neurri batzuk hartzeko aukera azter liteke, era horretan, Altzaren eta Udalaren arteko harremanak areagotu eta arazo gehiagori irtenbidea emateko bidea zabalduko balitzateke.

**Altzako Garapen Komunitarioko Planaren Taldeak orri hauetan egiten dituen ekarpenak pres-tatzerakoan oso kontuan hartu ditu, batetik, Elkarteen, profesionalen eta gazteen iritziak, eta bestetik Udalak berak egindako ekarpenak. Era berean, komeni da gogoraraztea hemen egiten diren proposamen guztiak irekiak direla erabat: beraz, egokiak diren beste gainerako ekarpenak jasotzeko prest dago.**

Altzako Garapen Komunitariorako Planaren zentzua gogorazti nahian, haren helburuak nagusiak azalduko ditugu jarraian:

- Altzako herritarrek parte-hartze handiagoa izan dezatela lortzea, eta partaidetza hori beren bizi-kalitatearen mesederako izan dadila.
- Altzako elkartek harremanak errazago eta maizago izateko aukera ematea.
- Udalak, politika- eta teknika-arloan partaidetzazko demokraziaren baliabideak bere gain har ditzala lortzea, eta horrez gainera, udal jarduketan artean koordinazio handiagoa lortzea, gauzatu beharreko proiektua orokorra eta integratua izan dadin.

Kapituluaurren aurkezpena egin ondoren, proposamen zehatzak azalduko ditugu.

### **a. Altzako Garapen Komunitarioko Plana bultzatuko duen Batzorde edo Kontseilu bat sortzea**

Elkarteen, Profesionalen, Udala eta Garapen Komunitariorako Planeko Taldearen kezka nagusietako bat, haren jarraipena ahalbidetu eta bermatuko duen tresnaren bat antolatzea da.



Alde horretatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu Planari egitura iraunkor bat ematea, aurrera begira jarraipena izan dezan. Egitura horri Batzorde edo Kontseilu deitu diogu, eta Altzako egoeraren neurgailu moduko bat izango da.

Batzorde hori, bidezkoa eta arrazoizkoa denez, Donostiako Udalaren eta Altzako komunitatearen ordezkariak osatuko dute.

### **a.1. Batzordearen osaera**

Batzordeak bi hilean behin egingo du bilera, eta ondoko kideek osatuko dute:

- Udalaren ordezkari politiko eta teknikoa (Auzoen eta Herritarren Partaidetza Bulegoa)
- Altzako Elkarteen ordezkariak
- Profesionalen ordezkariak
- Partikularren ordezkari bat
- Garapen Komunitariorako Taldeko kide bat

Ohiko bilerez gainera, Batzordeko kideetakoren batek hala eskatzen duenean, ez-ohiko bilera egingo da.

### **a.2. Eginkizunak**

Gure ustez Batzorde horrek errealitatea ondo ezagutu eta gertatzen diren kasuak arretaz aztertu behar ditu, arrazoizko irtenbideak bilatzeko eta, ahal badu, neurriak alde aurretik hartzeko.

Eginkizun hauek ditu:

- Planaren jarraipena egitea.
- Eman beharreko pausoak koordinatu eta zehaztea.
- Jarduketarako proposamen berriak aurkeztea eta Batzordearentzat berarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak proposatzea.
- Aurreikusitako jarduketak burutuko direla ziurtatzea.
- Jarduketan etengabeko jarraipena egitea.

### **a.3. Batzordearen Jardunbideak**

Gure ustez, Planeko Taldearen ikuspegitik, Batzordeak oso kontuan hartu beharko litzuzke jardunbide jakin batzuk bere lana egiterakoan. Horretarako, uste dugu funtsezkoa dela Batzordeak ondoko arlo hauek sustatzea:

#### **a.3.1 Azterketak**

Ondoko gaietako buruzko azterketak: drogak, bazterketa, ijitoak, ludatopiak, familia desegituratuak eta/edo emakumeak.

Arlo horretan bereziki bi gairi buruzko azterketa egiteko proposatu da. Alde batetik, 35 eta 55 urte bitarteko adina izan eta gurasoen pentsiotik bizi diren seme-alaben eta horien gurasoen egoerari buruzko azterketa, batzuek arazo sozialak sor ditzaketelako eta besteek familiaren barruan jazarpen jasan dezaketelako. Bestalde, GGDaren hartzailen egoerak ere aztertu beharoko lirateke, pertsona horiek oso egoera ekonomiko txarra edukitzeaz gainera, bestelako gabeziak ere izaten dituztelako.

Lan-arloari dagokionez egiten diren eskaerak identifikatu eta zehazteko azterketa bat egingea, hezkuntza- eta prestakuntza-arloan behar bezalako eskaintza egin ahal izateko.

#### **a.3.2 Prestakuntza**

Prestakuntza-arloan ere jardunbide egoki bat antolatu behar da.

Ikusi denez, Elkarrekin gai jakin batzuetan bide berriak egiteko prestakuntza orokor edo bereziaren premia izan dezakete, eta alde horretatik komeniko litzateke Batzordeak prestakuntza hori antolatu eta sustatzeko ardura bere gain hartzea, betiere era sistematizatuan eta puntualki jardun gabe.

#### **a.3.3 Altzako Udal Bulegoan eduki gehiago eskaintzea**

Altzan dauden eskaerak eta lehentasunak jakinaraztea, Udal Bulegoarekin batera deszen-

tralizaturiko jarduketa bati begira.

Diagnostikoak erakusten duenez, era askotako gaietarako buruzko informazio-eskaerak egin dira. Horri dagokionez, uste dugu Udal Bulegoan eduki gehiago eskaini beharko liratekeela, Altzako herritarrek zerbitzu hori hobeto erabiltzeko modua izan dezaten.

Altzako Udal Bulegoa ondo berrantolatzeko herritarrentzako informazio-kanpaina bat egin beharko litzateke, Bulego horren eskumenak argiro adieraziz.

#### **a.3.4 Harremanetarako sarea, Garapen Komunitariorako beste Plan batzuk ezagutzea eta hainbat Forotan parte hartzea**

Oso garrantzitsua da harremanetarako sare bat ezartzea, gaur egun egiten ari den lanaren ildotik, Garapen Komunitariorako beste Plan batzuekin eta gai horretan adituak direnekin batera lanean aritzeko.

Bestalde, besteen esperientziak ezagutzea bezain garrantzitsua da Altzakoak ezagutaraztea. Alde horretatik, ezinbestekoa da Foro desberdinetan parte hartzea eta era horretako Foroa antolatzea, Garapen Komunitariorako Planaren alderdi ugariak ezagutarazteko eta horietan behar bezala sakontzeko.

### **b. Lan-taldeak sortzea**

Batzordearen ardurapean eta berarekin koordinaturik jardungo duten lan-talde batzuk sortu behar dira, Premien Diagnostikoan agertu diren gaiak lantzeko; dena dela, gerora agertzen diren bestelako gaiak ere landu ahal izango dira.

Detektaturiko premiei dagokienez lehentasun batzuk ezarri behar dira; era horretan, lan-taldeak landu beharreko gaien arabera antolatu ahal izango dira, eta ez beti Elkartearen arabera, eta talde heterogeneoak elkartzea lortuko da, ikusmolde eta jarrera desberdina baina helburu berbera izango dutenak.

### **b.1. Adierazitako premiak kontuan izanik, lan-taldeak egiteko egokiak izan daitezkeen arloak**

Premien Diagnostikoan jaso eta aurreko lerroetan adierazi den informazioaren arabera, jarraian detektaturiko premiak azalduko ditugu laburzki, arloen arabera sailkatuta:

Lan-taldeak bi eginkizun nagusi dituzte. Batetik, uste dugu beharbeharrezkoa dela gaiak ondo aztertu eta ezagutzea, eta gainera iruditzen zaigu pertsonak Elkartearen arabera ez baina gaien arabera antolatzea oso aberasgarria izan daitekeela Elkartearen dinamikarentzat. Hala ere, guk zerbaite gehiago egin nahi genuke, epe luzera begira behintzat, eta alde horretatik ondokoa proposatzen dugu: lan-talde horiek une jakin batzuetan Donostiako Udaleko teknikariek batera lan egiteko aukera izan dezatela, konponbideak elkarrekin bilatzeko.

Gure ustez, orain arte batere ohikoa izan ez den dinamika hori bat dator erabat, gizarteak partaidetzako demokrazia baten barruan parte-hartze handiagoa izan beharko lukeela dioten politikari eta herritarren eskaerarekin.

Hala ere, hain bakarturik eta halako eszeptizismoz bizi garen gizarte honetan, herritarrak dinamizatzea ez da batere gauza erraza. Herritarrei zerbaite tarako gogoia piztea egin beharreko lana da eta hori aurrera eramateko proiektu egokiak prestatu behar dira, emaitza onez gainera herritarrari balio-tsua dela erakutsiko dioten proiektuak hain zuzen.

Beraz, aipa dezagun orain Altzako erkidegoak adierazitako premiak zein arlotan gauzatuko diren. Aurrerantzean, erkidegoa bera izango da, premiak ikusi ondoren, lan-taldeak osatu eta premia horien inguruan lan egiteko ardura hartuko duena.

#### **b.1.1. Kultura eta Euskara**

Kulturaren esparruan guneak handitu eta lokal berriak aurkitzeko premia nabarmendu da; era berean, udal zerbitzuek kultur eskaintza berri bat egin behar dute, batez ere gazteei zuzendua, haien nahiak eta zaletasunak kontuan hartuta.



Horrez gainera, komunikazio eta informaziorako bide egokiago batzuk antolatu beharko lirateke kultur eskaintzaren berri emateko, eta aldi berean, kultur jarduerak egiten dituzten erakundeen artean koordinazio handiagoa sustatzea komeniko litzateke, une honetan dauden kultur plataformak erabiliz.

Aldi berean, kultur jarduerak egiteko dauden ekonomi baliabide urriak handitzea oso premiazkoa da.

Euskarari dagokionez, funtsean Euskara sustatzeko neurriak bultzatu beharko lirateke, euskara eskolan derrigor ikasi beharreko gaia bakarrik izan ez dadin eta kalean gehiago erabil dezaten.

#### **b.1.2. Kirol Arloa**

Dagoen eskaintza ez da nahikoa eta kiroldegiaren bigarren faseari ekitea komeniko litzateke. Hala ere, informazio gehiago eta hobea ematea komeni da, herritarrek gaur egun eskura dituzten kirol-aukera guztiak erabil ditzaten.

Talde jakin batzuek (nerabeek, gazteek, helduek...) kirolen bat egiteko beharrezko laguntza bereziak antolatu eta ematea, eta horrez gainera, aire zabalean kirol guneak sortzea eta orain dauden instalazioak hobeto mantentzea.

#### **b.1.3. Hezkuntza, Prestakuntza eta Lan Arloa**

Altzako herritarrei hezkuntza- eta prestakuntza-erlako eskaintzaren inguruko informazioa emateko zailtasunak daude. Bestalde, instalazioen mantentze-lana hobetzeko eta hezkuntzarako instalazioak errazago erabili ahal izateko premia ere kontuan hartu behar da.

Gizarte- eta hezkuntza-gaietan diharduten gizarte-eragileen arteko koordinazioa handitu eta Helduen Hezkuntza bultzatu behar da. Eskolaporrota, adibidez, oso kontuan hartu beharreko arazoa da Altzako herritarrentzat, eta alde horretatik, aurrerantzean ere arazo horri irtenbidea emateko baliabideak eta dinamikak bultzatu behar dira.

Prestakuntza eta lanerako orientazio-zerbitzu bat sortu beharko litzateke, hezkuntza- eta prestakuntza-erlako eskaintza eta lan-merkatuko eskaerak ondo ezagutu eta baliatu ahal izateko.

#### **b.1.4. Ingurumen Arloa**

Berdeguneei dagokienez, orain daudenak zaindu eta beste batzuk sortu beharko lirateke, baina Altzaren berezko landa-ingurunea errespetatuz.

Zaborren eta Higienearen atalari dagokionez, birziklatu beharreko gaietarako edukiontzi gehiago jarri behar dira; era berean, kaleak maizago garbitu eta kutsadura akustikoa kontrolatu egin behar da. Nolanahi ere, herritarrek adierazitako premia guztien artean, inguru jakin batzuetako (Nerecan, Molinao, San Markos, Herrera) osasungarritasuna berrekuratzea litzateke garrantzitsua.

#### **b.1.5. Aisialdi eta Denbora Librea**

Elkarteek eta gazteek aho batez adierazi dute arlo horri berez dagozkion jarduerak egiteko beharrezko eremuak, topalekuak, lokalak eta baliabideak falta direla.

“Auditz-Akular: Aisialdi eta Osasunerako Parkea” delakoa eta taldeen bizikidetzarako aterpetxe bat oso alternatiba egokiak izan litezke aisialdirako.

Jarduerak antolatzen eta egiten jarraitu behar da, eskaintza jaso behar duten taldeak kontuan hartuz eta Altzan egiten denari buruz informazio gehiago emanez.

#### **b.1.6. Partaidetza eta Elkartegintza Arloa**

Garbi ikusi denez, Altzan Elkarte ugari dago, baina hala ere, horiek denak koordinatu, prestatzen dituzten proiektuei jarraipena eta egonkortasun ekonomiko eman eta gerora haien garrantzia ziurtatzeko erakunde iraunkor bat sortzea komeni da.





*ren, behar bezalako hausnarketa egin eta aurkeztutako eskaerei erantzuteko egokiera izango dugu; gainera, gogoz helduko diogu Altzako Garapen Komunitariorako Plana aurrera bultzatzeko erronkari, horren helburua herritarren guztien bizi-kalitatea hobetzea baita, denon partaidetza eta ahaleginari esker.*

# 7

## Altzako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko aurrerapen dokumentua

### I. Mugapena

Altza hiriaren Ekialdean dagoen lurralde baten izena da. Garai batean udalerrri independentea izan zen eta bi herrigune zituen: bata, San Martzial parrokia buru duen muinoan eta, bestea, Herreran.

Auzoa A-8 autobidetik haratago zabaltzen da, baina une honetan arreta jarrita dago batez ere kokapen hauean: Pasaia badiaren eta aipatutako autobidean (bi muturretan); bestetik, Herrerako sailhesbidean; eta, azkenik, Pasaia sailhesbidean, eta udalerrri horren mugan bertan, Pasai Antxon hain zuzen ere. Dena den, mutur batean edo bestean -**Garbera, Esnabide, Don Bosco, Las Mercedes** etab.- arreta-guneak eremu hori gairatu egiten du.

Hori da, hain zuzen, Aurrerapen honen proposamen multzoa kokatzen den auzoaren hiri-eremua. Proposamenetan sartzen dira, alde batetik, uneko inguruenaren sendotzea eta, bestetik, beste eremu batzuetara hedatzea, era askotako bi ekintzaren arabera. Horietako batzuen bidez, hiri-hutsuneak beteko dira. Beste batzuek, berriz, garapen berriak osatuko dituzte, oraingo hiri-mugak hedatuz.

Edonola ere, Aurrerapen honetan adierazitako alternatiba batzuek irekita uzten dute aipatutako esparruko eremu batzuk lurzoru urbanizaezin geratzeko aukera, zehazki: besteak beste Landarro eta Txingurri Gainan etorkizunean esku hartu ala ez erabakitzeak, hiri-eremu horren behin betiko mugaketa baldintzatzen du.

### II. Hirigintzaren egoera. Interbentziorako irizpide orokorrak

1995eko Plan Orokorra Hirigintza Interbentziorako 25 Area mugatu ditu guztira Altza auzoan. Bere azalera 231 hektarea inguru ditu guztira.

Plan horretan adierazitako proposamenen (auzoan Planari buruz egindako aldaketak barne) garapen eta burutzapen-mailaren ibilbide labur baino laburragoan, era askotako bost alderdik aipatzea merezi dute.

Lehenengo alderdia diagnostiko antzeko bat da eta, horren arabera, proposamen horien burutzapen-maila partziala da. Bigarren alderdian, jada burututako edo oso aurreratutako proposamenak nabarmen ditzakegu eta, horien artean, eremu hauei buruzkoak daude: Buenavistako Gaina, Oleta, Larres, Arria, Rutilita, Garbera etab. Aipatu beharreko hirugarrenean, berehala obrak burutzen hastekoak diren proposamenak dira hizpide, adibidez, Herrera, Lardi Alde, Buenavista, Putxuzulo etab. Laugarrena, hainbat inguruetarako (Landarro, Esnabide eta Auditz-Akular) adierazitako programatu gabeko ekimenak burutzeko behar adostasunaren bilaketaren ingurukoa da: konpontze-bidean da, gaiari buruz aldi berean egindako prozesuaren eta dokumentu honen eta ekimenei buruz hartutako erabakien ekarpenari esker. Bosgarrenak eta azkenak Pasaia eta Donostiaren arteko mugaren inguruan dagoen problematika aipatzera garamatza: hori dela eta, hainbat eremuren garapena baldintzatuta dago, Luzuriagakoa, adibidez.

**Gaur egungo egoera**, eskas egituratutako pieza bakartuen metaketaren emaitza da eta, horrenbestez,



justifikatuta dago, berrikuspen-prozesu hau abiapuntu hartuta, arreta era askotako **lau helburu** korapilatsuri eta, aldi berean, bateragarri jartzea. Horietako baten xedea da auzo osoaren hiri-espazioa birkualifikatzea. Bigarrenean, zuzkidura-maila hobetzea. Hirugarrena, irisgarritasun-baldintzak (hala auzoarenak ingurumariarekin nola bere hainbat zatiren artean) hobetzea. Laugarrena, lehen aipaturako eremu handian sortzeko den hiri-sarean gerta daitezkeen garapen berri eta zentzuzkoen aurreikuspena.

Ildo horretan, hiri-espazioaren birkualifikazioa lortzeko azken urteotan burututako ekintzak era askotakoak izan diren arren, faltan ematen da oraindik ere nolabaiteko tamaina duten hiri-espazio libreak, baita ekipamendu nabarmenak ere.

Birkualifikazio hori erdiestea eta aipaturako gaietan dagoen gabeziari aurre egitea dira orain adieraziko ditugun proposamen batzuen xedea. Horri buruz, une honetan adierazitako **Herrera** eta **Buenavista** eraberritzeko eta birgaitzeko ekintzekin batera, **era askotako lau ekintzak** arreta berezia merezi dute.

Horietako **lehenengoaren** helburua da **Nerecan-Lardi Alden** erdigune izango den toki bat antolatzea, gutxienez, hiru elementu adierazgarri izango dituena: hedaduraz eta tamainaz (kopuru eta nolakotasunaren aldetik) nabarmena den **plaza edo espazio libre bat**, besteak beste kirol-instalazioak eduki ditzakeen **ekipamendu bat** eta Euskotrenen **geltoki bat**. Hori lortzeko, zilegi da Lardi Alderi buruzko Plan Orokorren Aldaketako antolamendua, 2003ko abenduaren 9an behin betiko onartua, eta, helburu horiek lortzeko beharrezkoak izanik, ingurumarietan kokatutako lurak gehitzea bateragarri egitea.

**Bigarrena** Txingurri Gainako interbentzioari buruzkoa da. Kasu horretan, hiru ekintza-alternatiba proposatu ziren. Horietako bat, "Auditz-Akular" eremua antolatzekeo proposamen irabazlean aurreikusitakoa da, Carmen Andrés eta bestek osatutako profesional taldeak adierazitakoa: oraingo mendixkaren lur-erazketa ekarriko du, baita jarduera ekonomikoak garatzeko antolamendua ere; gainera, auzoa ingurumariari lotzeko bide-konexioa egingo da, Intxaurrendoko guraizea deritzan bide-korapiloaren bidez. Beste alternatiba batek aipaturako mendixkaren lur-erazketa partziala eragingo du, baita bizitegien garapen bat ere, betiere hiri-espazio

nabarmen batekin eta ekipamenduekin osatuta. Azken batek, sarbide errazeko zuzkidurak eta auzoarentzako erabilerak lehenesten ditu, betiere horretarako behar den lur-erazketa partziala baliatuz.

Azkenean Udalbatzak auzotarrekin elkarrizketan hartuko duen alternatiba edozein dela ere, bateragarria izan behar da auzoa ingurumariari lotzeko bide-sare gaietan beharrezkotzat jotzen diren neurriekin, zehazki, aipaturako bide-korapiloarekin. Kontuan hartu behar da, halaber, gaur egun mendixkak pantaila-lana egiten duela, errepide-saihesbideak eragindako kutsadura akustikoak Larratxoko auzotarrei kalte egin diezaien eragozten duena; beraz, baztertu egin dira auzo-ingurune horretan kutsadura areago dezaketen konponbideak.

**Interbentzio** horietako hirugarrenaren xedea da auzoaren iparreko aurrealdean, Pasaiaiko badiaren parean (Herreratik Buenavistara) kokatutako hiri-hutsune batzuk antolatzea, ahaleginguz betiere horrek Oleta eta Arriako ingurune sendotuen hobekuntza eragin dezala.

**Laugarren** eta azken **alternatibak** hainbat industrialde aldatu eta berreratzea bilatzen du, ondorengoak: Txingurri, Eskalantegi, Luzuriaga eta Papin.

Beste gai batzuetara etorri eta beste maila batean, etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoaren inguruko udalerriaren problematika orokorrari erantzun bat emate aldera, garapen nabarmen bat aurreikusi da, batez ere etxebizitzena, jarduera ekonomiko bateragarriak barne, Auditz-Akularren. Hartara, 1995ko Plan Orokorrean mugatutako eremua zabaldu egin da.

Garapen horri buruz, antolamenduari buruzko hiru proposamenak bildu dira Udalak sustatutako lehiaketaren testuinguruan, eremu horren antolamendu-irizpideak zehazteko asmoz. Lehiaketa horretan aukeratutako proposamena Plan Orokor berriaren behin betiko proiektura gehituko da.

Garapen horrek, halaber, ingurune mugakideen (adibidez, Altza Gaina, Larre eta Molinao) birkualifikazioa eragingo du eta eraberritze-eta beste batzuen (adibidez, Putxuzulo, Luzuriaga, Papin edo Landarro) berriraketa-interbentzioetan bete beharreko irizpideak zehaztu.

Gainera, azken ekintza horiek guztiak Pasaia eta Erreterria udalerrietako hiri-ingurune mugakideen plangintza orokorraren proposamenekin egoki koordinatu behar dira, eta Udal horiekin horren inguruko adostasunak bilatzeko ahalegina egin behar da.

Orain arte adierazitako helburu eta proposamenei, izaera eta konplexutasun bereziko beste bat gehitu behar zaie, hainbat alde dituen, eta ondorengo ideian laburbil daiteke: **Altza auzoaren eta Pasaia badiaren arteko harreman ahalik eta handiena lortu** eta, hartara, bi errealitateek elkarri bizkarrik gehiago ez ematea eta elkarren probetxua izatea.

Horrelako helburu batek askotariko interbentzioak justifika ditzake: auzoaren goiko aldea badiarekin konektatzeko elementu bereziak jartzea –“Auditz-Akular”en antolamendurako proposamenei buruz adierazitakoarekin bat etorri–, edo lehengo N-1 errepidearen inguruetik pasatzen den trenbidea lurperatzea, errepideari hiri-tratamendua ematearekin batera; hartara, Pasai Antxo aldean jada planteatutako eta Aurrerapen honetan ere mugikortasuneko eta garraioko politiken barruan proposatutako ekimenari jarraipena emango zaio. Edonola ere, neurri txikiagoan edo handiagoan badiaren berreraiketari lotutako interbentzioak dira, baita horretarako erabakitako neurri egokiei ere.

### III. Etxebizitza eta jarduera ekonomikoak

Altzaren hiri-ingurunearen bizitegi-multzoa 7.700 etxebizitza ingurukoa da eta, horiekin batera, 260.000 m<sup>2</sup>(t) inguru daude era askotako jarduera ekonomikoetan baliatzeko.

Azken urteotan, urria izan da auzoko etxebizitza berrien eskaintza, praktikan Rutilitako (Herrera) eta Buenavistako Gain, Arria eta Oleta inguruneetako ekintzak soilik. Beste batzuetan, adibidez, orain sendotutako Herrera eta Buenavista eraberritu eta berreraizatzeko ekintzei lotuta, aurreikusi da berehala hasiko direla etxebizitzak eraikitzeari ekiten. Bestetan (Auditz-Akularren

eta Landarron), berriz, 2004ko abendu arte ez zen adostasunik izan egin beharreko garapenak martxan jartzeko.

Une honetan, gai horiei buruz, Aurrerapen honek mota askotako interbentzioak adierazten ditu.

Horietako batzuen bidez, egungo hiri-espazioa berreraitu eta birkualifikatzea bilatzen dute, bizitegiei eta jarduera ekonomikoari lotutako garapenekin osatuta. Ildo horretan, indarrean diren plangintza-aurreikuspenak sendotu egin dira Herrera, Buenavista eta Lardi Aldi inguruneei dagokienez.

Eta bateragarriak dira beste interbentzio batzuekin, adibidez, azken ingurune horren antolamendua, Txingurriren berrantolamendua eta Pasaia badiaren pareko hiri-hutsuneen antolamendua behar bezala burutzeko adierazitakoekin.

Eremu horretan sortuko diren etxebizitza berriak 1.250 eta 1.280 artean izango dira guztira. Horiei “Txingurri Gaina”n sortutako etxebizitzak gehitu behar zaizkie, betiere horiek garatzearen aldeko alternatiba aukeratzen bada (300 eta 330 etxebizitza inguru). Halaber, eremu horretan jarduera ekonomikoentzako tarte nabarmena antolatzearen aldeko alternatibak, horretarako 19.700 m<sup>2</sup>(t) inguru finkatzen du.

**Luzuriaga, Papin eta Pasai Antxo** inguruneetan adierazitako garapenak ere izaera berekoak dira. Nolanahi ere, eremu horien kokapenen eta baldintzen ondorioz, horien antolamendurako irizpideak zehazteko orduan, hertsiki lotuta daude Auditz-Akularren eta bere ingurunearen garapenari, eta irizpideok Udalak multzo horren antolamendurako sustatutako lehiaketaren eraginpean daude. Lehiaketa horren eta horretarako adierazitako hiru alternatiben testuinguruan, 300 eta 1.000 etxebizitza artean dituen bizitegien garapena aurreikusi da, 7.000 m<sup>2</sup>(t) eta 57.000 m<sup>2</sup>(t) arteko jarduera ekonomikoentzako tokiarekin batera. Edonola ere, gogoan eduki behar da garapen horiek hala Pasaian nola Donostian dauden lurren eraginpean direla.

Beste interbentzio batzuk garapen berrizatzeko daitezke. Hori da, hain zuzen, Auditz-Akular eta bere ingurunerako planteatutakoak.



Auditx-Akularreko eta Molinako ibarbideko bizitegien garapena gutxienez 3.000 etxebizitzakoa izango da, horietako gehienak babes publikokoak.

Gainera, garapen hori jarduera ekonomikoentzako 17.000 m<sup>2</sup>(t) eta 55.000 m<sup>2</sup>(t) arteko tokiarekin osatu da.

Aurrekoari, jarduera ekonomikoetarako **Landarro** garatzearen aukera gehitu behar zaio; izan ere, alternatiba batek berariaz adierazten du -115.000 m<sup>2</sup>(t) inguruko azalera eraikia- eta beste batek, berriz, baztertu eta aditzera eman babes bereziko lurzoru urbanizaezintzat hartu behar dela. Nolanahi ere, Aurrerapen honen ikuspegi orokorretik ikusita, garapen hori beharrezkoa da, horiek lurraldekatzeko irizpide orokorraren arabera, besteak beste "IX" epigrafeko "3.F" idatz-zatian adierazi bezala. Udal Jarduketa Planaren beste atal batean, **Landarroi** buruzko irizpide adostuak zehazten dira.

Ekintza horiek guztiek, halaber, auzorako irisgarritasuna hobetu behar dute, bereziki garraio publikoaren eta motore gabeko baliabideen bidez, eta sortutako hiri-multzorako behar ekipamenduak eta zerbitzuak hobetu, betiere egon dauden zuzkiduren eta beharrezkoak diren berrien arteko orekan.

Aurreikusitako interbentzioak hertsiki lotuta ikusi behar dira eta, horien tamaina eta irismenagatik, aukera bat dira sinergia garrantzitsuak lortu eta sendotutako ingurunearen birkualifikazio orokorra erdiesteko.

Gaiz aldatuz, Garberaren merkataritza-erazpena sendotu egin da, eraikuntza-programa berregokitzeko aukera egon badagoen arren.

"Altza" auzoari buruzko erakusketa honen amaieran, bi grafiko sartu dira eta, bertan, egungo "AL.02 Txingurri" area eta Buenavista eta Oleta ingurunean kokatutako beste eremu bat (berr)antolatzekeo ideiak ematen dira. Ingurune horiei pixkanaka dagokien definitzioa ematen joan beharko zaie, betiere eremu horien eta ingurumarien problematika aztertu ondoren.

## IV. Mugikortasuna

Jada adierazi dugun bezala, hala inguruneak eta hiri-hutsuneak berrerratzeko eta birkualifikatzeko nola Auditx-Akularren garapen berrirako adierazitako proposamenak, hiri-multzoa era integralagoan eta eraginkorragoan egituratzeko behar proposamenekin osatu behar dira. Horietan, bereziki garraio publikoa eta motore gabeko baliabideak erabilteza aipatzen da, auzoak hala ingurumariarekin nola bere hainbat zatiren artean duen konexioa erraztuz.

Ildo horretan, garapen berriek oinezkoen eta bizikleten ibilbideak hartu behar dituzte kontuan, horiek sendotutako hiri-ingurunean integra daitezen eta inguruneari hobekuntza gehigarriak erants diezazkieten.

Gauzak horrela, aipatzekoa da **lehengo N-1 errepidea birmoldatzeko** formulatutako proposamena. Bertan, zeharkako lerroan espazioa berreskuratzea proiektatu da, auzoaren eta hiriaren sare orokorrean behar bezala integratutako oinezkoen eta bizikleten ibilbideak ezartzeko (adibidez, Larratxon eta Buenavistan aurreikusitakoak), elementu mekanikoekin batera -igo-gailuak eta eskailerak- uneko oztopo arkitektonikoak gutxitu eta saihesteko moduan.

Bestalde, trenbideen garraio publikoak ez dio zerbitzu egokia ematen auzo honi, erraztasunez iristeko modua Herrerara ematen baitu soilik (bertan daude RENFE eta Euskotrenen geltokiak). Hori bai, oro har, autobusen zerbitzua, Donostiako Tranbia Konpainiak kudeatutakoa, ona da.

Egoera hori eta sektoreko uneko azterketak ikusita, aukera sortu da **Euskotrenen trenbidean bi geltoki berri jartzeko**, hasi beharreko bikoizketa-lanak aprobetxatuz. Kokapenerako, Lardi-Alde eta Auditx-Akular ingurune estrategikoak proposatu dira.

Planteamendu horrek metropoliko mugikortasuna bultzatuko du, garraio kolektiboaren erabilerean bidez, eta arrazoi hori nahikoa da konponbide egokienak bilatzeko.

Bestalde, **bide-sarearen birmoldaketa orokorra** nabarmendu behar da, ingurune horretara ibilgailuen irisgarritasuna hobetu dadin. Era askotako proposamenak

aztertu dira eta horietako batzuek auzora errepide-saihesbidetik ibilgailuz sartzeko sarbide berri bat aurreikusi dute, dela zuzenean ardatz nagusiari lotura berri bat gehituz, dela era ez hain zuzenean Putxuzulotik edo Las Mercedesetik. Dena den, aurreikuspen horiek ez dira bateraezintzat jo behar, ahal den neurrian bateragarritzat baizik.

Beste batzuek zehazten dutenez, ordea, "Intxaurrendoko guraizea" delakoa birmoldatzea komeni da, besteak beste auzoa bide-korapilo horri lotzeko eta, hartara, hiriri berari eta kokatuta dagoen inguruneari. Horri buruz, era askotako alternatibak planteatu dira, eta eragiten dute dela Txingurri Gainan gehiago edo gutxiago esku hartzea edo dela Herrerarako eta lehengo "N-1" errepiderako sarbidea hobetzea, Pasai Antxoko saihsarbidea martxan jartzekoan azken horren zeregina aldatzen denean. Aukera horiek, dena den, ez dira bateraezintzat jo behar, ahal den neurrian bateragarritzat baizik.

Testuinguru horretan, Auditz-Akular eremuari eta bere inguruneari dagokion lehiaketan ere aztertutako era askotako bide-alternatibei erreparatu zaie.

Bestalde, auzoko barne bide-sarea hobetzeko asmoa planteatu da, eta aztertzeko aukera hauek proposatu dira: Oletaren irisgarritasuna hobetu, une honetako zaku-hondoa Buenavistarako jarraipena duen konponbide bihurtuz; Txirrita Bertsolaria Larratxo pasealekuarekin konektatu anbulatorioaren ondotik, behin-behinean burututako konponbidea birmoldatuz; Darieta bidearen trazatua hobetu, baita Larresen Kasares pasealekuarekin duen konexioa ere; eta Altza eta Lauai-zeta pasealekuetan esku hartu, Auditz-Akularreko ekintzen haritik, horrek aldi berean auzoaren barne bide-sarea hobetzea eragingo baitu.

Neurri-multzo horrekin, auzoa tamaina egokian antolatu nahi da eguneroko mugikortasun-premientzako erantzun hurbilagoa errazteko eta, ondorioz, ibilgailura jo beharrik gabe konpontzeko modua izan dadin. Gainera, garraio publiko eraginkorra lortzen da; dena den, bide-sare orokorretik irisgarritasuna uanean-uean hobe daiteke eta nabarmen ere barne bide-egitura.

Halaber, garapen berrietako bide-sareetan, mugikortasuna hierarkizatzea proposatu da: ibilgailu pribatuen trafikoa (lau gurgpilekoak) saihestu eta aparkatzeko irisgarritasuna konpondu, hala egoiliarrena nola kanpotarrena (horientzako ere erantzuna eman beharko da).

## V. Hiriko espazio libreak

Proposamenak hiri-espazio libreak sendotzen ditu, adibidez, Arriako parkea eta Kasares, San Martzial, Roman Irigoyen zein Larrerdiako plazak etab.

Horiekin era bateragarrian, hiri-birkualifikaziorako proposamenek nola garapen berriei buruzkoek hiri-espazio libre berriak era osagarrian antolatzea eragin behar dute. Horien artean, plaza hauek dira nabarmentzekoak: Lardi-Alde, Herrera -San Luis- eta Buenavista, eta horiei "Txingurri Gaina" eremuari legezkiokkeenak gehitu behar zaizkie, aukeratutako antolamendu-alternatiba zein den arabera.

**Auditz-Akularren proiektatutako garapen berriak, hirigintza-legediak eskatutako gutxienezko zuzkidurak ez ezik, kontuan hartu behar ditu garapen zehatz horretarako zein auzo osorako premiei aurre egiteko baliatu beharrekotzat jotakoak.** Horri buruz, Udalak sustatutako lehiaketaren testuinguruan adierazitako hiru antolamendu-proposamenek espazio libre horiek eratzeko askotariko konponbideak ematen dituzte eta, beraz, Udalak gaiari buruz hartutako erabaki orokorrari men egingo zaio.

Horrelako aurreikuspenak, etorkizunean bi hiri-erdi-gune berri eratzeko aukerarekin bateragarri egin behar dira. Bata aipatutako **Lardi Alde-Nerecan plaza** inguruan da eta bigarrena, berriz, **Auditz-Akular garapen berriaren** testuinguruan.

## VI. Ekipamendu komunitarioa

Azken urteotan, Udal Administrazioak hainbat ekimen hartu ditu auzoko ekipamenduen zuzkidura hobetzeko. Garapen berriek auzoaren ekipamendu komunitarioko zuzkidura handitzeko modua eman behar dute.

Horrenbestez, hirigintza-legediak eskatutako gutxienezko zuzkidurak bateragarriak izan behar dira hala garapen horiek nola auzo osoak ekipamendu egokiak



eta arrazoizkoak izatearekin (betiere behar tokian egoki jarrita euren zeregina eta zerbitzua bete dezaten). Ildo horretan, aipatutako helburuak (etorkizunean bi hiri-erdigune eratzea, adibidez, Lardi Alde plazaren ingurunean eta Auditx-Akularreko garapen berriaren testuinguruan) era askotako ekipamendu adierazgarriak aurreikustea zilegi eta beharrezko egiten du: kiroldegia, aire zabaleko kirol-instalazioak, hezkuntza- eta kultur zentroak...

Testuinguru horretan, komeni da Larresko kiroldegia birmoldatzea edo beste kokapen batera eramatea.

Gainera, udalerriz gaineko ingurune horren ikuspegitik, guztiz arrazoizkoa da dagozkion ekipamenduak hala auzoaren nola Pasai Antxoren premien arabera antolatzea, elkarren artean segida bat baitago.

## VII. Zerbitzu-azpiegiturak

Proposamenak, lehengo azpiegiturak eta arlo honetako uneko ekimenak sendotu egiten ditu; bigarrean, adibidez, saneamenduaren eraberritzea, Herrera ingurunean bereziki.

Proposamenak ur-hornidura gaietan zuzkidura hobetzen du, Putzueta ingurunean tanga berri bat aurreikusiz.

Testuinguru horretan, aurreikusitako garapen berrietarako, dagozkion zerbitzu-azpiegiturak ezarri behar dira, eta horrek auzoko zerbitzuen hobekuntza orokorra eragingo du.



## 8

Martxan dauden  
Hirigintza-planak

Hirigintza-interbentzioko hiru osagaiok, lurraldearen osotasunean tamaina eta eragindura ezberdina dutenek, denboran aurrea hartu diote Auditz-Akular Zabalduari. Horietako bakoitzak, gainera, birsortu egingo ditu egun arazotsuak diren eta endekatuak dauden espazioak.

Herrerakoa da osagairik funtsezkoena, eta Udaleko Hirigintza Departamentuari negoziazio-kudeaketa garrantzitsuak eginarazi dizkiona. Hala nola: antolamendutik at geratu izaki, eraisten ari diren etxebizitza eta negozioen jabeei eman beharreko kalte-ordainak; beste poligono batzuetara lekualdatu beharreko enpresa "biziei" dagozkien konpentsazioak... Jardunbide luze eta konplexu baten zati baino ez dira, eta Udalaren diru-kutxari kostu handia erakartzen diote.

Buenavista eta Nerecan-Lardi Alde inguruneak jasan behar dituen aldaketa erabatekoak, berriz, aurtengo urte honen joanean hastekoak dira eta 2006-2008 epealdian izango dute jarraipena. Alderdi bietan ere, auzoaren biziberritzea ahalbidetuko dute besteak beste: plaza eta espazio publikoak nabarmen gehitzeak; eta bidezko etxebizitza-kopurua eraikitzeak, Udalak sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzak barne.

Buenavistan, esaterako, tokiko soluzioak aplikatu beharko dira, bai N-1 errepidearen egungo inpaktua murrizteko (Urban Planaren helburuei jarraiki), bai Altzarekiko dituen komunikazio-loturak hobetzeko.

Altza osoan arazo larria da, bestalde, lur gainean aparkatzeko lekurik eza. Hori konpontzera datoz, hein handi batean, hiru alderdi horietan eta etorkizuneko Auditz-Akular Zabalduran ere eraikiko dituzten aparkalekuak, lurpeko aparkaleku-plaza kopuru handia eskainiko baitute; etxebizitza berrietako bizilagunen premiak aise asebetetzeko lain eta gehiago. Berebiziko garrantzia dauka, adibidez, Udalaren proposamenez sustatu nahi den lurpeko aparkalekuak, "Pescafría" lantegiaren lurretan eraikitzeoak diren plaza eta eraikinari dago-

kien sailaren azpian, Nerecan aldeko eraikin berrien aurrez aurre.

## I. Nerecan-Lardi Alde

Transkriptarekin egindako negoziatioek ahalbidetu dituzte lursail horietako lehendabiziko ekintzak; hurrengo, Nerecan zaharraren industria-pabiloi guztiak eraitsi beharko dituzte. Hemendik aurrera, bada, zilegi izango da Altzako alderdi hori eraberritzea eta modernoago bilakatzea; 354 etxebizitza eraikiko dira bertan (horietatik, 106, babes ofizialekoak eta Udalak sustaturikoak).

Eraikin berriek plaza publiko handi bat osatuko dute, 6.000 m<sup>2</sup>-koa, auzoaren ardatz eta erdigune bilakatuko dena. Hori guztia egia izan dadin, Pescafría enpresa izandakoaren lursailak darabiltzate esku artean; horien jabetzarekin negoziatu beharko dira, plazako alderdi horren bizitegi-aprobetxamenduak, Nerecan alderdiaren aurrez aurre.

Plaza handi horrez gain, ekipamendu-hornikuntza handia kokatzeko asmotan dabilta, hainbat erabilertarako:

- Lurpeko aparkalekuak, auzotar berrientzat eta horietan plazak eskuratu nahi dituzten inguruneko (Oleta, Roteta, Anbulatorio alboko dorreak) bizilagunentzat.
- Kiroldegi estalia.
- Lokalak, udal-zerbitzuen eta auzoko erakundeen premiak asebetetzeko.
- Merkataritza-jarduerak, alderdi honetako premiak betetzeko.



## II. Herrera

Herreraren Barne Erreformatarako Plan Bereziak (PERI) guztira 326 etxebizitzaren antolamendua jasozten du bere baitan; horietatik, 120, babes ofizialekoak eta Udalak sustaturikoak izango dira.

Rutilita lantegiaren lurretan jada 92 eraiki dira. Oraintxe hasi dira eraikitzen beste 96, Ramón Vizcaíno industrialdean eta obra-lizentzia ere eskuratu dute jada. Beste 98, Larratxo ibarrean, ikastetxearen ondoan, egongo dira. Eta, azkenik, San Luis plazan eraikiko dituzte beste 40, plaza berri baten inguruan; Altzaren lurraldeko erdigune eta ardatza izango da plaza hori.

Udalak betearazi eta egikaritzeko duen Sistema Orokorren arabera, Renferen trenbide azpitiko egungo iraganbidea bitan banatuko da, Herrera eta Larratxo pasealekuak elkartzea ahalbidetuz; orobat, kolektore bat egingo da bidearen azpiko aldetik, San Luis plaza inguruko uholdeak eragozteko asmoz. Ekintzak 10,4 milioi euroko kostu itzela izango du eta Udalaren dirukutxa bidez finantzatuko da, Eusko Jaurlaritzaren eta Urban Planaren diru-laguntzak ere baliatuz.

Hirigintza-antolamendu berriaren ondorioz, Altza auzorako sarbideak hobetu egingo dira eta nabarmen murriztuko da Herreratiko zirkulazioaren iraganbidea. Orobat, kirol-instalazioez hornituko da ibarra; horien ezaugarriak definitzeko, auzotarrei eta ikastetxeari kontsulta egingo zaie. Bestalde, haur-parke bat, aparkaleku-plazak, eta abar egingo dira.

## III. Buenavista

Duela zenbait hilabete hasi ziren eraisten hainbat industria-aurri eta antolamendutik at zeuden eraikin. Espedientearen izapideak egiterakoan sortutako arazo batzuk direla bide, eta lurzoruen titularrek egindako erreklamazio neurritz gaindikoak tarteko, nolabaiteko atzerapena izan dute Buenavista alderdi osoa berrantolatzen jarraitzeko lanek.

Hirigintza-proiektuarekin bat, 388 etxebizitza eraikiko dira. Horietatik 100 babes ofizialekoak izango dira, eta dagokien Lehiaketa-deialdiaren ostean hasiko dira eraikitzen, 2005. urtearen joanean. Plaza publiko berriak sortuko dira; eta udal-lokalez hornituko da ingurunea, zona horretako erakundeek erabil ditzaten.

Buenavista aldean, kontuan hartu beharko da aipaturiko helburua, bai Urban Planari bai Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Berrikusteko Aurrerapen Dokumentuari dagokienez, hots: N-1 errepideak egun duen egituraketatik abiatuta jardungo dute, oinezkoentzako egokiago bilakatzeko helburuarekin.

# 9

## Auditx-Akular, Landarro eta Molinao ibarra

### I. Lehiaketa

Altza auzoko Auditx-Akular inguruneak etorkizunean izan zitzakeen antolamendu-proposamenen artean, irabazlea erabaki zuen Donostiako Udalak; hiru proiektu aurkeztu ziren, guztira, etorkizuneko bizitegi-zona horren hirigintza-jarduketaren lehiaketara.

Hautapen-irizpidea oinarritzeko, erakusketa bat antolatzea erabaki zuen Udalbatzak, Altzako Casares Kultur Etxean, hiru talde teknikoek landutako proposamenak jendaurrean jarri; bidezko iritzi zioten horiei herritarren iritziak eranstea, Garapen Komunitarioko Planetik (PDC) eratorritako eskarmentuari jarraiki.

Erakusketaz gain, lau hitzaldi ere antolatu zituen Larraxoko Auzo Etxean. Hiru hitzaldietan, tekniko bakoitzak zehatz-mehatz azaldu zituen Auditx-Akularri buruz zituen ikuspegi eta irizpideak. Eta, laugarrengo bileran, udal-taldeetako bozeramaileek aukera izan zuten proposamenen gainean eztabaidatzeko eta euren iritzia adierazteko.

Honako hauek izan ziren lehiakideak: Marcial Eche-nique, Patxo de León eta Llanos Masiá; norik bere alternatiba-aurrerakinak aurkeztu zituen, esparru eta ingurune horri zegokionez. Behin horietako bat aukeraturik, eztabaida zabala ahalbidetuko da Udalaren eta hiritarren artean, ondokoak jorragai hartuta: zonakatzeko globala; erabilerak; aprobetxamenduak eta dentsitateak; lurralde-egituraren ezagutza; eta, bereziki, bizitegi-garapen berria eta eraikuntza-tipologia.

Han azaldutako alternatibek aintzakotzat hartu zuten Auditx-Akularri buruzko lurralde-mailako hausnarketa ere, daukan hedadura eta kokapen geografiko-arengatik. Lurraldearen zati bat lurzoru-erreserbatzat kalifikatzeko aukera ere kontuan hartu zuten, ekipamenduetarako nahiz ingurune hurbileko (Altza eta

Pasaia aldeko) zuzkidura-premietarako gordetzeko asmoz.

Bizitegi-programak trinkoa behar du izan, Udaleri talka-plan bat gauzaraziko diona, babestutako etxebizitzien estandarrak sustatzearen. Beste helburuetako batek, adibidez, jarduera ekonomikoetarako lurzorutzat kalifikatzea du xede.

Hausnarketa eta eztabaida parte-hartzaileen fase bizi hau behin amaiturik, talde irabazlea jada hasi da idazten Auditx-Akularren Plan Partziala eta Plan Orokorra aldarazteko dokumentua. Elkarrizketa etengabea, betiere: Udalbatzarekin, uneko hirigintza-teknikari jakinekin, eta Altzako Garapen Komunitarioko Planaren Batzordetik berariaz izendaturiko ordezkariekin.

### II. Udalbatzak onartutako antolamendurako oinarrizko irizpideak

Altzako Zabalduaren etorkizuneko hirigintza-antolamenduari dagokionez hartutako udal-erabakiaren baitan, Udalbatzak funtsezko irizpide batzuk adostu zituen, Lehiaketaren teknikari-talde irabazleak aurreantzean bete beharrezkotzat.

a. Carmen Andrés-Zubiria taldeari aginduko zaio, hain zuzen ere, Plan Orokorra eta Plan Partziala (Auditx-Akular, Landarro eta Molinao Ibarra esparrutzat dituen) aldaraziko dituen dokumentua idazteko lana. Dokumentu horrek ondoko antolamendu-irizpide oinarrikoak izan beharko ditu kontuan:



b. Bide-osagai egituratzaileak:

b.1. Bide-lotune berria eratuko da, Txingurri Gaine-  
tik hasi eta Garberako guraizeekin bat egingo  
duena, eta Auditza-Akularreko bizitegi-garapen  
berriak elkar lotuko dituena; horretarako, bidez-  
koak diren lur-higidurak egingo dira.

Txingurri Gainean, ekipamenduetarako garape-  
na aztertuko da batik bat, bizitegi-erabilerak  
edota hirugarren sektoreko jardueretarakoak  
ere bazter utzi gabe.

b.2. Onartu egiten da: batetik, N-1 errepidearen eta  
A-8 autobiarren arteko lotunea, Gipuzkoako  
Foru Aldundia egikaritzen ari dena; eta, bestet-  
ik, Darieta Ibarren gainaldeko biribilgunetik  
hasi eta Mercedes biribilgune arterainoko lotu-  
nea. Darieta-Mercedes lotuneari dagokionez,  
Molinao ibarrean proiektaturiko bizitegi-garapen  
berriekin bateragarriak izan daitezkeen bide-  
trazatuak aztertuko dira.

b.3. Bide-lotunea ezarriko da Landarorekin, gutxien-  
gutxienez Mercedes biribilgunearekin bat egingo  
duena; eta, hori bideragarria izanez gero, baita  
aurreko atalean aipaturiko bidearekin ere.

b.4. Lurzoru-erreserba bat ezarriko da, Auditza-Aku-  
lar-saihesbidea zuzen-zuzenean lotuko dituena,  
etorkizunean Foru Aldundiak horretarako bai-  
menik emango balu ere.

c. Landarro

Zona hau kalifikatu egingo da, bertan jarduera eko-  
nomikoetarako kokaleku bat garatzeko, 1995eko  
Plan Orokorra ezarri ez bezalako helburuak eta  
ohiko industrialde baten arras bestelako erabilerak  
izango dituena. Kokaleku horrek ahalik eta gehien  
murriztu beharko ditu balizko ingurumen-inpaktuak.

d. Molinao ibarra (Luzuriaga, Papin, etab.)

Bizitegi-programa garrantzitsua garatuko da batik  
bat, ekipamenduak bazter utzi gabe; horrek berekin  
ekarriko du, hortaz, Pasaiaiko Luzuriagaren bizitegi-  
garapena, jada egikaritzen ari dena.

e. Auditza-Akular

Bizitegi-garapen garrantzitsua. Diseinu-irizpideak eza-  
rritakoaren arabera, gutxienez 3.000 etxebizitza berri  
egingo dira Auditza-Akularretik Molinao ibarrera bitar-  
tean.

f. Miraballes

Berebiziko lur-erazketa egingo da ingurune hone-  
tan, interbentzio modura.

g. Ekipamenduak:

g.1. Egungo kiroldegia eta ikastetxearen inguru-  
marietan, ekipamendu askotarako zona handi  
bat ezarriko da.

g.2. Darieta ibarren abiaburuan, kirol-ekipamendu-  
etarako zona bat garatuko da, arauzko futbol-zelai  
bat hartuko duena.

Hona arteko gain, ondokoak adostu ziren:

1. Esnabide: aparteko hirigintza-espeditante bidez izapi-  
detuko da Plan Orokorren barruko aldaketa, bizitegi  
garapenerako, betiere Patxo de Leónen proposame-  
nean planteaturiko udal-mugapean eta Errenteriako  
Udalak aurreikusitako garapenekin bat eginez eta eto-  
rriz. Patxo de Leóni eginarazten zaio lana.

2. Buenavista: Auditza-Akularren lehiaketako antola-  
mendu-esparrutik at geratzen da eremu hau eta Hiri  
Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko lane-  
tan jorratuko da.

### III. Interbentzioari buruzko oharrak

Auditza-Akularren hirigintza-garapenak hainbat hel-  
buru erdiesteko balio behar du: ez, soil-soilik, Zabaldur-  
ra berriko azpiegituren, ekipamenduen eta sistema  
nagusien estandarrak estaltzeko; baizik eta, dagoene-

ko eraikitako Altzan edota Molinaon lehendik antzeman daitezkeen eskasiak eta gabeziak konpontzeko. Helburuok aipa ditzakegu:

- Aurreikusitako 3.000 etxebizitzaren eskaintza horretan, gehienbat, babes ofizialeko etxebizitzak eta tasaturiko preziodunak izango dira.
- Biztanleriaren gaztetzea.
- Parkeak, oinezkoentzako plazak eta espazio libreak.
- Ekipamenduak: kirol-, gizarte- (iparraldean), kultura- (hegoaldean) eta irakaskuntza-alorrekoak.
- Lurpeko aparkalekuak, auzo osoko bizilagunentzat; hartara, konpondu egingo da gaur egun Anbulatorio aldeko dorreen eta Elizasu plaza inguruetako aparkaleku-gabezia, bai eta Larratxokoa ere, zeinetan ez baita jada lursailik geratzen lur gainean aparkalekuak eraiki ahal izateko.
- Tentu handiz zaintzea eraikinen kalitatea eta estetika, eraikuntza eta etxebizitza bioklimatikoak sustatuz.
- Lokalak, gazte-jendearen jardueretarako.
- Saltoki txikiez hornitzea auzoa.
- Saihesbidea eta Mercedes biribilgunea lotuko dituen bide-sarea, egun Altzatik iragaten den zirkulazioa eragozteko edota Darieta bideko egungo arazoak gainditzeko.
- Topoak alderdi honetan geralekua izan dezan eskatu Eusko Jaurlaritzari, Zabaldura eta auzoko gainaldea trenbide-garraio iraunkorraz hornitu ahal izateko.
- Molinao aldearen berreraketa, bideak eta espazio publikoak nabarmen hobetuz.
- Lotura egokia, Donostiako Eskalantegi kalearen eta Altzako auzo osoaren artean.

Zabaldura berriak, zalantzarik gabe, ez ditu ostatatuko auzoak gaur egun pairatzen dituen plangintza-gabeziak eta hirigintza-okerrak. Plan Partzialaren eta Hirigintza Proiektuaren izapideak egiteak ahalbidetuko du, orobat, hiri-erakundearen partaidetza. Bizitegi-gara-

pen berri honetan ezartzekoak diren ekipamenduei eta zerbitzuei buruzko proiektuek ere aintzakotzat hartu beharko dituzte, ezinbestean, Altzako erakundearen eta herritarren iritziak.

# 10

## Burutzen eta prestatzen ari diren ekintzak

**Hogei interbentzio inguru, obrak eta hirigintza-azterlanak barne; horiek guztiak garatzen ari dira egun, Altzako Udal Jarduketa Planaren baitan, auzoa oso-osorik eraberritzeko.**

Altzan hogeiaren bat hirigintza-plan eta proiektu lan-tzen dihardu gaur egun Udalak; auzoa modernotzeko eta eraberritzeko prozesu batean buru-belarri murgilduta dabil Alza, beraz, bertako biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko asmoz.


Donostiako Gobernuak, Udalbatzaren ahobatezko borondatearekin bat eginik eta Altzako auzotarrekin eta erakundeekin elkar harturik, ondoko jarduketa-ildoak bultzatu ditu: bizitegi-zona berriak (Nerecan, La Herre-ra, Buenavista, Arria) suspertzea eta urbanizatzea; plaza eta espazio publikoak (Elizasu, Santa Barbara, Oleta); sarbideak (bide-sarea, mikrobus-zerbitzu berria, igogailuak) hobetzea; eta ekipamenduak sortzea kirol-, kultura-, gizarte- nahiz aisia-alorretan.

**Hirigintza-proiektuak eta etxebizitza berriak**


### I. Nerecan-Lardi Aldeko hirigintza-proiektua

- **Garai bateko industria-pabiloiak eraistearekin** bat ekin zaio Nerecan-Lardi Alde ingurunea birsortze-ko proiektuari. Eremua modernotzeko asmoz hasi berri dituzten lanei esker, industria-jarduera lekuz aldatu ahalko da eta horren ordez bizitegi-zona bat eratuko da: guztira **354 etxebizitza; horietatik, 106, babes ofizialekoak.**

- Etxebizitzak **plaza publiko handi** baten inguruan eraikiko dira, Altzaren bihotz-muinean. Aurreikuspe-  
nen arabera, hiriko espaziorik handiena izango da; guztira, 6.000 metro karratuko azalera hartuko duena, auzotarren gozamenerako.



- Eraikin berriek ez dituzte **bost altuera baino gehia-go** izango, **sestraren gaindik**, hirigintza-garapen iraunkorra bideratzeko helburuarekin. Etxebizitzekin eta **egoteko-zonekin** batera, eta bigarren fase batean, ondokoak aurreikusten dira: hainbat erabilerata-



rako ekipamendu publiko bat sortzea; eta, merkataritza- nahiz gizarte-jardueretarako lokalak eratzea. Hornikuntza hori Pescafría lantegiarenak izandako lurzoruetan sortuko da, behin hura eraitsi eta gero.


- Nerecan-Lardi Aldeko Barne Erreformaren Proiektuak helburutzat du, orobat, **bide-lotuneen eta oinezkoen arteko komunikazioak hobetzea**. Bide-sare berria eraiki da, behin-behinekoz, iaz Osasun Zentroaren alboan eraiki zituzten biribilgunearen eta errepidearen (Larratxo eta Herrera pasealekuak lotzen dituenaren) osagarri.
- Urte honen joanean hasiko dira obrak eta **40 milioi euroko inbertsioa** eskatuko dute..

## II. Herrerako Plan Berezia

- Herrerari dagokion Barne Erreformarako Plan Berezia (PERI) bere baitan jasotzen du **326 etxebizitza** antolatzea; horietatik, **126, babes ofizialekoak dira**. Rutilita aldean eraiki dira jada 92; beste 40 eraikiko dira San Luis plazan; beste 96 Ramón Vizcaíno enpresaren industrialdean, zeinetarako obra-lizentzia ere bai baitute jadanik. Eta, beste 98, ibarrean eta Txirrita Bertsolariaren kalean.



- Horrez gain, **oso-osorik birsortuko da San Luis plaza**, Herrerako ardatz neuralgikoa izaki; ondorioz, **11.000 metro karratuko azalera eratu da, espazio libreak, haur-parkeak** eta aparkaleku-plaza berrien hornikuntza barne hartuko dituena. Proiektu honek **7,6 milioi** euroko kostua izango du.



- **Hamar milioi euro gehiago** inbertituko dira, **Altzarako sarbideak hobetzeko**, hala nola: Herrera pasealekuko trenbidearen azpialdeko iraganbidea bitan banatuko da, bide-eskema berri bat sortuz; kolektore berria eraikitzeko lanak egingo dira, San Luis plazak jasan ohi dituen uholde-arazoei konponbidea emateko.
- Azken bi urteotan, **kalte-ordainei eta konpentsazioei dagozkien negoziazio ugari** zehaztu dira, norbanakoekin zein enpresekin, lurzoruak libre utz ditzaten eta horietan antolamendu berria ahalbidetzeko asmoz.

## III. Buenavistako hiri-antolaketa eta etxebizitza berriak

- Ekin zaie zona birgaitu aurretiko eraipen-obrei; **zenbait industria-aurri** eta eraikin zaharkitu **eraistetik hasi** dira. Horien lekuan, besteak beste, etxebizitza berriak, ekipamenduak eta espazio publikoak eraikiko dira; horrez gain, sendotu egingo da hiri-lurrean lehendik zegoen ondasun higiezin bat ere. **Aurreikusitakoaren arabera, 388 etxebizitza** eraikiko dira, horietatik **100 babes ofizialekoak**; aurtien hasiko dira eraikitzen.






- Hurrengo urbanizazio-obren baitan sartzen da **igo-gailu publiko bat** egitea, auzoko goialderako sarbidea hobetzearren.



- Hiri-antolaketa berriak bere baitan hartzen du, baita ere: **espazio publikoak sortzea** zona horretan, **ekipamenduetarako lokalak, garajeak, berdeguneak, plaza bat eta ingurune elkarteek erabiltzeko izango diren lokalak** bilduko dituztenak.
- **Oinezkoentzako bide bat** gaituko da, Eskalantegi kaleraino iritsiko dena, Pasaiarekin muga eginez. Balioespenen arabera, 30 milioi euroko kostua izango du hirigintza-interbentzio honek.




## IV. Auditx-Akularreko Plan Berezia

- Tokiko Gobernu Batzordeak agiri bidez formalizatu du **Plan Orokorra aldarazteko agindua**, Auditx-Akularren bizitegi-espazio berri bat sortzera bideraturikoa eta ekipamendu-hornikuntza berriak izango dituen, Altza osoan dauden gabeziak estaltzeko asmoz.

- Ondorioz sorturiko proiektua, hirigintza-espeditentearen izapide guztiak burutu ostean gauzatu da; **Javier Zubiria jauna eta Carmen Andrés andrea** buru dituzten arkitekto-taldearen ideiak hartuko ditu oinarritzat.

- **Hiru proposamenen artean** aukeratu zen plana idatziko duen taldea; proposamen horiek guztiak aztergai eta erabaki-gai izan zituzten Udaleko talde politikoez zein Altzako auzotarrek.

- Hiri-antolamenduari esker, **3.000 etxebizitza** eratu ahalko dira gutxienez; horietatik, 2.500, babes ofizialekoak izan daitezkeen nahi da.




- **Etxebizitzen eskaintza eta Altzako ingurunearekiko errespetua** bateragarri egingo dituen hirigintza-plan bat garatu nahi da, auzoa espazio publiko eta berdegune handiez hornituz.

- Inbertsioa **2,9 milioi eurotik gorakoa da**.

## V. Arriako etxebizitza berriak

- Dagoeneko oso aurrera doaz Arriako obrak, eta horien ondorioz, **babes ofizialeko 24 etxebizitza berriez** hornitu ahalko da Altza auzoa.
- Zozketan egokituriko esleipendunei **lurrazal-eskubidearekin** saldu zaizkie etxebizitza horiek; aurki entregatuko dizkiete giltzak ere.

- Etxebizitzak **bi bloketan** banatzen dira, **garaje eta trasteleku** eta guzti.



#### Erreforma integralak eta Bide Publikoak

## VI. Santa Barbararen berrantolaketa

- Arri Berri zonari dagokionez, Udal Gobernuak onartu egin du Santa Barbara kalea eta alboko plazak **egokitzeko** proiektua.
- **Aurrekontua 1.695.355 eurokoa** izango da. Antolaketa berriari esker: zoladura guztiak ordezkaturiko dira, galtzadari nahiz espaloiei dagozkienak, eta horien lekuan ohiko baldosa hexagonala ezarriko da; hiri-altzariak ere aldatu egingo dituzte eta haur-jolasak eraberrituko.



Santa Barbarako obrak eta Oleta aldean hasitako lanak

- Obrak baliatuko dituzte, besteak beste, **ur-zerbitzuak, argikuntza, saneamendua, gasa, argindarra eta telefonia sartzeko**. Gero, tentu handiz tratatuko dira lorezaintza eta urbanizazio-osagai apaingarriak.

## VII. Oletaren berreraketa integrala

- Jada abian da Oleta aldearen eraberritzea; obrarik garrantzitsuenetakoa izango da hauxe, **sarbideak eta oinezkoentzako bideak hobetzeko**.
- Dagozkien baimenak eskuratu eta gero, bideen zabaltzea jasotzen duen proiektu bat garatuko da: bi errei egokituko dira, ibilgailuen zirkulaziorako, eta oinezkoentzako espaloiak albo banatara. Nabarmen gehituko dira **aparkaleku-plazak**.
- Hobetu egingo dira: **argiak, hiri-altzariak**, eskailerak eta zerbitzuen kanalizazioak.
- **Miloi bat eurokoa** izango da inbertsioa.



## VIII. Elizasu plazaren berrantolaketa

- Milioi bat euroko inbertsioarekin, eta herritarren partaidetza-prozesu bat garatu ostean, Elizasu plazaren eraberritze integrala zehaztu du Udal Gobernuak.
- Oso-osorik aldatuko dute **zoladura**: material berriak eta kalitate hobekoak jarriko dituzte, lehengoaren orde; hiri-altzariak ezarriko dira; haur-jolasetarako espazio batez hornituko da zona; eta arreta berezia eskainiko zaie lorezaintza-kontuei.



- Zonako auzotarrek plazaren diseinuan parte hartu ahal izan dute; izan ere, Alkatetzak eta proiektua idazten diharduen taldeko kideek bilera irekiak antolatu baitituzte, bertako bizilagunen kezkek ezagutzeko asmoz.


## IX. Darieta bideko hobekuntzak

- Berrako Egoitzaren ingurunean espaloi bat eratuko da, gaur egun ez baita halakorik; orobat, hobetu egingo da bidea.

## Irisgarritasuna eta mugikortasuna

## X. Larratxoko igogailu eta eskailera mekanikoen instalazioa

- Udalaren kezketako bat da, hain zuzen ere, **oinezko-entzako sarbideak hobetzea hiriaren goialdeko zonetara iristeko**, hala nola Larratxora.



- Udaleko Gobernu Batzordeak proiektu bat onartu du, Larratxon **bi igogailu** ezartzeko; horiei esker, auzoko goialdea eta behealdea bereizten dituen desnibela aise gainditu ahalko dute bertako bizilagunek.
- Egindako zenbatespenen arabera, **353.000 euroko** kostua izango dute obrek.

## XI. Mikrobus-zerbitzu berria

- Udalak azterlan bat eginarazi dio Donostiako Tranbia Konpainiari, Altzako goi-alderdiak mikrobus-zerbitzu batez hornitzeko ahalbidearen inguruan; ohiko autobus-lineen osagarri izango litzateke.

- Zerbitzu horrek helburutzat izango luke Altzako goialdea (Anbulatorioa, Kultur Etxea, kiroldegia) eta Eusko Trenen Pasai Antxoko geralekua lotzea. Hartara, Altzako auzotarrek askoz ere lotura bizkorragoa eta errazagoa izango dute hiriko gainerako auzoekiko, hala nola, Loiola, Amara edota Erdialdearekin.
- Mikro-zerbitzuek maiztasun laburra izango lukete, erabiltzaileei erakargarriak gerta dakizkien.
- Helburua da, hain zuzen ere, Pasai Antxoko Geralekuaren eta Donostiako kaleen arteko lotura erraztea, bi udalerrien arteko muga-mugan; horretarako, ekipamendu publikoak baliatu beharko dira Altzan, nahiz Pasai aldean.

### Parkeak eta ekipamendu publikoak

## XII. Tomasene baserriaren birgaitzea

- Tomasene baserria, Casares Kultur Etxetik 50 metro eskasera baitago, birgaitzen dihardute uneotan, **Altzako kultur zerbitzuak handitzeko** asmoz.
- Eraberritze-lanak **urte amaierarako** burutzea espero dute.




- **Bi liburutegi** (helduentzat eta haurrentzat) eta **areto balioaniztunak** gaituko dira bertan, Casares Kultur Etxean espazio libre gehiago uzteko, lantegiak eta bilerak antolatu ahal izateko.

- Proiektu honek **950.000 euroko** inbertsioa erakarriko du.

## XIII. Ametzagaina parkea


- Ametzagaina parkea, Otxoki parkearen alboan egongo dena eta Lau Haizetatik eta Garberatik sarbideak izango dituena, proiektu handinahia da; **37 hektareako azalera** hartuko du, Altza, Txomin-Enea, Intxaurrondo, Martutene eta Loiolako auzotarren gozamerako.
- Eremu hori guztia egokitzeko, lursailak eskuratzen ari da Udala; egokitze-lan horien baitan kokatuko da, **Ametzagaina gotorlekuaren berreskuratzea**.
- Balioespenen arabera, **12 milioi euroko** aurrekontua eskatuko du, obra hau burutzeak eta dagozkion lursailak erosteak.





## XIV. Ikastetxeak hobetzeko obrak

- Udalak **198.820 milioi euro** inbertituko ditu, Altzako bost ikastetxetan.
- **Herrera ikastetxean** egin beharreko inbertsio-obrek ondokoak izango dituzte ardatz: fatxadak konpontzea eta oztopo arkitektonikoak ezabatzea, 435.572 euroko kostuarekin; eta, egungo berogailu-sistema ordezkatzea, eta beste hainbat mantentze-lan.




- Aurreikusitakoaren arabera, inbertsioak egingo dira orobat **Altza-SJC** ikastetxean, fatxadak berritzeko asmoz; aurtengo mantentze-lanek izango duten 41.000 euroko kostuari gehitu beharko zaizkio horiek.
- **Arri Berri** ikastetxean, esaterako, leihoak ordezkatuko dituzte.

## XV. Kiroldegiko hobekuntzak

- Kirol-instalazioak birgaitzeko Planaren baitan, **149.816 euroko** kontu-sail bat bideratuko da Altzako kiroldegian hobekuntzak egiteko.
- Aurreikusitako obrak dira, besteak beste: eskailereta-ko **argi-iturriak ordezkatzea, itoginak eta hezetasunak saihesteko**; azterlan bat eginaraztea, aerobik-aretoetako aireztapena hobetzeko; garai bateko saunan eta botikinean eraberritze-lanak egitea; bulegoko ateak eta arreta-leihatilak konpontzea.

## XVI. Berrako sorospen-gunea

- Hirugarren adinekoentzako sorospen-gune bat izango du Altzak, ondokoak bilduko dituen: **Egoitza bat**, 140 plazakoa; **Eguneko Zentro bat**, 40 plazakoa; eta, guztira, **errentako 39 gizarte-apartamentu**.



- Bi urteren buruko eraldaketa-lanean ostean, eguneko zentro bilakatu da Berra baserria. Alabaina, eta katalogatutako eraikin kategoria duenez, eutsi egin diote jatorrian zuen arkitektura-tipologiari. Baserriarekin bat eginda, **eraikin moderno bat** egin dute, behe-oin

bat eta beste hiru altuera dituena; banakako 42 logela eta binakako beste 49 gaituko dituzte bertan. **Gizarte-errentako** erregimenean eskainiko dituzte **apartamentuak**, berengain diren baina diru-sarrera txikiak dituzten adinekoentzat. Instalazioek **kafetegi bat** ere izango dute, adineko auzotarrentzako zabalik izango dena.

- Sorospen-guneak **berdegune bat** izango du inguruan, **atseden-tokiak** eta **pasealekuak** bilduko dituena. Hobetu egingo dira Darieta bideko ibilgailuentzako eta oinezkoentzako sarbideak, espaloi bat sortuko baita kiroldegitik hasi eta Berra arteraino.
- Zenbatespenen arabera, **9 milioi euroko** kostua izango du proiektu honek.
- Adineko pertsonen arretarako instalazio-multzo hau **aurki zabalduko** da; hala espero dute, behintzat.

#### Herritarren partaidetza

## XVII. Altzako Garapen Komunitarioko Plana



- Altzako Garapen Komunitarioko Plana **2002. urte amaiera** aldean abiarazi zen, honako helburu hauekin: herritarren partaidetza-prozesuak bultzatzea; elkarten artean harreman gehiago sorraraztea; eta, herritarren partaidetza-prozesuak aintzakotzat hartzen saiatzea, Udal Administrazioaren baitan.

- **34 elkartek baino gehiagok** parte hartzen dute ekimen honetan. Eta berari esker ahalbidetu dira: auzotarren premien diagnostikoa; hainbat lantegi eta jardunaldi, politikoekin, teknikariek, elkarreetako ordezkariekin eta elkarreetan bildu gabeko herritarrekin elkarlanean.
- Bilera horiek baliatu dira **premien lehentasunak ezartzeko** eta **hitzarmenak adosteko**, Altzak izatera modernoagoa erdiets dezan etorkizunean, besteak beste: mugikortasuna, hirigintza eta gazteria jorragai dituzten alorretan. Helburutzat hartuta, betiere, proposamen bateratuak adostea eta gero Udalarai aurkeztea, guztien ahaleginak baturik eta lanean elkar harturik.





# 11

## Uneko eskaerentzako erantzunak

Altzako Udal Jarduketako Plana lantzerakoan, abiaburutzat hartu dira, besteak beste: Altzako Garapen Komunitarioko Planak landutako Premien Diagnostikoa deritzon dokumentua; eta, Udaleko Departamentu ezberdinek aintzakotzat harturiko proposamenak, sektore-alderdiei erantzunak eta konponbideak eman ahal izateko. Auzoaren eskariei emandako erantzun-mailak bat etorri behar du Donostiako hiri osoan zehar dauden gainerako premia eta arazoekin, eta ondorioz, baita lehendik dauden desorekak berdintzeko gizarte-lehenetasunak ezartzeko irizpideekin ere.

Egia da, Udal Behatokiak emandako adierazleen koadroan azaltzen denez, eta hiri osoa kontuan izanik, Altzako biztanleriak gabezia-egoera batzuk bizi dituela argi eta garbi. Inguruabar horrek ahalbidetu du, hain zuzen ere, Urban Planak eta Izartu Planak finkaturiko parametro eta galdakizunen barruan sartzea Altzako lurraldea, lurraldea biziberritzeko diru-laguntzak eskatzerakoan.

### I. Bide publikoak eta hiriko mantentze-lana

Espaloiaren zoladuraren hobekuntzak eta bide nagusien asfaltatzeak, adibidez, urtetik urtera arreta handiagoa eskatu beharko lukete aurrekontuaren baitan. Horretarako kontu-sail bat zehaztuko da 2005eko Aurrekontuan, hiru urterako.

Horrekin bat, espazio publiko nagusien (espaloi, parke eta plazen) mantentze- eta garbitze-lanek ere, Donostiako gainerako auzoetan adinako tratamendua izango dute. Gizabide-kanpaina bat egitea proposatzen da hiritarren artean, eskola-esparruan bereziki eta gaztetxoenei bideraturik. Herritarrak kontzientziarazi nahi

dira: parkeak zain ditzaten, bide publikoei garbi euts diezaieten, hiri-altzariak hondatzen dituzten bazter-nahasle triskantzak galeraz ditzaten... Garapen Komunitarioko Planaren baitako erakundeei laguntza eskatuko zaie, kanpainaren diseinuan parte har dezaten.

### II. Irisgarritasuna

Auzoaren orografia berezi dela bide, oinezkoek zailtasun handiak dituzte auzoko hainbat zonatarira iristeko, aldapak eta eskailerak bitarteko; horrek, gainera, teorian hurbil dauden alderdien arteko komunikazioa ere zaildu edo murriztu egiten du.

Ohikoak dira, hala nola, Herreratik edo Larratxotik Arri Berriko kirol- eta kultur ekipamenduetara iristeko dituzten eragozpenen inguruko kexuak. Edota, alderantziz, auzoaren goialdeko bizilagunek distantziaren arrazoia argudiatzen dute Larratxoko Gizarte Ongizate Zentrora edo Larratxo-Net gunera iritsi ahal izateko.

Biztanleriaren hainbat sektorek azaldutako trabak hein batean erlatibizatu beharra dagoen arren, ondoko jarduketak hitzematzen dira:

- Igogailuen proiektua gauzatzea Larratxon, dauden kota-desberdintasunak gainditzeko; proiektua 2004ko Aurrekontuak jasotzen zuen eta enkantean dago 354.000 euroko zenbatekoarekin.
- Aztertzea eta abiaraztea 2006rako, eta Donostiako Tranbia Konpainiak (CTSS) berak (hala badagokio), mikrobussen barne-zerbitzu zirkular bat: Larratxo eta Anbulatorioa, Arria parkea, kiroldegia, Berra eta Topoaren Pasai Antxoko geralekua lotuko dituen; eta, alderantziz. Linea horrek ahalbidetuko ditu auzotarren barne-komunikazioak, auzoaren mutur batetik



besteraino, eta hala esku-eskura izango dituzte bertoko udal-zerbitzuak.

### III. Garraio publikoa

Donostiako Tranbia Konpainiari azterlan bat egina-raziko zaio, Altzaren eta Donostiako gainerako auzoen arteko autobus-lineei egun izendaturiko maiztasun-zerbitzuak betearaztearren. Linea berrien bideragarritasuna ere aztertuko da, besteak beste Irisgarritasunaren atalean aipaturikoa, 2006rako abian jar dadin.

Aipamen berezia merezi du, halaber, Udalak Eusko Jaurlaritzaren Garraio Kontseiluari behin eta birritan egindako eskaria, Topoaren trazatu berria teknika alde-tik bideragarria den sakonki azter dezan galdatzeko eta auzoaren goialdean geltoki bat ezartzea ahalbideratuko lukeena. Ezin uko egiteko moduko helburua iduri du horretxek: batetik, garraibide iraunkorra aldeztuko lukeela Donostiako hiriguneraino; eta, bestetik, garraio-sistema publiko batez hornituko litzatekeelako berriro ere auzoa, biztanleriaren hazkundeari eta ondorioz Auditiz-Akular Zabaldurako eta Nerecan aldeko motorizazioari erantzungo liokeena.

Azterkizun legoke, bestalde, zer-nola aldeztu altzarren artean Renferen aldirietako trenen erabilera, lehendik hor dagoen Herrerako geralekuari ahalik eta etekinik egokiena ateratzearren.

### IV. Aparkalekuak

Auzoko arazorik larrienetakoa da, hain zuzen ere, lur gainean nahikoa aparkaleku eskaintzeko ezintasuna bertako kaleetan barna. Arazo hori larriago da Larratxon eta Anbulatorio alboko dorreen ingurunean. Konponbide gaitzeko arazoa da, haatik, aparkalekuak gaitzeko lurzorurik izan ezean.

Egiaz, ibilgailu-andanak hartzen ditu espaloi-zati luzeak, batik bat gauez; horrek gaitzotu egiten du eta

arriskuan jartzen oinezkoen mugikortasuna, are gehiago adineko jendearen kasuan.

Hainbat arrazoi bitarteko, auzotar-talde batek uko egin dio Elizasu parkean lurpeko aparkalekuak eraikitzeari, eta horrek eragotzi egiten du konponbideetariko bat. Azpimarratzekoa da, era berean, plaza "salduga-beak" daudela oraindik Udalak Larratxon sustatu berri duen aparkalekuan.

Hortaz, bada, Mugikortasun Departamentuak azterketa sakon bat planteatu du, hainbat zirkulazio-bidetan zilegi izan daitezkeen aldaketen bideragarritasunari buruz. Adibidez, Larratxotik hurbilen daudenetan, norako bakarreko ibilbide bat sortzen saiatzea; hartara, "gizalegez" eta luzetara aparkatu ahalko dute ibilgailuek bide horietan, espaloiak oso-osorik errespetatuz.

Zalantzarik gabe, azterketa horietan parte hartzeko aukera izango dute Plan Komunitarioko erakundeek, Roteta aldeko Nerecan ingurunean sorturiko espazioa bideratzeko orduan, nola aparkalekutarako hala nera-been jolas-lekutarako.

### V. Bide-sarea

Bide-azpiegiturak dira Altzako biztanleen kezkarik handienetakoa. Datozen urteetan garatzekoak diren bizitegi-hirigintzak bitarteko konponduko dira, besteak beste: barne-zirkulazio arazo amaigabeak; lehendiko bide-sarea erabiltzeko eragozpenak eta murrizketak; eta auzoaren kanpo-arteriekiko bide-lotuneen eskasia. Hirigintza-egitasmo horiek eurekin ekarriko dituzte zirkulazioaren bide-azpiegiturak, hazten ari den auzoaren premiekin bat datozenak.

Ildo horretatik, gaur egungo eskariak asebetetzera letorke: Herrerarako kanpo-sarbide berriak; Auditiz-Akularren aurreikusitako lotuneak, Saihesbidearekin eta Pasaiarekin; edota Nerecan eta Berra inguruneetako garapenek ekarriko dituzten bide-sareak.



## VI. Hiri-segurtasuna

Udaltzaingoaren Zinegotziordetzak zerbitzu iraunkorra ezarri eta bermatuko du, egunez behinik behin, Altzako alderdi guztiei kontu egingo diena eskuarki. Berehalakoan aplikatzekoa izango da.

## VII. Kultur zerbitzuak

Tomasene baserri historikoa gaitzeko lanetan dihardute oraintxe, gaur egungo Casares Kultur Etxeak zerbitzu gehiago eskain ditzan egiten ari baitira. 2006an abiaraziko da.

Larratxo eta Herrerako biztanleen eskariak asebetetzearren, Larratxoko Auzo Etxean jarduerak areagotzea aztertu beharko da. Larratxon garatzekoak diren kultur jardueren Urteko Programa prestatu beharko du Donostia Kulturak.

Auditz-Akularren hegoalderako kultur hornikuntzak ekarriko du behin betiko konponbidea. Ahal izanez gero, Larratxotik ahalik eta hurbilen kokatuko da, Kultur Gune berria Altzako lurraldera gerturatzearen. Irizpide hori hartu beharko du aintzakotzat, hasiera-hasieratik, hirigintza-antolamendurako proiektua idatziko duen taldeak.

## VIII. Gizarte-zerbitzuak

Udal Departamentuak ezarriko ditu, besteak beste: 2005. urtearen joanean egin beharreko Azterlana; gizarte-zerbitzuen premiak, oraindik estaligabeak auzoan; eta, batik bat, beste Oinarri Unitate bat kokatzeak lekarzkeen onurak, behar izanez gero, Nerecan edo Auditz-Akular aldean (azken kasuan, Santa Barbaratik hurbil).

Azterkizun izango ditu, halaber, Anbulatorioak egun eskaintzen dituen zerbitzuak. Hala, premiazkoak irudi-

tzen zaizkion hobekuntzak eta handitzeak egin ahal izatea eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, bai egungo eskariei erantzuteko, bai zabaldura berriek lurraldeko biztanlerian etorkizunean eragin lezaketen hazkunderi aurpegi emateko.

Gizarte Ongizateko Departamentuak arreta berezia jarriko du gizarte-larrialdietarako laguntzak bideratzekoan, hiri osoan jazotzen direnetarik %15,5 Altzan gertatzen baitira. Orobat, aurrera jarraituko dute ondoko programek: prebentzio alorrekoek (osasuna-drogen kontsumoa); ingurune zabaleko heziketara bideraturikoek (300 gazteri kontu egiten dieten kale-hezitzaileak); eta arrisku-egoeran dauden adin-txikikoak dituzten familiak artatzeko direnek.

## IX. Kirol-esparruak

Egun dauden eskariak asebeteko dituzte, hein handi batean: Herrera-Larratxo ibarrean ezarriko den kirol-hornikuntzak (erakundeekiko elkarrizketen bitartez zehaztuko dira zein ezaugarri izango dituen); desiragarri denez, Pescafríaren lursailetan egingo duten eraikinaren erdisotoko oinetan kokatuko duten kiroldegi estaliak; eta Nerecan aldeko pilotaleku berriak.

Gainerakoan, Auditz-Akularren hirigintza-plana idatziko duen taldeak adierazi beharko du, Udalarekin adostu ostean, kirol-espazio berriari dagozkion kokalekua eta programa. Bestelako zehaztapenik egiten ez den bitartean, ez dirudi oso zentzuzkoa Altzako kiroldegian ezartzekoak diren instalazioen bigarren fasea (atari zabaleko igerilekua) jorratzea.

Kiroldegian egin beharreko hobekuntza-lanei dagozkien, inbertsio-multzo bat garatzeko asmoa dago, 2005-2006 epealdian, 230.000 euroko zenbatekoa izango duena. Ondoko hobekuntza-lanak hartuko ditu:

- Igerilekuak daukan poliuretanozko beirateria aldatzea; 80.000 euro.
- Eskaileretako estalkien argi-iturriak aldatzea; 13.000 euro.
- Atzealdean dagoen perimetroko itxitura berrezartzea; 18.000 euro.

- Igerileku-zonarako sarbide berria; 6.000 euro.
- Saunaren eta botikinaren zonako forjatua konpontzea eta eraberritzea. Espazioa kirol-erabilerarako gaitzea; 60.000 euro.
- Aerobic-eko gimnasioaren aireztapena bideratzeko azterlana; 5.000 euro.
- Tutueriak ordezkatzera, Errege Dekretuak ezarritakora egokitzeko.
- Kontrol-gunea birgaitzea; 12.000 euro.
- Erabiltzaileen eskailerak konpontzea, barnealdean; 18.000 euro.
- Aldalekuetako ateak ordezkatzera; 18.000 euro.

## X. Heziketa

Auzoko ikastetxeetan lau urteren buruan egitekoak diren hobekuntzen plana aurkeztu behar du Udaleko Hezkuntza Departamentuak; jarduketei eman behar die lehentasuna eta kostuak balioetsi behar ditu.

Ondoko hobekuntzak egingo dira, 2005etik aurrera, Altzako haur-eskoletan eta lehen-mailako ikastetxeetan:

### CP HERRERA

- Fatxadak eraberritu eta oztopo arkitektonikoak eza-batzea. 2005eko udan egitekoak. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako obra. Aurrekontua: 435.572,21 euro.
- Berogailua ordezkatzera, indarrean dagoen segurtasun-araudira egokitzearen. Eusko Jaurlaritzari 2005ean egin eskaria, 2006. urtean burutu ahal izateko. Aurrekontua: 139.165,13 euro.

### ALTZA – S.J.C.

- Txikien patioa, eraikin nagusiaren eta mediatekaren artean dagoena, handitzea. 2005ean egitekoa.
- Ikastetxearen sarbideko eta atezainaren etxolako ateak berritzea. 2005ean egitekoa.
- Beheko oina pintatzea.
- Gimnasioko tronadura konpontzea eta bernizatzea.
- Fatxada. Aldika egin. Eusko Jaurlaritzari eskaria egin 2006an.
- Leihoak.

### ALTZA – S.J.C. / Leosiñeta

- Teilatu-hodiak ordezkatzera aztertu.
- Ikastetxe osoko erabilerak berregokitu dira 2004an; balioetsitakoaren arabera, 50.059,86 euroko kostua izan du. Berregokitze-lanak bere baitan hartu dituzte: bainugelak, zoladurak, jantokia eta pintaketa.

### OLETA

- Leihoak berritzea. Aldika egin da; aurten egingo da azken fasea.
- Pintaketa-lanak. 2005ean egitekoa.

### ARRI BERRI

- Leihoak aldatzea; 2005ean egitekoa. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako obra. Aurrekontua: 164.591,14 euro.
- Perimetroko itxitura ordezkatzera. Aldika egiten ari da. Aurten beste zati bat aldatuko da.
- Estalkiak berritzea. Estalkietako bat teilaberritzea.
- Ikasgeletako hormetako bistako adreiluak pintatzea. Azterkizun.
- Iaz lekualdatu egin zen jantokia, sukaldetik gertu egon zedin. Sukalde hori berritzeko konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Hobekuntza-lan horietatik at daude:

- Kirol-materialak, ateak eta saskibaloi-saskiak berritzea, edota pistak pintatzea.
- Ikastetxeetako haur-parkeak berritzeko diru-laguntzak.

Helburu gisa jorratu beharko litzateke, esaterako, auzoan dauden bi haur-eskolen (hautzaindegien) neurriak eta kokapena berriro aztertzea, eskariaren egiazko beharizanetara egokitzeko eta premiazkoak dituzten instalazioez hornitzeko.

Bermatu egin beharko da, adibidez, ikastetxe ezberdinetako kirol-jokoetarako patioak larunbatetan erabiltzeko moduan izatea. Halaber, aurrera jarraitu beharko du Udaleko Hezkuntza Departamentuaren Programak, zeinak uda-sasoian hainbat patio erabiltzeko aukera ahalbidetzen baitu.

Altzarako esperientzia-pilotu gisa, interes handiko ekimenez aipa daiteke honako hau: eskola-egiturake-



ta berria ezartzea auzoan, ikasleek heziketa-eskaintza osoa eta kalitatezkoa izan dezaten bertatik bertara; horretarako, Auditiz-Akular zabalduan eskola-erabilere-tako sortuko diren lurzoru berriak balia daitezke.

Lanbide Heziketako Eraikuntza Ikastetxeari bultzada bat eman behar zaio, lan-jarduneko sektore horrek bereganatu duen garrantzia kontuan izanik eta auzoko gazteentzako lanbide-irteera modura.

## **XI. Herritarren partaidetza**

Altzarako Planak bere baitan hartzen ditu Garapen Komunitarioko Planean ezarritako helburuak, eta ondorioz, ezinbestekoa izango da hiri-erakunde horri jarraipena ematea eta izaera dinamikoagoa ezartzea.

Aipaturiko Garapen Komunitarioa bitarteko, auzoko erakundeek taldean eta norbanakoek euren kasa parte hartzen dute, besteak beste: aurrekontu parte-hartzai-leak bultzatzen; auzoaren interesekoak diren gaiak eztabaidatzen; Elizasuko plaza berriaren ezaugarriak definitzeko zabalduko partaidetza-prozesuan; abian diren obren jarraipenean; hizkuntzaren normalkuntza-prozesuari jarraipena ematen; Donostiako Udaleko hainbat Departamentuekiko harremanak sendotzen; Altzako Emakume Elkarteek lantzen diharduten proiektu bateratuan elkarlanean aritzeko proposamenean; etab.

## **XII. Parkeak**

Arria eta Larratxo parkeen mantentze-lana da, unetan, kezka nagusia. Izan ere, horietxek baitira auzotarrak gehien erabiltzen dituzten berdeguneak. Horrengatik du halako garrantzia ere gizabide-kanpaina bat bultzatzea eta parkeetako "jagole" irudia sortzea; hori guztia aintzakotzat har dezaten gonbita egin zaie auzoko hainbat elkarte eta talderi.

Auditiz-Akular zabalduaren baitan, berdegune handiak egokituko dira, lurralde horretan oro har dagoen hornidura-gabezia estaltzearen. Horrez gain, garrantzitsua da orobat Ametzagaina parkeko interbentzioa, zeinari esker auzoari lotuta geratuko baita eta sarbideak izango baititu Otxoki parkearen ertzetatik eta Lau Haizeta bidetik.

Bestelako jardueri dagokienez, zuhaitz berriak landatzea aurreikusten da Arria eta Larratxo parkeetan. Halaber, udal-haztegiak ezartzeko asmoa dago; 2007. urterako, Lau Haizetan kokaturiko udal-finka batera lekualdatuko dira.

# 12

## Aurrekontu-konpromisoak eta urte askotako finantziaketa

### A/

Dokumentu honen zati honetarako egiaztatu eta kapituluetan aztertu ahal izan dugun bezala, biziberri- zeko orduan auzoa ez da hutsetik hasi eta Donostiako Gobernuak ez dio une batean ere utzi Udaltzaren batera behar ekintzak bultzatzeari, betiere auzotarren bizi-kalitatea eta gizarte-koherentsia hobea dadin.

Horren guztiaren frogak dugu 2004. urterako onartu- tako Udaltzaren Aurrekontua. Bertan, partida ekonomiko ugari sartu dira, urte askotakoak, asmoa izanik hirigin- tza-hausturak eragindako arazoak konpontze-lanetan jarraitzea, hiri-ingurune hondatuenei aurre egitea, eki- pamendu publikoetan defizitak ezabatzea, etxebizitza batzuen bizigarritasun-baldintzak hobetzea eta bazter- tutako biztanle-sektoreen premiak arintzea.

Edonola ere, aurrekontu-konpromisoak iraunkorrak izan behar dira 2004-2010 aldi osoan. Hala ere, une honetan zaila da Udaltzaren sartzen joan beharko den par- tiden zenbatekoa ebaluatzea; izan ere, ekipamendu, zuzkidura eta zerbitzu berrietan egingo diren inbertsio handienak hurrengo bost urterako Altzaren aurreikusitako lau hirigin-tza-interbentzioen burutzapen-prozesuekin gertatuko dira.

Abiapuntutzat herritarren eskaerak erakusten dituz- ten dokumentu batzuk eta Udaltzaren beraren aurreikus- penak hartu dira, problematika guztiei urte askotako finantzaketa-plan batean aurre egiteko.

Ondorengoak dira erreferentziako Dokumentuak:

- Urban eta Izartu I Planetan bildutako ekintzak.
- Gobernu Programa. Altza auzoari buruzko konpromisoak.
- Auzoaren premien diagnostikoa (2003), auzotarrek prestatutakoa.
- 2004 eta 2005eko partaidetza-aurrekontuei eginda- ko proposamenak.

- Martxan diren hirigin-tza-planak.
- GKPren lan-tailerra (2004ko martxoa).
- Altzaren Udaltzaren Ekintza Plan honetan bildutako ekintzak.

### B/

Une honetan Altzaren hainbat inguruetan egiten ari diren interbentzio ugari 2004ko Aurrekontuan daude sartuta eta oinarrituta, ondorengoak zehazki:

- Santa Barbara berrantolatua. (Arri Berriren II. fasea)
- Oleta erabat berrerratu.
- Elizasu plaza berritzeari buruzko auzotarren azterke- ta- eta partaidetza-prozesua.
- Darieta bidea hobetu. Aztertzeko.
- Tomasene Baserria birgaitu. (950.000 euro 2004- 05ean).
- Ametzagaina parkean lursailak erosi.
- Kiroldegian hobekuntzak egin.
- Garapen Komunitarioko Plana. Lan-prozesuak.
- Altza pasealekua eta Txirrita Bertsolaria asfaltatu.
- Larratxo Ikastetxeko Patioa egokitu.
- Larratxoko aparkalekua eta gaineko plaza.
- Kalte-ordainak, lurzoruko lanengatiko konpentsa- zioak, bizitegi berriak ematea eta desjabetzeak Herreran eta Buenavistan.
- Eraikitako ondarea birgaitu. Etxebizitzak birgaitzeko Parvisaren laguntzak.
- Arkitektura-trabak ezabatu; Larratxorako proiektua enkargatu.
- Lehiaketaren ondorioz, Auditx-Akular, Landarro eta Molinao Ibarbiderako hiri-antolamenduko Plana enkargatu.



## D/

Indarrean eta luzatua den 2004ko Aurrekontuan urte askotako partidak daude, ondorengo ekintzak bermatzeko:

- Larratzoko bi igogailuren proiektua: hori burutzeko 353.457 euro.
- Nerecaneko etxebizitza babestuen sustapena.
- Buenavistako etxebizitza babestuen sustapena.
- Herrerako Barne Erreformako ekintzak.
- Ametzagaina parkeko burutzapenaren I. eta II. faseak, Otxoki-Garberako ingurunea
- Auditiz-Akular-eko plangintza eta Molinaoko ingurunea.
- Elizasu plazaren erabateko berrikuntza (1,5 milioi euro).
- Casares eta Tomasenerako kultur ekipamendua (400.000 euro).
- Kaleen asfaltatzea. II. fasea.
- Lursailen erosketak eta desjabetzeak.
- Hiriko konponketak eta mantentze-lanak.

## E/

Bestalde, proiektu berriak hartu behar dira kontuan, eta horiek 2005erako onartu beharreko aurrekontu-dokumentuan urte askotako partidak gehitu behar dituzte, edo udal erakunde eta elkarten Aurrekontua aplikatzeko orduan kontuan hartuak izan.

- Herrerako Sistema Orokorra. Biala eta kolektorea. 10,4 milioi euro obra enkantean jartzeko. (2005-06)
- Herreraren antolamendurako ekarpen garbia. 3 milioi euro. (2005-06)
- 2005eko aurrekontu partehartzailerak aurkeztutako proposamenen artean lehenetsitakoak. (Ikus proposamenen zerrenda)
- DTKren azterketa auzorako zerbitzu linea berrietarako.
- Hobekuntzak auzoko ikastetxeetan. (Ikus XI. Kapituluko zerrenda)
- Hobekuntzak Aitzako Kiroldegian. (Ikus XI. Kapituluko zerrenda)
- Hobekuntzak espaloï eta asfaltatzeetan (300.000 euro).
- Etxebizitzak birgaitzeko Parvisaren laguntzak (200.000 euro 2005ean eta 650.000 euro 2006an).

## F/

Azkenik, Udalbatzak Herrera eta Nerecaneko hirigintza-planek eragindako ekipamenduen kargak hartu behar ditu kontuan, baita Auditiz-Akular eta Molinaoko Zabalgunearen garapena ere.

Horrenbestez, Herrerako ibarbidean, Nerecan ondoan, Pescafrian eta Auditiz-Akularren sortuko diren kirol-zuzkidura berriak eta eremu askotan aurreikusitako gizarte-lokalak birgaitzeko obrak, 2007-2010 aldiko udal-aurrekontuetan bildu behar dira. Lursailen jabeekin izandako negoziazioen emaitzak eta sistema orokorrak eta zuzkidura-ekipamenduak burutzeko proiektu-tekni-karien zehaztapenak, kasu bakoitzerako behar aurrekontu-partidak ebaluatzeko modua emango dute.

8, 9 eta 11. Kapituluetan, Aitzako lurraldean aplikatzeko geratzen diren konponbideak eta ekintzak zehaztu dira. Horien zati handi bat erlazionatuta daude Herrera, Nerecan, Buenavista eta Auditiz-Akular-Molinaoko eremuetarako hirigintza-plan berriek eragingo dituzten sistema orokorrak, ekipamenduak eta zuzkidurak burutzeko orduan Udalak hartutako eskumen eta obligazioekin. Ez dugu ahaztu behar betiere interbentzio horiek auzo eraikian gaur egun antzemandako defizit eta gabeziei aurre egiteko balio behar dutela.

Nolanahi ere zaila gertatzen da, ezinezkoa ez bada, une honetan horren aurrekontua egitea, burutu beharreko proiektu zehatzak esku artean eduki eta ezagutu arte. Azken hori, Auditiz-Akular eta Nerecanen kasuan oso agerikoa da.

# 13

## Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak. (PARVISA).

Izartu Planaren fondoen hasierako lankidetzaz, Parvisaren bidez, etxebizitza pribatuak birgaitzeko laguntza handiak ematen ari gara. Ezarritako baldintzen arabera, Altzako auzotar ugari ari dira laguntzak eskatzen eta, ondorioz, Izartu Plana desagertu ondoren ere Programa honi buruzko partida jarraitu eta sendotzera behartuko gaitu.

### Izarturen Altzarako aurrekontu orokorra

2002. urtea (2003an kobratutakoa) .....	300.506,05 euro
2003. urtea (2004an kobratutakoa) .....	199.197,95 euro
2004. urtea (2004an kobratutakoa) .....	176.745,48 euro
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>676.449,48 euro</b>

### Ordaindutako laguntzak

2003. urtea .....	44.939,57 euro
2004. urtea .....	174.066,31 euro
2005. urtea (05-3-15 arte) .....	91.383,53 euro
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>310.389,41 euro</b>

05-3-15ean ordaindu gabeko hainbat espediente daude bideratuta: guztira 488.190 euro. Horrenbestez, aurrekontuari buruzko konpromisoa bete egin behar da, ordainketak burutu daitezzen.

Parvisaren Zuzendaritzak erabakigarritzat jotzen du Altxa auzorako programa berri hau eta hurrengo ekitaldian aurrekontu-partidak aurreikusteko eskaera egiten du, etxebizitzak birgaitzeko lanentzako laguntzak eten ez daitezzen.

### AURREIKUSPENA

2005. urtea osatzeko Aurrekontura gehitu beharrekoa .....	200.000 euro
2006. ekitaldirako Aurrekontura gehitu beharrekoa .....	650.000 euro





# 14

## Alkateordetzan herritarren arreta sendotzea

Altzako Udal Ekintza Planak badu beste helburu bat ere: udal-zerbitzuen deszentralizazioa bultzatzea Alkateordetzaren Altzako bulegoan. Auzotarrei ahalbide ematea, alegia, bertan egin ditzaten ahalik eta administrazio-izapiderik gehienak eta gehien interesatzen zaizkien kudeaketak. Ekintza hori osotze aldera, herritarren arretarako zerbitzu gehiago eskaini beharko lituzke Kultur Etxeak, horri dagokion azterlana burutu eta gero.

Ezinbestekoa da, halaber, lehendik dauden udal-zerbitzuak ahalik eta eskuraerrazen jartzea auzoko herritarrei, egiaztatu ahal izan baita gabezia handia dagoela balizko interesdunei informazio bideratzerakotan. Azken batean, eskaintzen dizkieten baliabide eta zerbitzu guztien berri ahalik eta ongien aditzera eman nahi zaie Altzako auzotarrei. Nahitaezkoa da, bestetik, udal-zerbitzuen parte-hartzea planteatzea, Altzako erakundeek ekimenak bultzatzeari dagokionez.

Eginkizun horiei guztiei buruzko Azterlan bat egina-raz dakieke, adibidez, Garapen Komunitarioko Planaren taldekoei, Altzako Alkateordetzako bulegoarekin elkarlanean.

Orobat, eta Udal Departamentuko Auzoak eta Herritarren Partaidetzako Bulegoarekin elkar harturik, auzoan Barruti bat sortzeko ahalbideari buruzko Bidegararritasun Azterlan bat egin beharko da.



### **III. Planaren Jarraipen Batzordea**

Garapen Komunitarioko Planaren (GKP) Batzorde Iraunkorrari eskaini zaio Planaren Jarraipena; horretarako, eta hiriko Udal Gobernuarekin bat harturik, bidezkoak diren bitartekoak eta bilerak finkatuko dira. Auzoko erakundeek eginkizun garrantzitsua beteko dute, ez soilik Altzarako Plana aplikatzerakoan, baizik eta planari bultzada eta azken taxukera ematerakoan.

### **IV. Diagnostiko kuantitatiboa eta inkesta**

Premien Diagnostikoa ikuspegi kuantitatibo batetik osotu eta era berean eguneratze aldera, inkesta bat egingo da Altzako herritarren artean, gehienera jota urtebeteko epean. Inkesta horri esker jakin ahal izango dugu auzotarrek zer-nolako iritzia duten auzoan egiten ari diren obren eta hobekuntzen inguruan; eta, hala, Altzarako Planaren betekizuna eta garrantzia baloratu ahalgo dugu, lehendik dauden arazoek konponbidean.

